



Mundukide, kooperazio kooperatiboan

Iñaki Urbizu 'Pela' abeslariari elkarrizketa



## BAGARA AGURTU ETA PROZESUA INDARTZEKO ASMOZ

Hilaren 31n egingo dute amaiera-batzarra eta Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareak hartuko dio lekukoa / 2

Bagara proiektuan murgildu diren erakundeetako ordezkariak, eguaztenean, Arrasateko Kulturateko klaustroan. XABIER URZELAI



**Debagoieneko kirolari onena aukeratuko dute herritarrek, bueltan den DKS sariketan** / 38

**Hiri hondakinen sailkatze maila jaitsi egin da eta hobeto sailkatzeko kanpaina abiatuko dute** / 4

**Euskarazko spot lehiaketa antolatu dute, zortzigarren urtez; 2.550 euro saritan** / 22

### SINADURAK

IKER AGIRRE / 10

MAIDER ALDAI / 18

MAIALEN MADARIAGA / 28

AITZOL ITURBE / 32

AINZANE OIARBIDE / 48

**Arrasaten asteburuan ikusgai den 'Dantza' filmaren arrakasta "ahoz ahokoan" dago, Esnalen ustez** / 40

**T-ROC BERRIA**

**DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!**

**Udalaitz**

Gipuzkoen etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 19 70

**SEAT**



Iraitz Agirre, Jon Sarasua, Juan Luis Arexolaleiba Gaxi eta Nagore Iraola, Bagararen sorreran eta bidean protagonista, hastapenetako argazki batean. JULEN IRIONDO

# Debagoiena eraldatzeko sarea: egindako bidetik ikasiz, urrutiago iristeko

Hamarkada batez Bagararen zigilupean ezagututako planteamendu eta prozesuak indartu eta hari jarraipena ematera dator proposamen berria; askotariko esparruetako eragile eta ekimenak lotu nahi ditu, adostutako iparren norabidean jartzeko

**Julen Iriondo** ARRASATE

Bailara honek izan nahi du; eta –edo baina– ez edozein moduz. Erronka handiak ditu jendarteak, *gizateriak* esatea ez litzateke lar, eta Debagoienak bere erara erantzun eman diezaiekeela si-

netsita daude hainbat, lehenago ere erakutsi dela eskualde honetan erantzun propioetarako gaitasuna –kooperatibak sortuz–, beste batzuentzako ispilu izateko aukerarekin, gainera; etorkizun hobe baten alde, etorki-

zuna posible izan dadin, agian, areago.

Lau erronka nagusi darabilta ahotan Bagarako lehendakari Aritz Otxandianok –Gizarte Eraldaketarako arduraduna ere bada Fagorren–: "Lehena da energia-

rena eta iraunkortasunarena, eta hor egiten dugun hausnarketa da nola egokitzen den bailara honek duen lankidetzazko ekosistema industrial hau karbono isurketa txikiko ekonomia batera; zeren, hori badator, klima aldaketari aurre egiteko ekonomia, eta, oro har, gure gizartea karbonogabetu egin behar da. Bigarrena da ekosistema industrial hau nola moldatzen den lanaren munduan datozen aldaketetara, robotizazioa, automatizazioa... eta nola egiten dugun enplegua sortzen jarraitzeko panorama berri horretan. Hirugarrena da nola egiten dugun trantsizio hau bailara honek dituen gizarte berdintasuna edo kohesioa mantenduta, aberastasunari dagokionez desberdintasunak areagotu gabe, gizartearen zahartzeari aurre eginez, pertsona migratzaileak

prozesu honetan barneratuz, euskararen normalizazioan ere aurrera eginez, eta abar. Eta laugarrena da ze berrikuntza txertatu behar diren hezkuntzan horrelako eraldaketa prozesu bat modu egoki batean sostengatu ahal izateko; gure ustez, hezkuntzak sostengatzen duela-ko edozein eraldaketa prozesu".

## Datorrenaren aurrekariak

Ez ziren erronka horiekiko oso desberdinak mende honetako aurreko hamarkadaren azken aldera Bagara sortzeko burutazioa izan zutenek gogoan zera-biltzatenak. Jon Sarasua zen *Bailara prozesua* izendatu zutena ondu zutenen artean –hori gauzatzeko tresna moduan sortu zen Bagara, elkarte modura aurrena eta kooperatiba gisa ondoren–. Orduko eta oraingo diagnosiak ere antzerakoak dira: "Seguru asko, munduko bailararik kooperatiboena gara, dimentsio ekonomikoan eta beste arlo askotan, zenbaki aldetik; gizarte antolatuaren muskulua ere esanguratsua da, baina inor ez dabil konexioak pentsatzen edo ipar orokor bat pentsatzen, bakoitza dabil bere negozioari begira eta bere arloari begira". Adibide gisa jartzen du Sarasuak nolatan ez den, esaterako, erakuntzaren eta etxegintzaren gaian erantzun bat antolatu, "kontuan hartuta hortik zihola bailarako diruaren zati handi bat". Eta horrela jardunda, "tope baten aurrean eta ziklo amaiera baten aurrean" ikusten zizuten –eta dituzte; berak eta beste batzuek– kooperatibagintza eta herrigintza: "Gogoeta hori, berehala, bailarako erakunde kooperatibo eta sozial edo zibil nagusietan mamitu zen, eta denon artean ikusi ge-

## Nortzuen artean eta nola egin

Aritz Otxandianoren esanetan, lau zutabe behar ditu eraldaketa sozialak: erakundeak, enpresak, gizarte eragileak eta unibertsitatea. "Hausnarketa konpartitua da gaur egungo gizarte konplexuek dituzten erronkei erantzuteko lankidetzaz funtsezkoa dela; esparru bakoitza –adibidez, erakunde publikoak– bere kabuz ez dela gai erronka horiei erantzuteko".

Bat dator Aldundiaren izenean diharduen Xabier Barandiaran; dio askotariko arteko elkarlanetik sortutakoek hiru bertute dituztela, nagusiki: "Legitimitate handiagoa dute; eraginkorrak dira; eta denboran iraunkorrak".

Bagarak pilatutako ezagupenak eta egindako harreman sarea aprobetxatu nahi dituzte "jauzi bat" egiteko

eta komunitatean "inpaktu handiagoa" izateko; nola?

Tresna eta modu berriak erabilita: "*Big data*", adibidez, komunitatea "hobeto" entzun eta interpretatzeko, hortik proiektuak abiaraziz; eta esparru desberdinetako proiektuak –bisio bat partekatzen dutenak– elkar konektatuz. "Horrela sor liteke eraldaketa mugimendu bat", dio Otxandianok; horren harira, Agirre Lehendakaria Center-ekin dihardute lanean.

## Kooperatibak, motor eta berme

Beste hiru zutabeak –erakundeak, gizarte eragileak eta unibertsitatea– aitortuz, baina ez da kasualitatea gisa honetako planteamendua Debagoiengan sortu izana: "Arrasateko kooperatiba esperientzia, zerbait izatekotan, gizarte berrikuntza esperientzia da, duela 60 urte erronka sozial bati emandako sortzeko erantzuna, baina baita komunitatearen beste erronka batzuei heltzea helburu zuena ere: "Esperientziaren hasieran hain estuak izan ziren komunitatearekiko lotura horiek ahuldu egin dira, eta berriz estutu behar ditugu". Otxandianoren esanetan, kooperatibek "berme" izan behar dute, duten pisuagatik, prozesu berri hau beste logika batzuetatik –politikarenak...– "blindatzeko".

nuen bagenuela errelato berri bat sortzeko aukera, kooperatibagintzaren eta herrigintzaren ibilbidetik, baina jauzi bat planteatuz, jauzi integral bat, eta bailara honetan elementuak baditugula gizarte eraldaketa humanizatzaile bat zer izan daitekeen amesteko eta praktikatzeke, eta horrantz abiatu ginen duela hamar bat urte".

Ainara Udaondok ere badu Bagararen sorreraren berri; orduan ere Lankin –MUREN lankidetzaren ikertegia–, gaur egun zuzendari: "Funtsezkoak izan zitezkeen zenbait arlotan jarri zen begirada: hezkuntza; kooperatibak biziberritzea, batez ere euren gizarte konpromisoari dagokion atalean; nekazaritza; kontsumo arduratsua; iraunkortasuna; etxebizitza...". Gai baikoitzarekin lotutako azterketak egin, eta arlo horietan eraldaketara bideratutako proiektuak martxan jartzeko unea zen; eta hamarkada honetan izan dira hainbat –denak azken-azkenera, gauzatzea, ez iritsi arren–.

Ikuspegi orokor batetik, Bagarak –eta bere proiektuek– denbora honetan izandako inpaktuari buruz, haren sortzaileek eta inguruan ibilitakoek ez dute ezkututzen mugatua izan dela; Iraitz Agirre da Bagaran teknikari lanean jardun duenetako bat: "Hordago bat zen, oso proiektu integrala zen. Eta integraltasun horretan markoa jartzen da, baina gero hori dena ezagarritzeak eta gorpuzteak bere erritmoak, bere energiak ditu; eta hori dena lankidetzan jartzea eta emankorra izatea ez da nahi besteko abiaduran gertatzen: helburua argi eduki arren, bidea ez da, sarri, erraza izaten".

Agirreren bidetik Udaondok ere: "Zaila izan da saretze hori

osatzea. Konfluentzia izaera hori aitortu egin behar zaizu, lidergoa izan behar duzu, eta proiektu komun bueltan askotariko eragileak bildu ahal izateko behetik gorako lan handia egin behar da". Baina baieztapen baikorra ondoren: "Beste edozeren gainetik azpimarratuko nuke Bagarak garrantzi handia izan duela, zerbait martxan jartzeko norabidean eragile izan zelako; eta taupada horrek bizirik dirau".

### Bagararen agurra, hilaren 31n

Jon Sarasuaren ustez, Bagara esperientziaren ostean, bere garaian egindako planteamenduek bere horretan dira; martxan jarritako proiektuei aitortpena eginda, baina honetarako guztirako ipar bat pentsatu eta horren arabera jardutearena hor dago oraindik, eta baita askotariko esparruetako eragileak artikulatzearena ere: "Kooperatibagintza daukagu, hezkuntza erakundeak ditugu, euskalgintza dugu, maila askotako elkarteak ditugu –hirugarren mundura begirakoak, eta batekoak, eta besteak...–, eta horien guztien saretze espazioa izan behar zuen Bailara prozesuak, eta hortik sortuko ziren hainbat ideia eta konexio berri".

Baina hauxe da 2010ean Arrasateko Amaia antzokian aurkeztu eta hurrengo egunean Kulturaren egingo duten ekitaldian agurtuko duten Bagararen sorreran protagonismo handia edukitakoaren ebazpena: "Inportanteena da seguru asko bigarren aukera baten aurrean gaudela orain proiektuaren saktasun originala berrartzeko eta tresna berriekin, jende askori entzunez eta ikuspuntu berriekin aurrera egiteko".

## Urteotako hainbat proiektu



### Ereindajan

Bailarako baserritarrak eta kontsumitzaileak harremanetan jartzeko proiektua. Arrasaten eta Bergaran dituzte dendak. Bertakoak eta osasuntsuak dira darabiltzaten produktuak, eta egitasmoa ekoizle, kontsumitzaile eta Ereindajaneke langileen artean daramate. Bagarak dinamizazio lana egin zuen sorreran.



### Gureztatu

Arrasateko Azoka Plaza biziberritzea helburu izan zuen. Lehen sektorea indartzea eta beste kontsumo eredu bat zituen helburuen artean. Bagarak gidatuta, askotariko eragileek parte hartu zuten prozesuan, eta azoka berria diseinatzera iritsi ziren. Erabakimenik ez zuten, ordea, eta ez zen proiektua gauzatu.



### Eltzia

Oñatiko askotariko talde eta elkarteek partekatzen duten espazioa eta egitasmoa. Aurretik harremanik –askorik– ez zutenen arteko sinergiak aprobetxatzea du helburu. Autogestio adibidea, eta martxan jartzerakoan askotarikoekin –Bagara eta Udala ere bai– arteko elkarlanaren eredu ere bai.



### Herrigintza gaztea

Gazteak askotariko gaien inguruan formatzeko gunea, Bagarak sortua. Herrigintzara bideratutako edukiak landu zituzten, hainbat esperientzia ezagutuz. Gazteei beraien inguruan eragiteko eta proiektu berriak sustatzeko oinarriak eskaintzea izan zuen helburu, eta baita herri desberdinetako gazteak harremanetan jartzea.



### Koopfabrika

Hainbat erakunde –Bagara tartean– martxan jarritako ekintzailatza sozial programa. Koopfabrika gako izan zen, adibidez, Gu Haziak Gara elkartearentzat; kanpotik iritsitako pertsonen inklusioa errazteko ehungintza tailerra jarri zuten martxan, Koopfabrikak emandako laguntzari esker.



### Tobera

Bagararen ekimenez, eskualdeko herrietako pertsona eta taldeen artean egindako antzezlan satirikoa, epaiketa erakoa. Bost urtean egin zen, beste hainbeste herritan. Elkarlanaren kultura sustatzea eta herrien arteko dinamika trinkotuz bailara izaera indartzea zituen helburuen artean.

Nola liteke Unibertsoko energia zero izatea?  
Zer eragin izan du haren eboluzioan?  
Eta Gizadiarenean?  
Zer lotura du bizi-kalitatearekin?  
Eta gure ekonomien mailarekin?  
Eta Klima-aldaketarekin?

## ENERGIA: GUZTI-GUZTIAREN JATORRIA ETA AMAIERA

### ERAKUSKETA

Laboratorium. 2019. Urtarrilak 25 - Maiatzak 5

ANTOLATZAILEAK:



LABORATORIUM

gisme

UNIVERSITAT DE BARCELONA



Lander Arregi eta Unai Elkoro, kanpainaren aurkezpenaren. TXOMIN MADINA

## Hondakinak hobeto sailkatzeko kanpaina

Hondakinak sailkapena hobetzeko, 'Kalitatez bereizi, hondakinak sailkatu' izeneko kanpaina jarri du martxan Debagoieneko Mankomunitateak. Kanpaina bultzatzeko, 28.000 eskuorri banatzeaz gain, sare sozialetan ere egingo dute zabalpena

### Amaia Zabala DEBAGOIENA

Lander Arregi Debagoieneko Mankomunitateko Hondakinak Kudeaketa Batzordeko presidentea eta Unai Elkoro Debagoieneko Mankomunitateko presidentea *Kalitatez bereizi, hondakinak sailkatu* kanpaina aurkeztu zuten martitzenean. Kanpainaren helburua eskualdean hondakinak sailkapena hobetzea da.

Debagoieneko Mankomunitateko ordezkarien esanetan, krisialdia neurri batean gainditu eta gehiago kontsumitzearen ondorioz, azken hilabeteotan "gora egin du eskualdean sortzen den hondakin kopuruak". Jakinarazi dute errefusean nabari dela hori, "igoera %7,5ekoa" izan baita. Bestalde, azpimarratu dute hondakinak sailkapena ez dela beti ondo egiten; batez ere, organikoaren kasuan.

Lander Arregik gaineratu du "sailkapen desegoki" horrek berrerabilpena, birziklapena eta konposta egitea zailtzen

dituela: "Alde batetik, tratamenduaren kostuak gorantz doaz, errefusaren tratamendua bereziki oso garestia da, organikoaren kasuan ere garestia da, baina, konpostatzen ez badugu, are eta garestiago egingo zaigu. Bestalde, ez dugu ahaztu behar Debagoieneko Mankomunitateak diru kantitate dezente bat lortzen duela Ecoembes-en

eskuetik sailkapena ondo egitea; ontzi arinetik eta papereetik, esate baterako."

### Eskuorriak herritarrentzat

Hala, Mankomunitateak martxan jarri duen *Kalitatez bereizi, hondakinak sailkatu* kanpainaren barruan, frakzio bakoitzean zer sartzen den eta zer ez azalduko duten eskuorriak banatuko dituzte Debagoieneko etxe guztietan.

"Herriarrek sarritan zalantzak dituztela ikusi dugu, edo, beste kasu batzuetan, hondakinak sailkatzeko ohiturak galdu dituzte. Eskuorri horietan bereziki azaltzen da zer ez den bota behar frakzio bakoitzera. Bestalde, traste zaharrei zuzendutako atal bat ere egongo da", azaldu du Debagoieneko Mankomunitateko Hondakinak Kudeaketa Batzordeko presidentea.

Eskuorriekin batera, galdetegi bat ere bidaliko dute etxetara, eta hori bete eta eskualdeko udaletxetan jarriko dituzten

kutxetara eramaten dutenek *lanyard* bat edo txartelak eroteko gailu bat jasoko dute opari.

Gazteei begira, sare sozialetan ere zabalduko dute kanpaina. Horretaz gain, hondakinak modu egokian sailkatzeko zailtasun edo arazo handienak egon ohi diren puntuetan informazioa eskainiko dute.

"Puntu horiek %10 izango dira, asko jota, eta leku hauetan bertan hezitzaile bat kokatuko dugu. Izan ere, ikusi dugu populazioaren zati batek arazoak dituela gure sistema ulertzeko, hizkuntza aldetik, bereziki. Ondorioz, puntu horietan hezitzaile batek kolektibo horren hizkuntzan hondakinak kudeaketaren gaineko formakuntza eskainiko die".

Hondakinekin lotuta, Lander Arregik azaldu du irisgarritasuna hobetzeko pedalka jarriko dituztela, martxoan, errefusa eta organikoa jasotzeko edukiontzietan.

Isunez galdetuta, oraingoan, hiru kasu puntuetan soilik jarri dituztela argitu du Arregik: "Bi edo hiru kasutan soilik jarri dugu isuna, eta beti negozioei, Egoera errepikatu egiten zen, eta, beste irtenbiderik ikusten ez genuenez, toke handi bat eman genien". Gaineratu du gizabakoei isun arin batzuk jartzea ere ez dutela baztertzeko: "Gutxi batzuek sailkapena gaizki egiteak kalte handiak ekartzen dizkiolako gizarteari eta eskualdeari".

### Hondakinak sailkapena

"2018an hondakinak sailkapen tasa eskualdean %78,27 izan da, 2017an baino puntu bat gutxiago. Lander Arregik adierazi du kopuru "ona" dela, baina ezin direla erlaxatu: "Txapeldunak izaten jarraitzen dugu, Gipuzkoa mailan hondakinak sailkatze tasa altuena duen eskualdea baikara, eta Estatu mailan ere altuenetakoa izan gara".

Eskualdeko herrien artean, hondakinak sailkapen tasak antzekoak dira. 2017tik 2018ra Bergarak eta Leintz Gatzagak soilik egin dute gora; gehien jaitsi dena Elgeta izan da.

## HONDAKINEN SAILKAPEN TASA HANDIENA DUEN ESKUALDEA DA DEBAGOIENA

## Arrasate, gizarte zerbitzuetan punta-puntan

Gizarte zerbitzuetan gehien inbertitzen duen hirugarren udalerrria da, ikerketa baten arabera

### Amaia Zabala ARRASATE

Espainiako Estatuaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Kudeatzaileen Elkarteak argitaratu dituen datuen arabera, 20.000 biztanletik gorako herrien artean Arrasate da, bigarren urtez jarraian, gizarte kohesio eta justizian gehien inbertitzen duen hirugarren udalerrria; lehenengo postuan Erreterria dago eta bigarrenean, berriz, Santurtzi.

Ikerketa horretarako 2017ko datuak erabili zituzte, eta, Arrasateren kasuan, 5,40 milioi inbertitu ziren gizarte zerbitzuetan (adinekoen egoitza barne), urteko eta pertsonako 245,80 euro.

"Gizarte osasuntsu bat, gizarte kohesionatu bat da inor atzean uzten ez duen gizarte bat; horretarako, beharrezkoa da gizarte zerbitzuetan inbertitzea, eta hori gizarte osoarentzat da onuragarria", azaldu du Maria Ubarretxenak, Arrasateko alkateak. Gaineratu du, etorkizunean ere bide horri eustea "beharrezkoa" dela eta udalaren kontuen egoera "ona" dela eta etorkizunean inbertsio horri eustea ere "posible" izango dela.

Aipatutako elkarteak estatuko 31 herri jo ditu "bikaintzat" eta horien artean hirugarren postua lortu Arrasatek. Bete behar izan dituen baldintzen artean: Gizarte zerbitzuetan urtean, biztanle bakoitzeko, 100 eurokotik gorako inbertsioa egitea, inbertsio hau aurreko urtekoa baino txikiagoa ez izatea eta gizarte gastua aurrekontu orokorraren %10etik gorakoa izatea daude.

### 20.000tik gorako herriak soilik

Kontuan hartu behar da, Debagoienean, Bergara eta Oñati atzetik badabilta ere, Arrasate soilik dela 20.000tik gora biztanle dituen herria, beraz, baita ikerketa honetarako erabili duten herrien zerrendan sartu den eskualdeko herri bakarra ere.

### Gaikako bilketa

Herria	2017	2018
Antzuola	%82,49	%81,63
Aretxabaleta	%78,66	%76,32
Arrasate	%77,89	%76,61
Bergara	%80,62	%81,09
Elgeta	%80,65	%75,60
Eskoriatza	%76,82	%76,36
Leintz Gatzaga	%80,83	%81,80
Oñati	%80,72	%79,28
<b>Debagoiena</b>	<b>%79,28</b>	<b>%78,27</b>



### KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Arizmendi Ikastolaren marko pedagogikoaren oinarrian konfiantza dago. Ikasleek beren buruarengan, besteengan eta beren inguruarengan konfiantza edukitzeak norbere gaitasunak garatzeko eta, era autonomoan, etorkizuneko erronkak lortzeko balio du.



**MATRIKULAZIO EPEA**  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

**UMEZAINZA\*** Urtarrilak 26 larunbata 11:30 Arrasate



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

<b>GAZTELUPE</b>	Otsailak 5	asteartea	11:00-12:30 15:00-16:30	Arrasate
<b>ALMEN</b>	Urtarrilak 30	asteazkena	11:30-12:30 (6. mailako ikasleen bitxia)	Eskoriatza
	Otsailak 5	asteartea	11:00-12:30 14:30-16:00	Eskoriatza



Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaluzue, DBHko zuzendari Unai Busturiairekin (abusturia@arizmendi.eus) eta Elena Errastierarekin (eerrasti@arizmendi.eus) harremanetan jarri.

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

<b>ARIMAZUBI</b>	Urtarrilak 28	astelehena	9:15-11:15 14:45-16:30	Arrasate
<b>GAZTELUONDO</b>	Urtarrilak 29	asteartea	9:15-11:15 14:45-16:30	Arrasate
<b>SANTA TERESA</b>	Urtarrilak 30	asteazkena	9:15-11:15 14:45-16:30	Arrasate
<b>ALMEN</b>	Urtarrilak 28	astelehena	9:15-11:15 14:15-16:00	Eskoriatza



Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaluzue, gune bakoitzeko arduradunarekin jarri harremanetan: Almen (Aritz Olanguren arolanguren@arizmendi.eus), Gazteluondo (Miren Uribealgo muribesalgo@arizmendi.eus), S.Teresa (Iban Roa iroa@arizmendi.eus), Arimazubi (Arabel Mondragon amondragon@arizmendi.eus)

### INFORMAZIO BILERAK

<b>GAZTELUPE</b> (EUSKARAZ)	Urtarrilak 29	asteartea	17:30	Arrasate
<b>GAZTELUPE</b> (ELEBITAN)	Urtarrilak 30	asteazkena	17:30	Arrasate
<b>ALMEN</b>	Urtarrilak 29	asteartea	17:30 (aldibereko itzulpena)	Eskoriatza

*konfiantzaz*

**ZATOZ IKASTOLARA!**

INFORMA ZAITEZ: 943 77 20 25 / [www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)





EIT Climate - KIC erakundeko eta Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareko ordezkariak, atzo, Fagor Arrasaten. ITZIAR LARRAÑAGA

# EIT Climate-KIC erakundearen eskutik, klima aldaketa hizpide

Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sarea eta klima aldaketa eta berrikuntza lantzen dituen Europako EIT Climate-KIC erakundea elkarlanerako bideak aztertzen ari dira, atzo eta gaur, Arrasaten egiten ari diren jardunaldietan

## Amaia Zabala ARRASATE

Bailarak dituen erronkei elkarrekin erantzuteko helburuarekin Debagoiengan sortu berri den Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareko kideekin elkartu dira klima aldaketan eta berrikuntzan erreferente diren Europako EIT Climate-KIC erakundeko kideak.

## Debagoiena Entzuten

Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sarea 2019an bailaran jaio den proiektu "sozial eta berritzaile" da. Helburua da Debagoienak dituen erronka nagusiei erantzuna ematea, garapen komunitarioa eta lankidetzaren ardatz. Alegia, etorkizuneko erronkak identifikatu -klima aldaketarekin, populazioaren zahartzearekin, berdintasunarekin, lanarekin, eta abarrekin lotutakoak- eta haiei erantzunak emateko mo-

duak bilatzea. Erantzun horiek proiektu zehatzetan gorpuztuko dira. Batzuetan, sortu egingo dira; beste batzuetan, daudenak bultzatu eta indartu.

Fagor Taldeko eraldaketa sozialeko arduradun eta Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sareko kide Aritz Otxandianok azaldu duen moduan, "proiektu jakinek eraldatuko dute gizartea. Proiektu berriak sortuko dira lankidetzaren sarearen bueltan, baina egin behar duena da gaur egun egiten diren hainbat gauza baliolan ipini, gaur egun badaudelako proiektu berritzaileak martxan. Seguru asko, ez dira harremanetan egongo edo ez dira kontziente izango gizarte ikuskera jakin bat partekatzen dutela. Hain zuzen, lankidetzaren sareak egin gura duena da ekimen horiek harremanetan ipini, sinergiak baliatu, elkarlana

sustatu eta astiro etorkizuneko ikuskera partekatu hori eraikitzen joan".

## Metodologia berritzaileak

Helburu horiei erantzunak emateko bidean, metodologia berritzaileak erabiliko dira, komunitatearen inplikazioa lortze bidean nazioartean emaitza onak ematen ari direnak. Horretarako, komunitatearen entzute sakona oinarri duten metodologiak erabiliko dira. Gizarteak zer esaten duen entzun, zein kezka eta behar dituen, horiei erantzunak emateko proiektuak

**'DEBAGOIENA ENTZUTEN LANKIDETZA SAREA', BAILARAKO ERRONKEI ERANTZUTEKO PREST**

sortzeraino. "Bailaran zein iritzi dauden, herritarrek bailara nola ikusten duten, zeintzuk diren lehenetsunak, erronka globalekiko zein den euren pertzepzioa, hori guztiori entzun behar dugu ondo, gero irtengo diren proiektuek benetako inpaktu bat izan dezaten", dio Otxandianok.

Agirre Lehendakaria Centerko ikerketa eta berrikuntzako zuzendari Gorka Espiauk adierazi duenez, "parte-hartzearen alorrean joera berriek herritarrei entzuteko mekanismo berriak eskatzen dituzte. Nola lortu jendeak benetan bere beharrak entzuten direla sentitzea? Proiektu eta erabaki estrategikoak jendeak esaten duen hori kontuan hartuta diseinatu behar dira, eta ez alde zuzeneko iritzietan oinarrituta".

Ekimen berri horretan, entzuteak izango duen pisua berebizikoa da, eta, hortik, taldeari emaniko izena: Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sarea.

## Lankidetzaren bidea

Sareak lankidetzaren sustatzea ere badu helburu, Debagoiengan komunitatearekiko konpromisoa izan dezaketelako elkarrekin, erakunde, proiektu, eta abarren artean. Hain zuzen ere, desberdinen arteko batura da une honetan Debagoiena Entzuten Lankidetzaren Sarea. Hori lortzeko bidean, lanean dihardute Fagor, Giza-bidea, ALC, Emun, Mondragon Unibertsitatea, Saiolan eta Goiena erakundeak.

## EIT Climate-KIC

EIT Climate-KIC klima aldaketara eta berrikuntzara bideratutako Europar Batasuneko Berrikuntza eta Ezagutza Komunitatea da, eta, atzo eta gaur, ibarrean daude.

Taldeak klima aldaketaren aurrean gizartean dituen erronkak erantzutea du helburu. Zero emisioeko ekonomia baterantz bideak zabaltzeko lan egitea, besteak beste.

Europako Teknologia Institutuaren laguntzarekin, EIT Climate-KIC erakundeak berotze globalari eta aldaketa klimatikoari aurre egin diezaioketen proiektu berritzaileak identifikatu eta bultzatzen ditu.

Erakundeak eskualdea bisitatzearan garrantzia azpimarratu du Agirre Lehendakaria Centerko komunikazio eta esku-hartze arduradun Itziar Morenok, eta arrazoia honako hau izan dela gaineratu: "Eskualdean sortzen ari garen plataformaren metodologiak eta prozedurak Climate-KIC erakundeko arduradunentzat deigarri izan dira, irailan lantaldeko Giulio Quagglitto Arrasaten egon zenetik".

Morenok gaineratu du, ordea, beraien ustez interesa azaldu izanaren arrazoi nagusia "laborategi" logika dela: "Plataformak gauza berriak sortzeko eta testatzeko espazio eta ekosistema bat eskaintzen digu, eta, txiki-keria iruditzen arren, berritzaile izateko baimen hori ez da leku guztietan aurkitzen".

# DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"Guztion eskola, Guztion artean"

goieskola

debagoieneko euskal  
eskola publikoa



## MATRIKULAZIOLA ZABALIK



GOIESKOLA@GMAIL.COM

605773992



**URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8RA**

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA  
INFORMAZIO BILERAK ETA ATEAK ZABALIK



**ARAMAIO** - San Martin Eskola  
**ANGIOZAR** - Herri Eskola  
**ELGETA** - Herri Eskola  
**ANTZUOLA** - Herri Eskola

INFORMAZIO ZUZENA  
ESKOLAN BERTAN

**ARRASATE**  
Arrasate Herri Eskola

Urtarrilaren 29an, 18:00etan BEDOÑABEN  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan MUSAKOLAN  
Urtarrilaren 30ean, 14:30ean ERGUINEN

**BERGARA**  
San Martin Agirre Eskola  
Ipintza Institutua

Urtarrilaren 29an, 18:00etan

Arrasate Institutua

Urtarrilaren 29an, 18:00etan INSTITUTUAN  
Urtarrilaren 30ean, 18:00etan ARAMAION

**ESKORIATZA**  
Luis Ezeiza Eskola

Urtarrilaren 29an, 18:00etan

**URGAIN OÑATI**

Urtarrilaren 26an, 11:00etan TXIKI-TXOKON  
Urtarrilaren 26an, 17:00etan ERREKALDEN  
Urtarrilaren 29an, 18:00etan INSTITUTUAN

**ARETXABALETA**  
Kurtzebarri Eskola  
Kurtzebarri Institutua

Urtarrilaren 24an, 18:00etan  
Urtarrilaren 29an, 18:00etan

**HHI-EPA ARRASATE**  
**HHI-EPA BERGARA**

MATRIKULA ZABALIK

## GUTUNAK

**2019ko Arrasateko Martxoak 8 Plataforma****JASONE GIRALDO MENENDEZ**ARRASATEKO MARTXOAK 8 PLATAFORMA  
ARRASATE

Zuri idazten dizugu urtarrilaren 15ean plataformara gerturatzea ezinezko suertatu zitzaizulako, baina bertako berriak jasotzeko gogotsu zaudela badakigulako!

Argazkietan ikusi izan zenuen bezala, parte hartzea oso handia izan zen, emakume pila gerturatu zen bai goizeko baita arratsaldeko deialdira ere.

Denak gogotsu aurtengo Martxoaren 8a denon artean diseinatuko.

Erantzun anitza izan da, bai adinetan, bai ingurune ezberdinak ordezkatzan ditugulako.

Greba feministak denetariko emakumeak batu eta espazio

ezberdinak astintzen lagunduko digu.

2018ko olatuaren ondoren, 2019an gure aldarrikapenak zabaldu nahi ditugu. Bizitzak erdigunean jarri, inor prekarietatean bizi gabe, indarkeria matxista eta heteroaraua amaitu, arrazakeria eta gerra kolonialik gabe eta gure aniztasunak onartu nahi ditugu. Gure gorputzak, lurraldea eta lurra defendatzeko ordua dela uste dugu.

Bi astetik behin elkartzea adostu dugu, astearteetan; aukera baduzu, apuntatu agendan urtarrilaren 29ko, otsailaren 12ko eta 26ko deialdiak, Kulturaten; 10:30eko edo 18:30eko deialdira gerturatu zaitezke.

Plataformara gerturatzeko aukera irekita dago!

Lantaldetan antolatu gara; oraingoz, sei lantalde:

Martxoaren 8ko egitaraua, aurrelanketaren diseinua, zaintza arloa, ikasleen greba, enplegu greba eta komunikazioa.

Lantalde berriak sortu daitezke -pentsionistak, diru kontuak, adibidez-; bakoitzak nahi duen lantaldean parte har dezake.

Plataformako guztien artean diseinatu eta erabakiko dugu zer egin, eta gero, bakoitzak esango du zertan lagundu dezakeen.

Plataformara gerturatzea ezinezkoa bazaizu, baina aurreko deialdiaren akta jaso nahi baduzu edota lantaldere baten sartu, bidali posta elektronikoa bat [m8arrasate@gmail.com](mailto:m8arrasate@gmail.com)-era.

Emakumeok baturik eta elkarlanean geldiezinak garelako, Martxoaren 8a borroka egun ahaztezin bihurtuko dugu. Zatoz gurekin!

## HANDIK ETA HEMENDIK

**Albiste****ANDONI EGAÑA**

[HTTPS://LABUR.EUS/BIBVL](https://labur.eus/bibvl)  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Propio ibili behar izan duzu bila.

Ze u saiatu ezean, jakin gabe pasatuko zinen.

Ikusi dituzu futbolariaren hainbat argazki.

Ikusi duzu aurrelariak askotariko elastikoekin sarturiko gol mordoxka.

Entzun dituzu, Argentinatik konexioa eginda, haren aita-amen hitzak eta negar-zotinak.

Entzun dituzu taldekide-ohien hitzak ere.

Hegazkinaren ezaugarriei buruzko adituen hitzak ere entzun ahal izan dituzu.

Frantzia eta Britainia Handiaren mapak eta hegaldiaren ustezko ibilbidea ere xehatu dituzte irudietan.

Erreskate lanetan dabilzan itsasontzi eta helikopteroak ere ikusi dituzu...

Baina propio aritu behar izan duzu bila.

Sumatzen zenuen hegazkina txikia, hegaldia laburra eta bera trebea izan arren ez zela bakarrik joango.

Eta ez zihoan bakarrik, ez. Ahalegindu egin behar izan duzu, ordea, beste bi lagun ere galdu direla jakiteko.

Futbolariarekin batera, hegazkin gidaria eta laguntzaile bat zihoazen.

Ez duzu astirik edo argirik izan "laguntzailea" gidariarena edo futbolariaren laguntzaile zen aletzeko.

Ezaguna bezain aspaldikoa da pasadizoa.

Irratiz bota omen zuen esatariak.

"Gaur, Atotxan, Realak bat... eta besteek bi".

"Besteek bi" hori, bere bitxian, duinagoa iruditzen zait beste biak bazirenik ere ez azaltzea baino.

Post gehiago 10. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzizutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



# Nuria Sanchez Povedano | Psikologoa



## "Gizakiaren burmuinaz dakiguna eskoletan aplikatzea da helburua"

Oñatin izango den psikologoak nabarmentzen du haurraren bizitzako lehen 6 urteen garrantzia. Estimulazio goiztiarrari buruzko jardunaldiak egingo dituzte otsailaren 8an eta 9an Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxean, Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolarekin elkarlanean. Nuria Sanchez Povedano psikologoa izango da saioak gidatuko dituena. Nuria estatu mailan gai honetan erreferente bat da. 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei eta profesionalari irakasle, logopeda, psikologo, psikopedagogo, fisioterapeuta... zuzendutakoak dira jardunaldiak. Izena otsailaren 6ra arte eman daiteke. Izen-ematea 75 € da. Lekuak mugatuak dira.

## Zer esan nahi dute estimulazio goiztiarra edo adimen anitzak moduko kontzeptuek?

Neurologian, neuro-hezkuntza deitzen den horretan, egindako ikerketetatik datoz. Helburua da gizakiaren burmuinari buruz dakiguna eskoletan aplikatzea. Adimen anitzei dagokienez, gaur egun, adimena uste genuena baino askoz ere gauza konplexuagoa da. Adimena intelijentzia testetan neurtzen denetik harago doa; test hauetan ez baitira baloratzen gaur egun oso garrantzitsu jotzen diren hainbat adimen: adimen emozionala, intrapersonala, interpersonala... Bestalde, adimen guztiak lantzea ezinbesteko da izakiaren garapen holistikoa lortzeko. Bestetik, burmuina organo

dinamiko bat da, eta batez ere bizitzako aurreneko urteetan eraikitzen da. Beraz, estimulazio goiztiarra diogunean, burmuina elikatzeaz hitz egiten gabilta, ahalik eta ondoen eraiki dadin eta adimen horiek erabili ahal izan ditzan.

## Hezkuntza metodologia aldatu beharko da, beraz.

Bai. Haurrek nola ikasten duten kontuan izan nahi dugu, eskola egokitu eta benetako ikasteko gune bihurtu. Edukiak buruz ikastea baino, ikasleei bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzen lagunduko diegu.

## Askoz ere hezkuntza pertsonalizatuagoa eskatuko du horrek.

Hala da, bai. Hezkuntzak izan behar du ume bakoitzaren ahalmenen eta talentuaren arabera. Kontuan izan behar da denok ez dugula berdin ikasten.

## Estimulazio Goiztiarreko jardunaldiak nolakoak izango dira?

Oso gauza praktikoa izango da, programa kognitibo, sozial eta fisikoa landuko ditugu, eta zati teoriko bat izango du honen guztiaren oinarrian dagoena ulertzen lagunduko diguna.



"...Esztigunean momentu oso bereziak bizi izan ditugu eta elkarrengandik asko ikasi dugu"

Maite Elkorobarrutia  
(ama eta irakaslea)



"Esztigunean gure seme-alabekin kalitatezko uneak igarotzean, txikien garapen osasuntsuan oinarri sendoak elkarrekin eraikitzen ari garela ikusten dugu"

Aitor Zubia (bi haurren aita)

0-3 URTEKO HAURREN FAMILIEI ZUZENDUTA

eSztigunea

Familian kalitatezko uneak bizitzeko aukera...

# ESZTIGUNEA

GURASOEN ESTIMULAZIOA LANTZEKO GUNEA

## Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan dagoeneko Esztigunea moduko guraso eskola martxan dago eta arrakasta izaten ari da.

Bai, duela 2 urte martxan jarritako programa honen gakoa estimulazio goiztiarreko programak familian martxan jarri ahal izatea da. Haurraren lehenengo afektugunea familia da; beraz, giro goxo horretan haurrak bizi eta ikasitakoak eraginkoragoak izaten dira.

## Zer ekarpen eman diezaioke bai hurrei eta bai gurasoei?

Guraso guztiak bat datoz, Esztiguneko une hori oso berezi bihurtzen da. Gurasoen presentzia eta eremu seguru honek haurrari potentzialtasun guztiak martxan jartzeko aukera eskaintzen dio, konpetentzia fisikoez gain, bere buruarengan konfiantza eta autonomia garatuz.

# ESTIMULAZIO GOIZTIARRA JARDUNALDIK

## Núria Sánchez

[www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus)

Arantzazu Kalea 18, 20560 - Oñati Telf.: 943 71 82 72  
[www.mlagundia.net](http://www.mlagundia.net)

Espaloia Kalea, 1. 20570 - Bergara · Telf. 943 76 25 40

### Elkar Hezi Ikastetxean

Otsailak 8, ostirala  
16:00-20:00

Otsailak 9, larunbata  
9:00-14:00  
eta 15:30- 18:30



ZABALIK

IKER AGIRRE

## Itzalpeko maskulinitateak

Futbolak eredu hegemonikoa bultzatzen duen garai hauetan, maskulinitate berrien gaia gero eta entzunagoa da jendartean. Berriak izan beharrean, itzalpekoak direla esango nuke. Historian zehar, badira maskulinitate hegemonikotik haratago –feminiterik gabekoa, arriskuzalea, gogorra, indartsua...– beste eredu batzuk aurrera eramane dituzten gizonak, modu batean edo bestean, zigortuak eta zapalduak izan direnak.

Baina zer da gizon izatea? Zerk egiten gaitu gizon? Askotan, teoria oso ikasia dugula iruditzen zait, nik barne. Baina zer gertatzen zaigu jauzi egin eta praktikan zentratzen garenean? Pribilegioen galera? Zer esango duten beldurra? Prozesuan biziko dugunaren zalantza? Barruak mugitzen zaizkigula esango nuke.

Txikitatik jasotako heziketaren ondorioz, begietan sare fin eta gardenaren eratzeko eratuak, gizontasunaren inguruan eraikita ditugun oinarri sendoak geureak direla sinestazten. Horren aurrean, ezinbestekoa da barrura begira jarri eta nork bere identitatearen

inguruko galderak egitea, hori izango baita norbera dena hobeto ezagutzeko bidea.

Askotan, ardura jendartearengan jartzen dugu; begi-bistakoa da horrek izugarritzko eragina duela gudan, baina prozesua eta hausnarketa norberaren baitatik hastea askoz aberasgarriagoa dela esango nuke. Norbanako gisa ditugun bizipenak zerrendatu, arakatu eta kolektibizatu beharrean gaudela uste dut. Horretarako, gizonok juiziorik gabeko espazioak behar ditugu, testuinguru eroso eta seguruak, itzalpeko maskulinitateak ahaldundu eta betaurreko berriekin kaleratzeko.

Aurreko lerroak irakurri eta gero, baliteke batzuk oraindik gizonok berdintasunean dugun paperaz ohartu ez izana, eta, agian, batzuek erruduntasunetik eraikiko dute bidea. Nik nahiago dut arduratik eraiki, jendarte parekide baterantz urratsak emateko orduan, gizonok dugun roletik.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Ostadar bat estrategia

TXERRA RODRIGUEZ

HTTPS://LABUR.EUS/6A7ML

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Euskaraldia amaitu egin da eta gure garaia aurreratzeko aukerak irudikatu ditugu. Hiztunak subjektu politiko bihurtzeko saiakera izan da, ahalduntzea edo burujabetza helburu. Baina, tira, ez dugu ahaztu behar ahalduntze/burujabetza prozesuak berez konplexuak, dinamikoak eta etengabeak direla. Hortaz, tokatzen zaigu indarra egiten segitzea. [...]

Esperientziak alderdi aktiboa izan du eta, horren ondorioz, esperientzia gertatu den testuinguruaren elementuetan

aldaketak gertatu dira. Gertatu dira bai, baina zer neurritan edo eraginetan jakitea beste kontu bat da. Eta, gainera, hartu behar da kontuan hauek guztiak amaitu bako prozesuak direla, bizipenetan oinarritutakoak, eta ez horrenbeste edukietan. Beraz, aldaketak aldakorak izan daitezke.

Derion lagun batek esan zuen bezala, "argia bagenuen, baina argindarra falta genuen" (gora Derioko hizkuntza militante poetak!). Ahoak eta belarriak zorroztu ditugu, baina, tira, ostadar bat estrategia gehiago jarri beharko ditugu martxan. Ahoa, belarria, bihotza, sabela eta, zenbaitetan, ukabila ere zorroztu beharko ditugu,

euskalgintza erradikalagoa bihurtuz. Baina, kontuz, batzuetan largabistak atzera jarrita, helburuak urrunago ikusten dira.

Izan ere, gure ametsen geometriak ez dira ahozko elkarrizketetan amaitzen, hortik haragokoak dira eta beste esparru horietan ere jarraitu beharko dugu eragiten eta egiten (sortzen!). Ekimen kolektiborako sena elikatzen jarraitu beharko dugu, auto-antolakuntza sustatzen, tokitik eta errotik. Arrakalatxoak sorrarazten, alegia.

Irribarrea lagun eta agoniatik urrun.

Post gehiago 8. orrialdean.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

#### Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa

arduraduna Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Zaintza-lanetan desoreka dago sistema injustuagatik"

LEIRE ESTEVEZ ARRASATEKO M8-KO PLATAFORMAKO KIDEA

**Txomin Madina** ARRASATE

Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba deitu du aurten ere Martxoaren 8rako. Debagoienean ere lanean hasi dira emakume taldeak. **Iazko Greba Feministan mobilizazioak jendetsuak izan baziren ere, kualitatiboki ematen diogu garrantzia, emakumeen saretze prozesua aktibatu zuelako. Urteetan egindako lanaren emaitza izan zen eta aurten, batzarrak berriro aktibatu ditugunean, igarri dugu iazko arrastoa, motibazio bereziarekin erantzun duelako jendeak. **Batzarrekin jarraituko duzue?** Bai, Arrasaten, esaterako, martitzenean, hilaren 29an, 10:30ean eta 18:30ean. Lantaldeka ariko gara, interesen arabera batean edo bestean lanean jardunez. Borroka honen parte izan nahi duen emakume asko dagoela antzematen dugu.**



Leire Estevez, Arrasateko Otolara kalean. ENEKO AZKARATE

**Batzarretan denetiko emakumeak elkartu zarete?**

Adin, jatorri eta egoera ezberdinetako, askotariko, emakumeak elkartu gara. Horrek piztu du, bereziki, nire arreta, onerako.

**Ze aldarrikatuko duzue aurten?**

Kontsumo, ikasle, zaintza, enplegu eta pentsionistak dira ardatz nagusiak. *Kapitalismo hetero-patriarkalari planto!; bizitzak erdigunera* da leloa. Zaintzaren kontua erdigunean

jarri nahi izan dugu. Izan ere, egungo sistema honek funtzionatzen du emakumeok zaintza lan asko egiten ditugulako. Eta lan horiek, gehienetan, gainera, ez dute ezelako errekonozimendurik. **Gizonezkoek zer egin behar dute?**

Modu autonomoan antolatzeok eskatzen diegu, emakumei lanak errazteko greba egin dezaten; inguruko gizonak mobilizatu eta aktibatu ditzatela; haien ardurak direnak eta batzuetan hartzen ez dituztenak har ditzatela... Sistema injustu honen ondorioz, zaintza-lanak desorekatuta daude eta gizonok inplikatu behar dira horretan.

**Jendartearen zati batek feminismoa gauza negatibo moduan ikusten du. Zergatik?**

Esango nuke irudi edo uste hori aldatu egin dela, eta, egongo balitz ere, ezjakintasunean eta aurreiritzietan oinarrituta dagoela. Badago interes bat feminismoa barregarri uzteko. Baina ez da garrantzitsuena. Beste kontu batzuetan jarri behar dugu ardura. Gizonezkoendako deserosoak izan daitezke hainbat egoera, baina horiek ondoetorriak dira, zerbait ondo egiten ari garen seinale da eta.

## HAU BE BADOGU!

**Euriteak izan dira Euskal Herri osoan**



Azken egunetan bota duen euri jarioa dela-eta sare sozialetako erabiltzaile asko erreka eta gerta litezkeen uholdeei begira egon dira. Umorerik ere ez da falta izan oraingoan:

@Elena\_Maid: "Egun zoragarria!!! #AlertaLaranja #Haizea #Eurria".

@samaravelte: "Bitartean, ETBn... Elkartasun osoa 5 gradutan eta euritan 5 gradu eta euria ari duela esateko zuzeneko konexioa egitera bidaltzen dituzten kazetari guztiei".

**Maravillas 'trending topic' bigarren astez**

Iruñeko Maravillas gaztetxearen afera bolo-bolo ibili da sare sozialetan aste honetan ere eta *trending topic* izan da Espainia mailan:

@maravillasGTX: "Antolakuntza, elkartasuna eta borroka. Aske izateko giltzak #Maravillas herriarentzat".

@annegartzia: "Maravillas ez da gaztetxe xume bat, mundua ulertzeko modu eder bat baizik!

#MaravillasHerriarentzat #MaravillasAurrera".

**Pablo Ibar, zurrunbiloaren erdian**

Epailak pasa den aste bukaeran erabaki zuen AEBetan 24 urte heriotzaren korridorean daramatzen Pablo Ibar herriz ere errudun jotzea. Eguaztenez, epaimahaiko kide batek bere erabakian atzera egin zuela jakin zen.

@igormoku: "Beti esan ohi da herrialde garatugabeetan justiziarik ez dagoela... Garatuenean, gutxiago dagoela esango nuke... Pablo Ibar errudun... #PabloIbarAskatu!".

## ITURRI ONETIK

**Bus geltokia, semaforoa eta komunak**

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko errepidean hainbat lan egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Helburua da Torrebaso, Arizmendi edota Ederlan inguruan dabilzaten mugikortasuna eta segurtasuna hobetzea. Hala, bi bus geltoki eta semaforo bidezko zebra bidea egingo dituzte. 153.000 eurotan adjudikatu dituzte lanak eta zortzi aste irautea espero dute. Lan horiekin batera, komun publikoak ere egingo dituzte bidegorrian, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek erdi-bana ordainduta.

## ALBISTE IZAN ZEN



2009-01-24

**Zuhaitzak zuztarretik atera zituen zikloiak**

Euskal Herria aldenik alden astindu zuen zikloi batek hainbat kalte eragin zituen Debagoienean: kaleko edukiontzia arrastaka erabili, zuhaitzak erditik moztu, zuztarretik atera, argi posteak lurrera bota... Hain zuzen, argi barik geratu ziren Bergaran eta Antzuolan hainbat orduz eta kiroldegiak itxi egin zituzten. Iragarritakoa baino ondorio txikiagoak izan zituen, halere, aurre egiteko neurriak hartu zirelako.



Joseba Egibar –GBBko presidentea–, Maria Ubarretxena –EAJren alkategaia– eta Maria Eugenia Arrizabalaga –EAJ–. X.G.

## Maria Ubarretxena, EAJren alkategai berriz

Astelehenean egin zuten hautagaitza aurkezpen ekitaldi ofiziala. Uribe auzoan izan zen, Ubarretxenarentzat esanahi berezia duen auzoan, eta EAJren hauteskundeetarako zerrendan aurpegi eta profil berriak egongo direla aurreratu zuen alkateak

### Xabi Gorostidi ARRASATE

Lau urteko agintaldiaren ostean, Maria Ubarretxena EAJko alkategaia izango da 2019ko udal hauteskundeetan ere. Astelehen eguerdian egin zuten aurkezpen ekitaldi ofiziala, Uribe auzoan, Ubarretxenak lotura berezia baitauka auzo horrekin. "Dakienez, ez naiz arrasatearra jaiotzez, baina arrasatear batekin nago ezkontuta, duela 15 urte. Nire senarra Uribe auzokoa da, eta beti izan dut auzo honekiko lotura berezi bat. Eta nahiz eta hemen jaio ez, Arrasaten 15 urte daramatzat, nire semeak hemen jaiotakoak dira eta nire bihotza arrasatearra da. Hori guztiori kontuan izanda erabaki dugu ekitaldia Biterin, Kulturaren edo erdialdean egin beharrean, Uribe auzoan egitea".

Alkategaiaren aurretik, ordea, Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek hartu zuen hitza, eta, besteak beste, esan zuen "ohorea" dela Gipuzkoako EAJrentzat Maria Uba-

retxena alkategai moduan aurkeztu ahal izatea: "Bera izan da Arrasatek bizi izan duen aldatetaren ardatza". Ubarretxenak eta bere taldeak egindako agintaldiari dagokionez, honako ezaugarri hauek azpimarratu zituen: elkarriketarako izandako gaitasuna, proiektu politikoa eta erabakitasuna –arazo sozialentzako eta azpiegiturentzako–.

"Nik uste dut giro politikoa lasaitu egin duela, eta lehengoa baino hobea dela orain. Etorkizunari begira, badugu zer hobetu errespetuari dagokionez. Errespetua; giza eskubide guztiei, eta baita proiektu guztiei. Eta gu seguru gaude Maria Ubarretxenaren eskuetan uzten dugun testigu hori leku onera eram-

**"ILUSIOZ ETA GOGOZ BETERIK" HARTU DU HAUTAGAITZAREN ENKARGUA UBARRETXENAK**

go duela, arrasatearren onurarako", azaldu dio Egibarrek GOIENARI.

### Profil berriak EAJren zerrendan

Maria Ubarretxenak azaldu duenez, laster jakinaraziko dute Arrasateko zerrenda nortzuek osatuko duten, baina profil berriko aurpegiak izango direla aurreratu du.

"Oraingo taldekide gehienek errepikatu egingo dute zerrendan, baina egongo dira aurpegi berriak, profil berriei erantzuten dietenak. Politika desprestigiatuta dagoen garai honetan, oso garrantzitsua da, guretzat, gure herri proiektuarekin identifikatuta sentitu diren herritar konprometituek gurekin bat egitea, eta gure lantaldean ideia berriak sartzea. Herriari euren ekarpena egiteko gogo biziz daude, eta oso albiste ona izan da guretzat. Esan bezala, zerrenda osatuta daukagu, baina gure barne batzarrak onartu behar du lehenik eta behin".

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Kexak edukiontziekin, Txaeta kalean



Zera dio hango bizilagun batek: "Arratoien arazoa dela eta, Txaetako zaborrontzien kokalekua aldatu egin zuten, behin-behinean. Baina ez dute arazoa desagertu, desbideratu baizik".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

### Kontzertua Herriko Plazan, eta operarako sarreraren zozketa

Ibai-arte antolatuta, El Barrioren bertsioak egiten dituen Tala & Su Banda taldeak zuzeneko egingo du bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:00etan.

Behin hori amaituta, herriko komertzioetan erosketak egin dituztenen artean, *Madamme Butterfly* opera ikusteko hogeituzte Herriko Plazan bertan.

### Santa Ageda koruak 4.950 euro iaz, eta bilera hilaren 30ean

Otsailaren 4ko kantaldiko partaideentzako bilera antolatu dute Santa Ageda koruko arduradunek. Hilaren 30ean izango da, 21:00etan, Karkabal elkartearen. Iazko kantaldiari esker 4.950 euro batu zituzten, eta honela banatu zituzten gero: haur behartuen jangelei 800 euro, etxe alokairuei 1.650 euro eta Bideak tailerrari 2.500 euro.

## OHARRAK

### Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenetako protestekin jarraituz, Herriko Plazan batuko dira, 12:00etan, pentsio duinak aldarrikatzeko.

### M8 Plataformaren bilera, martitzenean

Bi saio egingo dituzte, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Goizean, 10:30ean eta arratsaldean 18:30ean.

### Arrasateko Helduen Eskolako matrikulazioa

Urtarrilaren 28tik 31ra zabalik izango da Helduen Eskolan apuntatzeko matrikulazio epea.

### Irantsube elkartearen batzar orokorra

Zapatuan, hilak 26, urteroko batzar orokorra egingo dute elkartearen bertan. Lehen deialdia 10:30erako egin dute eta bigarrena, aldiz, 11:00erako.

### Danok-bat elkartearen batzar orokorra

Jokin Zaitegi plazan dagoen elkartearen bazkideek batzar orokorra egingo dute domekan, hilak 27. Lehen deialdia 11:30erako egin dute eta bigarrena, aldiz, 12:00erako.

# "Udalaren trabak" salatu ditu txosna batzordeak

2018ko sanjuanetan "ordutegia ez errespetatzeagatik eta txosnagunea zikin uzteagatik" Udalak 2.000 euroko fidantza kendu diela salatu dute ohar bidez. Alkateak dio "arauak errespetatzeko daudela", eta EH Bilduk isunen bidea hartzea kritikatu du

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Berriki kaleratutako ohar batean, txosna batzordeak jakinarazi du Udalak 2.000 euroko fidantza kendu diela, 2018ko sanjuanetan bi arau ez errespetatzeagatik: 05:00etan ixteko ordutegia ez betetzea eta, behin txosnak kenduta, gunea zikin uztea.

## Ordutegia ez betetzea

Ordutegi hori urtean hiru egunez ez betetzeko malgutasuna eskatzen du txosna batzordeak: "03:00etan musika jaistea eta 05:00etan kentzea eskatuz gero, txosnagunea ezin du ordutegi hori errespetatu. Gure eragileentzat, txosnak jartzea inber-



2018ko sanjuanetako txosna irekiera. GOIENA

tsio eta ahalegin handia da, eta gau batzuetan topera ibili beharra dago apustua errentagarria izan dadin, boluntarioen eragileek diru apur bat lor dezaten urtean zehar lan egin ahal izateko. Pentsa dezagun, urtean, zenbat gauetan egoten da txosnagunea 07:30ak edo 08:00ak arte zabalik? Hiru gau urte osoan, jaietan; ekainaren 23an, 25ean eta Maritxu Kajoi egunean.

## Txosnagunea zikin uztea

Fidantza kentzeko bigarren arrazoiari dagokionez, ondorengo adierazi dute: "Gure txosnak, edalontziak, kaxak, zakarrontziak, kartelak, kableak, makinak... jasotzen ditugu urtez urte, eta, inguruko trabak eramandakoan, Udaleko makinek errepaso bat ematen diote guneari, falta diren hondarrak garbitzeko; beste edozein taberna edo jai ingurutan egiten duten bezala. Ala Udalak kontratatutako garbiketa enpresek ez dituzte garbitzen beste jaiguneak? Taberna inguruak? Azokak? Zezen-plaza ingurua? Zein da arazoa, herri osoko gau giroa dagoen edozein tokitan bezalaxe, azken garbiketa garbi-

tasun enpresek egin dezaten? Oharrean ere aipatzen dute aurretik hainbat "traba" jaso izan dituztela oraingo Udal Gobernuarengandik: "Orain dela urte bi, arkitekto batek diseinatutako larrialdi eta ebakuazio plan bat eskatu ziguten txosnak ireki baino hiru-lau egun lehenago. Eta, iaz, argindarra emateari utziko ziotela eta guk geuk hornitzaile bat bilatu beharko genuela esan ziguten, irekierarako egun gutxiren faltan".

## Alkatea eta EH Bildu

Txosna batzordearen oharrak galdetuta, zera erantzun zuen alkateak Goiena TBko Harira saioan: "Arauak errespetatzeko daude, eta, kasu honetan, Kultura Sailak jarritako isuna izan da. Aldez aurretik, errugbi taldekoei ere fidantza kendu izan zaien, garbitasunarekin lotuta. Ez dugu horrekin arazorik".

EH Bilduk, berriz, prentsa oharra plazaratu du txosna batzordeari eta Musakolako jai batzordeari elkartasuna adierazteko, eta "isunen bidea" hartu izana kritikatzeko diote Udal Gobernuari.





MATRIKULA EPEA ZABALIK:  
URTARRILAREN 28TIK  
OTSAILAREN 8RA.



ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

## UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

ATE IREKIAK ➡ Urtarrilak 26 larunbata 11:30

## URIBARRI

JOKIN ZAITEGI

0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.

943 77 20 25 [www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MENDAGON  
Atzerriko Baserriak Inbuztatuko Sola Zerbitzua



arizmendi  
ikastola



Garibai kaleko 14.ean dagoen eraikina AEK, LAB, CCOO eta Txatxilipurdi elkarteek erabiltzen dute gaur egun. XABI GOROSTIDI



## AEK, Iturriotz kalean, irailerako

AEK-k Garibain amaituko du 2018-2019 ikasturtea, eta hau bukatzean hasiko dira lekuz aldatzen, irailetik aurrera ikasturte berria Iturriotz kaleko egoitza berria eman ahal izateko. "Korrika ekimenak ahalbidetu digu, hein handi batean, lokal berria erostea".

# Gazteentzako etxeak alokairuan, 2021erako

Urte luzez, AEKren, sindikatuen –hauek bueltatu egingo dira– eta Txatxilipurdiren egoitza izan da irudiko eraikina, baina, Udalak 2015ean egindako eskari baten harira, gazteentzako zuzkidura etxebizitzak egingo ditu eraikinaren jabe den Jaurlaritzak

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Gazteek gurasoen etxetik joateko dituzten zailtasunak arintzeko asmoz, goiko argazkiko eraikinean zuzkidurako etxebizitzak egingo ditu bertako jabe den Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak. Honako ezaugarri hauek dituzte zuzkidura etxebizitzek: 35 urtetik beherako gazteei zuzenduta daude, alokairuan har

daitezke soilik –2015ean 200 euroren bueltan egoten ziren–, bost urterako alokairuak izaten dira, asko jota, 40 eta 60 metro koadroak izaten dira, orokorrean, ekipamendura bideratutako lurzoruetan egin daitezke, eta garbitegi zerbitzu komunitarioa izan dezakete. EAJren 2015eko hauteskunde programako seiarren puntuari jasotzen zen

eraikin hori gazteei etxebizitzak egiteko bideratzea, eta, behin agintean, 2015eko urriaren 25ean egin zion Udalak eskaera Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari. Haiek baiezkota eman zioten, besteak beste, "udalerrian dagoen babes publikoko etxebizitzaren eskaria" kontuan izanda, eta eraikina birgaitzeko konpromisoa hartu zuten.

## Gaur egungo erabiltzaileak

Azken urteetan erabiltzaile hauek izan ditu eraikinak: beheko solairuan, Txatxilipurdiren biltegia; lehen solairuan, CCOO sindikatua; bigarrenean, LAB sindikatua; hirugarrenean, AEK; eta laugarrenean, ESK sindikatua –2017a ezkerro ez daude han–.

CCOO eta LAB sindikatuek eraikinerantz itzuliko dira –beheko solairura eta lehen solairura– behin birgaitze lanak amaituta. Lan horiek 2020ko azken hiruhilekoan amaitzea da Etxebizitza Sailaren aurreikuspena, eta, irauten duten artean, Alfontso X Jakintsua plazako 4. eta 6. atarteetan dauden lokaletara lekualdatuko dira, 2019. urte erdialdetik 2021eko hasierara arte.

AEK eta Txatxilipurdi, aldiz, ez dira eraikinerantz bueltatuko. Lehenen kasuan, 1986a ezkerro darabilten lokala utzi beharko

dute. "Udalari laguntza eskaini zioten lokal berri bat erosteko. Txaeta kaleko udal jabetzako lokal bat erosteko aukera aztertu zuten, baina, azkenean, Iturriotz kaleko 21. atartearen dagoen lokal baten alde egin zuten.

Txatxilipurdik ezin izango du bertako biltegia erabiltzen jarraitu, baina alkateak adierazi du gaur egun Euskararen Plazako egoitzatik gertu konponbidea emateko asmoa dutela. "Orain arte, lokala erabili izan dute, baina Jaurlaritzak ez zuen horren berririk. Horregatik ezin izango dute gehiago erabili, eta ez dago gorkio Jaurlaritzari ordezko lokal bat aurkitzea. Baina Udaletik, Ereindajanen lokal ohitik gertu, lokal bat egokituko dugu, ludoteka eta gazte txoko zerbitzua ematen duen enpresak biltegi gisa erabili dezan; kasu honetan, Txatxilipurdi".

## Drogekiko eta jokoarekiko adikzioan jarri du fokua Jaikik

*Gazteria eta adikzioak: apurta dezagun isiltasuna* izenburupean oharra plazaratu dute –Goiena. eus-en irakur daiteke–, Arrasaten ikusten duten egoeraren aurrean arreta jartzeko asmoz. "Arazo bat dago, eta arazo hori seinatu egin behar da. Ez da posible hainbat eta hainbat tabernatan, zenbait lokaletan eta joko aretoetan droga saltzaileak egotea

egunero drogak saltzen, zuzenean edo mugikorrari lotuta hara eta hona mugitzen. Ez da posible eta ez da zilegi beste alde batera begiratzen jarraitzea. Bada garaia honi erantzuna ematen hasteko. Ez da informazio edo heziketa arazo soil, arazo politikoa da, nagusiki". Bi gai horiei buruz eragiten hasteko, jokoaren adikzioari buruzko hitzaldi bat antolatu dute otsailaren 8rako. Gaztetxean izango da, 18:30ean, eta *Jokoa eta menpekotasuna gurean* izenburupean.

## II. Ikasle Eguna martxoaren 23an egingo dute

Ikasle Abertzaleek finkatu dute eguna II. Ikasle Egunerako. Martxoaren 23an –zapatua– egingo dute, eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako: hitzaldia, mural margotzea, bazkaria, karro-poteoa... eta, eguna ondo borobiltzeko, kontzertuak egingo dituzte gaztetxean Against You, Perlata eta Libertad Condiciona taldeek.



### HAUR MASAJE IKASTAROA

0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako.

---

**ANTOLATZAILEA:** MUGI, Psikomotritate Prebentzio eta Laguntza Zentroa. Araba Etorbidea 3, 2-3. atea ARRASATE

**EGUNAK:** Otsailak, 8, 15, 22 eta martxoak 1

**ORDUA:** 10:30etatik 12:00etara

**INFORMAZIOA:** 636 38 85 40 (erantzungailuan kontaktua utzi)

RPS: 167/18

**UMEAK:**  
ENTZUN, ULERTU, ERRESPECTATU ETA MAITATU

# Arrasate

## Herri Eskola



Arrasate  
Herri Eskola



goieskola  
debaioieneko euskal  
eskola publikoa

"Guztion eskola,  
Guztion artean"



# MATRIKULAZIOA ZABALIK

URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8RA

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala Irailean, Uztailean eta gorriz ez diren eskolako opor egun guztietan

**ATEAK  
ZABALIK**

• BEDOÑABE •

Urtarrilak

**29**

18:00

• ERGUIN •

Urtarrilak

**30**

14:30

• MUSAKOLA •

Urtarrilak

**30**

18:00

**BILERETARA EZIN BAZARETE  
ETORRI, DEITU ESKOLARA  
ETA ARRETAZ HARTUKO  
ZAITUZTEGU**



Mondrateko jokalaria bat baloia erkin. IMANOL SORIANO

## Liderra etxean hartuko du Mondrate taldeak

Aste honetan atsedenaldia izango dute Euskal Ligako areto futbol taldeek. Hori horrela, datorren astean, otsailaren 2an izango du partidua Mondratek, Gernikako taldearen aurka, Musakolan, 17:00etan –ordua eta eguna aldatu egin litezke–

### Imanol Beloki ARRASATE

Denboraldi bikaina egiten ari da Euskal Ligan lehiatzen ari den Mondrate areto futbol taldea. Saiklapenean hirugarren postuan daude arrasatearrak, 23 puntu-rekin, eta hurrengo jardunaldia Gernikako Lagunak taldearen aurka jokatuko dute, etxean, otsailaren 2an, 17:00etan –ordua eta eguna konfirmatzeko dago oraindik–.

Ez da aurkari samurra izango; izan ere, liderrak dira gernikarrak, 26 punturekin, eta bi partidu soilik galdu dituzte denboraldi honetan. Hala ere, sei puntuko aldea dago soilik bi taldeen artean, eta helburua distantzia txikitzea izango dela adierazi du Mondrate taldeko Xabi Gorroñoigoitia jokalaria: "Denboraldi bikaina egiten ari gara. Azken jardunaldietan, bigarren postuan mantendu gara, eta orain, hirugarrenean egon arren, partidu honetan hiru puntuak lortzea ezinbestekoa izango da saiklapeneko goiko

postuetan mantentzeko. Hala ere, atzetik ere baditugu puntu gutxira hainbat talde, eta partidu guztietan puntuak batzea garrantzitsua izango da".

### Goian mantentzeko helburua

Arrasatearrak bolada onean ari badira ere, pasa den jardunaldian puntu bakarra lortu zuten etxetik kanpora, bosgarren postuan dagoen Mahastiak Labastida taldearen aurka. Hala ere, puntu garrantzitsua izan zela adierazi du Gorroñoigoitia: "Taldea zaila da Labastida, eta partidua jokatu genuen ordua ere ez zen onena izan, nire ustez. Zapatua, 19:00etan. Hala ere, puntu garrantzitsua lortu genuen; izan ere, ondo jokatzen duen taldea

**LIDERRAREKIKO  
DISTANTZIA  
TXIKITZEKO,  
GARAIPENA BEHARKO  
DU MONDRATEK**

da, eta emaitzarekin pozik egoteko moduan gaude".

### Liderraren aurka, etxean

Musakolan jokatuko dute hamalagarren jardunaldiko partidua, baina ez da asteburu honetan izango. Izan ere, atsedenaldia izango dute oraingoan Euskal Ligako talde guztiek. Hala, estrategiak finkatzeko eta liderra nola garaitu asmatzeko denbora izango dute Antxon Isasi-Isasmendi entrenatzailearen mutilek. Horrekin batera, zaleen animoak ere ezinbestekoak izango dira hiru puntuak lortzeko. Hala, Musakolara gerturatzeko dei egin nahi diete taldekideek zaleei.

### Talde osoa prest

Xabi Gorroñoigoitia orkatilarekin arazoekin izan da hilabetez eta Jon del Palacio *Delpa*-k, berriz, belauna izan du minduta. Edozelan ere, liderraren aurkako partidurako talde osoa prest izango da.



BITTOR MUNARRIZ

## Lauko finala irabaztera

Lauko finala jokatuko dute asteburu honetan Ointxe!-ko gazte mailako mutilek. Bilbon izango da, Casillan, eta lau talde izango dira lehia. Zapatuan, 10:00etan jokatuko dute Mondragon Unibertsitateak lehen finalurrekoa, La Salleren aurka, eta Bilbao Basket eta Urgatzi taldeek, bestea, 12:00etan. Finala, berriz, domekan izango da, 13:00etan.

**URRETXU**  
TABERNA

*Inaugurazioa gaur!!*

20:00etatik 21:00etara  
tragoa eta pintxoa  
**DOAN!**

*Anima zaitetz eta etorri!!*

Maisu Guridi kalea (San Andresen) Arrasate • Tel.: 943 79 15 93



# Tarragonatik bisita, bueltarako txartelarekin

Montblanc herriko musikari gazteek asteburu pasa ederra egingo dute herrian, Arrasate Musikalekoekin lotutako elkartrukeari esker. Kontzertua egingo dute bihar –Kulturaten, 12:30ean–, eta aukera baliatuko dute flyscha eta bestelakoak ikusteko

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate Musikaleko kideek besoak zabalik hartuko dituzte, gaur, Tarragonako Montblanc herriko Josep Porter i Rovira musika eskolatik etorriko diren musikari gazteak. Euren etxetako eta elkarte gastronomikotako atea zabalduko dizkiete, elkarrekin asteburu ahaztezin pasatzeko helburuarekin.

## 2012an loratutako hazia

Arrasatek eta Montblancek antzekotasun handiak zituztela ohartu ostean sortu zen bi musika eskola horien arteko harremana. "Aspaldi ezagutu nuen Montblancen lan egiten duen Josep Maria Manresa biolin-jolea. Eta gure herriei buruz hizketan hasi ginenean, ohartu ginen bai Montblancek eta bai Arrasatek dragoi batekin lotutako kondaira dutela, eta biak egon zirela harresi batekin inguratuta. Beraz, hori ikusirik, elkartruke bat egin behar genuela erabaki genuen, eta hala sortu zen gaur egunera arte iraun duen erlazioa", azaldu du Arrasate Musikaleko irakasle Arantzazu Idigorasek.

## Kontzertu berezia, bihar

Gaur iluntzean, autobusez helduko dira Arrasatera, eta bidaiari



Josep Porter i Rovira musika eskolako ikasleak. JOSEP PORTER I ROVIRA

nekagarriaren ostean indarrak hartzeko ongiatorri berezia egingo diete; txistulariekin eta dantzariarekin, eta Txalaparta elkarrekin egingo den luntxarekin. Zapatuan, kontzertuaren txanda izango da –12:30ean, Kulturateko klaustroan–. Oholtzara igotzen lehenak kataluniarrak izango dira; 40 musikari inguru arituko dira hiru taldetan banatuta; haize taldea, orkestra eta abesbatza. Kontzertuari amaiera emateko, Idigorasek zuzentzen dituen musika taldeetako partaide batzuek Montblanceko

musika eskolakoekin batera Mikel Laboaren *Txoria txori* abestia joko dute, moldaketa berezi bat eginda: "Txalaparta izango du, baxu elektrikoak ere bai, bihotzen taupada imitatze-ko, eta Yoli Perez de Arenazaren ahotsa. Hala ere, nahiko genuke kontzertuko ikusleen ahotsa ere lagun izatea".

Kontzertua jo ostean, bazkaria egingo dute Ziar-Ola elkartean, eta antolatzaileek biziki eskertu dute Ziar-Ola eta Txalaparta elkartekoengandik jaso duten laguntza.

## Giante gasteiztarrek, urtarrileko egitaraua agurtzeko

Gaztetxeko oholtzak egurra jaso du urtarrilean, Kooltur Ekintza taldekoek antolatutako egitaraua ez da-eta batere makala izan: zazpi kontzertu egun, eta emaldi gogoangarri asko.

Hala, hilabete mamitsu honi agur esateko, zazpigarren eta azken kontzertua falta da; Giante gasteiztarrek hilaren 31n egingo dutena, hain zuzen. Post

hardcore doinuak egiten dituzte, eta hamabi kantuz osatutako *This is fine* azken diskoa aurkeztera etorriko dira Arrasateko gaztetxera.

Baina urtarrilean gogor lan egin arren, otsailean gaztetxea zuzeneko musikaz betetzeko gogoz jarraitzen dute Koolturreko lagunek, eta ondorengo taldeen bisita iragarri dute: Aina Legardon –hirukote formatuan–, Every Night kataluniarrak, Voltaia zumaiarrak eta Unidad Alavesa lazkaotarrak.

## Smokers Die Young hirukotea, igandean, Irati tabernan

2014an Cadizen sortutako hirukotea da Smokers Die Young. Post-harcorea, rocka eta grungea dituzte oinarri, eta energiako eta kalitatezko zuzeneko eskaintzen dute. Diskoarekin baino gehiago, zuzenekoekin dira trebeak ikusleak bereganatzen, eta arrasatearrak poltsikoan sartzeko gogoz datoz. Hitzordua: domekan, 19:00etan, Iratin.



Baxu-jolea, egurra ematen. SDY

## Arrasaten egindako rap doinuek hartuko dute gaztetxea, bihar

Herriko rapzaleak aspalditik itxaroten ari diren ARAPsate jaialdia egingo dute bihar, gaztetxean. Bertan, Esencia TP eta Suprim' Records talde mondragotarrak etxeko zaleen aurrean arituko dira, eta adi, *Talycual*, *P. Carrala*, *DJ Etten* eta konpainia ikuskizuna emateko gogoz daude eta. Bi talde horien ostean, hiru DJk jarriko dute musika.

## Doke antzerki taldekoak, Bilboko Arriaga antzokira

Iruñetik pasa ostean, bihar, 19:30ean, *Hamaika amaren seme (alaba)* lana taularatuko dute, Eusko Jakintzaren mendeurreneko ospakizunen baitan.

Sarrerak Internet bidez eskeratu daitezke, eta hara joateko autobusa antolatu dute. Hain zuzen, Aramaiotik abiatuko da, 16:00etan, eta ostean, Arrasaten ere geratuko da.

## Zatoz gu ezagutzera

- Kuota ezberdinak, diru sarreren arabera.
- 18.000 € baino gutxiagoko irabaziekin, **DOAN**.
- Bigarren seme-alaba, **DOAN**

Arrasateko  
**Haurreskolak**  
Zure lasaitasuna gure helburua



MUSAKOLAKo Haurreskola  
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABEko Haurreskola  
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA  
REPUBLICA VALENCIANA  
GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTU DE EDUCAZIÓ



Sexu eta genero aniztasunaren bandera. FORUM LIBERTAS

## Kolore askotariko jendea batu gura duen saioa

Sexu eta genero aniztasunaren gaineko tailerra eskainiko du Berdindu zerbitzuak datorren martitzenean, kultura etxean, 18:00etan hasita; urtarrilaren 10ean, eskolako irakasleek jaso zuten formakuntza eta oraingoa familiei zuzendutako saioa izango da

### Eneko Azurmendi ARAMAIO

San Martin eskola hezkidetzaren proiektu batean murgilduta dago, eta, horren baitan, sexu eta genero aniztasunari buruzko bi formazio egitea erabaki zuen, Udalarekin eta Gorbeialdeko Kuadrillarekin elkarlanean.

Lehenik eta behin, eskolako irakasleak izan dira formakuntza jaso dutenak. Izan ere, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak kudeatuta, sexu eta genero aniztasunari buruzko formakuntza eskaini die Berdinduk, Eusko Jaurlaritzako sexu eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzuak.

Saioan, oinarritzako kontzeptuak eta esku-hartzea landu dituzte, homosexualitatearen, transexualitatearen, bisexualitatearen eta intersexualitatearen gainean. Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun teknikari Araitz Palaciosen azaldu duenez, "oso ondo" joan zen saio hura. Hala ere, pauso bat gehiago eman beharraz ohartu ziren, ikastetxetik herri-

ra zabaldu beharraz. "Ez genuen nahi formakuntza ikastetxean bakarrik geratzerik. Umeen eta gazteen sozializazioan ikastetxeak badauka erantzukizuna, baina baita herriak berak eta familiek ere. Beraz, lanketa osoa egin ahal izateko, beste formakuntza saio bat egingo dugu", adierazi du Palaciosen.

### Herritar guztientzako saioa

Bigarren saio hori urtarrilaren 29an, martitzena, egingo dute, kultura etxean. 18:00etan hasiko da, eta ordu eta erdi inguru iraungo du.

Bi zati izango ditu, teorikoa eta praktikoa. "Oinarritzako kontzeptuak landuko ditugu dinamika ezberdinen bitartez eta

**HERRITARREK EUREN ZALANTZAK ETA KEZKAK ARGITU AHAL IZANGO DITUZTE FORMAKUNTZAN**

bideo batzuk ikusiz. Bestalde, parte-hartzea ere landuko da, herritarrek dituzten kezka eta zalantza guztiak argitu ahal izateko eta egoera ezberdinei erantzuna emateko", azpimarratu du Berdintasun teknikariak.

Umeen eta gazteen sexu eta genero aniztasuna da formakuntza saioaren oinarria. Hori dela eta, herritar guztiei zuzenduta dagoela jakinarazi du Palaciosen. "Nagusiki, familiei zuzenduta dago, umeak edota gazteak dituzten gurasoei, baina edonor etor daiteke. Ateak zabalik izango dira herritar guztientzat".

### Informazio gehiagorako

Edozein zalantza edo kezka edukiz gero, harremanetan jartzeko dei egin dute. Batetik, Berdindu zerbitzuari dagokionez, 945 25 70 77 telefonora deitu edo *berdindu.araba@aldarte.org* helbidera idatzi. Gorbeialdeko Kuadrillako kontaktuak hauek dira: *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidea edo 945 43 01 67 telefona.



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

### Bi zerrenda

Behin baino gehiagotan adierazi izan dut zerrendekiko dudak debozioa. Ez dakit zeri buruz idatzi. Ideia bat hartu eta garatzeko gogorik ez dut aurkitu inon, gaur. Ukatuak izan zaizkigun plazer txikien zerrenda bat doa, *gratuitoki*, hemen.

Inguruko haurrek zortzi ontza txokolate jan bitartean zu golden sagarra ezin bukatuta zenbiltzan, nutrizioaren izenean -dietista bera ere jango zenuke parkean agertu izan balitz-; eta zenbait *desgraziatu* kalean iraintzea ekidin, indar guztiekin erreprimitu, zibismoaren izenean -dietista bera, barne-; kaferik ez edateko, gaueko loa sakona izan dadin; zergatik suposatzen dute lo egin nahi dudala? Gauez sortzearen plazera ere kendu didate, klaseko asistentziaren izenean; galtzerdiak jantzita txortan egitea, erotismoaren izenean; eta galtzerdiak erantzi dizkizun hori iraintzea ekidin, txortaldia ez etetearren; txokolatea jaten duzu ostean -zortzi ontza-, medikuak erretzeari uzteko gomendatu dizulako, osasunaren izenean.

Konturatu orduko, beste zerrenda baterako dokumentua zabaldu dut. Plazer-ukatzaille-*desgraziatuak*.

## Martxoaren 8ko aldarrikapenak "herrian" ardaztuko dituzte

"Herri txikietan kanpora joateko joera du jendeak; hori dela eta, aurten, hemen jarri gura ditugu indarrak", diote

### E.A. ARAMAIO

Hamabost emakume inguru elkartu ziren pasa den egubakoitzean, Martxoaren 8ari begira egin zuten lehen bileran. "Iturri Zuri elkarteko kideak eta Aramaio talde feministakoak izan gara, gehienbat, eta faltan sumatu ditugu bi talde horietatik kanpo dauden herritarrak. Hala ere, gustura gaude", azaldu dute.

Emakumeen Nazioarteko Egunerako deialdiaren planteamenduen gaineko hausnarketa egin zuten, "herrian nola planteatu jakiteko".

Greba egiteaz gain, egun osoko egitaraua prestatzen ere ari dira, baina oraindik ezin dute ezer aurreratu.

Garbi dutena da greba eguna herrian ospatuko dutela. "Herri txikia izanda, askotan, inguruko herrietara joatea da tendentzia, eta, horregatik, aurten indarrak Aramaion bertan zentratzea erabaki dugu, belaunaldi ezberdinetako emakumeak batuta, inpaktua eduki dezan".

Bigarren bilera otsailaren 8an egingo dute -egubakoitza-, 19:30ean, kultura etxean.

## "Jende gehiagoren beharra" dauka Korrika Batzordeak

Pasa den egubakoitzean egin zuten lehen bilera Aramaio Korrika Batzordeak, eta herriko hainbat eragiletako ordezkariak batu ziren: San Martin eskola, gurasoen elkarte, Txirritola euskara elkarte eta Aramaio Pelota Elkarte.

Hala ere, guztia antolatzeke, jende gehiagoren beharra dute la aldarrikatu dute.

Helburuak zehaztu zituzten, eta Korrikak Aramaion egingo duen ibilbidearen berri eman.

Oraingoz ezer garrantzitsurik erabaki ez duten arren, jakinarazi dute Korrika jaialdia egingo dutela apirilaren 13an, zapatua. Hala ere, "oraindik guztia zehaztu gabe" dago.

Esan moduan, datorren egubakoitzean egingo dute bigarren bilera, 18:30ean, udaletxean.

San Martin eskola, berriz, las-ter hasiko da Korrika Txikia antolatzen.

# Sasoiko eta umoretsu iritsi da mendeurrenera

Aste honetan, 100 urte bete ditu Edurne Etxebarriak, herriko emakume nagusienak; 1919ko urtarrilaren 21ean jaio zen, Sondikan, eta 1950ean etorri zen Untzillako Uxarte baserrira, ezkondu ostean; egun, Barajuen auzoko Artabe Bi baserrian bizi da

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Astelehenean, urtarrilaren 21ean, bete du mendeurrena Edurne Etxebarria Mendizabalek. Bizkaitarra izatez, hamalau anai-arrebatan bigarren zaharrena, Untzilla auzoko Uxarte baserrira etorri zen bizi izatera gizonarekin, 31 urte zituela. Gaur egun, berriz, Barajuen auzoko Artabe Bi baserrian bizi da, Zorione Larrañaga alabarekin eta Jose Luis Errasti haren gizonarekin.

100 urte ez dira edonoz betetzen. Hala ere, "beste edozein egun moduan" ospatu du urtarrilaren 21a. Sasoiko dago, eta umorez hartu du udal ordezkari-ekin bisita.

Urte hauetan guztietan gauzak "asko" aldatu direla aitortu du. "Ezin daiteke azaldu ere egin zenbat aldatu den. Txikiak ginenean, mahaian ez ginen guztiok sartzen. Lurrean arpillera bat botatzen genuen, ondo garbitutakoa, eta han jaten genuen. Hala ere, guztiok geneukan gure platera", adierazi du.

Horrez gain, beste anekdota batzuk kontatzeko ere baliatu du aukera. "Sondikako auzo batean jaio nintzen. Auzoan ez genuen eskolarik, eta ordubeteko bidea egin behar izaten genuen herriko eskolara joateko. Bidean, guardia zibilen kuartelaren ondok pasatzen ginen, eta haien haurrek ogitartekoak kentzen zizkiguten", adierazi du. Bestalde, umezain aritutakoa ere bada Etxebarria. "Zapatu eta domeketan, umezain joaten nintzen gaztetan. Lau ume zaintzen nituen egun osoz. Bazkaldu eta afaldu baserrian bertan egiten nuen, eta gauean etxera itzultzen nintzen".

## Bilobekin ospakizuna

Bost seme-alaba ditu Etxebarriak, baita hainbat biloba ere. Familia guztiak txokolate-jana bat egin zuen egun berezi hura ospatzeko, eta bilobek eraztun bat



Edurne Etxebarria, Jose Luis Errasti eta Zorione eta Miren Larrañaga alabak. R.M.



Cristina Etxenausia, Edurne Etxebarria eta Lierni Altuna. ROSA MONDRAGON

## Udal ordezkarien omenalditxo

100. urteurrenera iritsi dela eta, Aramaioko Udalak aitortza egin gura izan dio Edurne Etxebarriari, eta, lore-sorta bat ematez gain, bere argazki bat eta Manex Agirrek egindako bertso bat daukan plaka bat ere oparitu diote, gaur egun bizi den etxean.

oparitu zioten. "100 urtetako eraztuna", beraien hitzetan".

## Bertsoa

Manex Agirrek bertso bat egin dio, eta plaka batean txertatuta oparitu diote udal ordezkariak.

Honela dio: *Urtez urte, pausuz pausu/Denbora irabazi duzu/Denborak eutsi zaitu zu/Mende bat duzu zure mendean/Ehun urte bete dituzu/Maite zaitugun guztion partez/Ehun zorion eta ehun muxu.*

## Uraren ordainagiria pagatzeko epea otsailaren 18an irekiko da

Apirilaren 17a izango da azken eguna: zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura jarriko da martxan

## E.A. ARAMAIO

2018an sartu ziren indarrean tasa eta zerga berriak, euren artean ur hornidura, estolderia eta zabor biltza zerbitzuaren tasa. Hori kontuan izanda, 2018ko hirugarren hiruhilekoari dago-kion tasaren errolda eguneratu da, eta ordainagiriak ordaintzeko epea ireki. Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko otsailaren 18tik 2019ko apirilaren 17ra da, biak barne.

Batetik, helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza erakundeetan eta zerga-

pekoak agindutako kontu korronteak zordunduko dira otsailaren 25ean. Bestetik, helbideratu gabekoak, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditu Udalak, eta finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan egin beharko da ordainketa -Kutxabank eta Laboral Kutxa-. Epean zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura betearazlea abiatuko da eta dagozkion errekaruak, berandutze interesak, eta hala badagokio, kostuak, gehituko zaizkio hasierako zenbatekoari.

## Mus txapelketa jokatu dute bihar Alaiak Jubilatuen Elkarteak

Izen-ematea 20 euro da bikoteko, eta 16:30etik aurrera egongo da aukera horretarako; 17:00etan hasiko da

## E.A. ARAMAIO

Aurten ere mus txapelketa antolatu du Alaiak Jubilatuen Elkarteak, eta bihar, zapatua, jokatu dute, elkartean bertan.

Elkartean dagoen tableroan eman daiteke izena dagoeneko, eta, bestela, bihar bertan, 16:30etik aurrera, elkartean. 20 euro ordaindu beharko du bikote bakoitzak. Elkarteak antolatu arren, edonork eman deza-ke izena txapelketa horretan.

Sariei dagokienez, urteroko ohitura mantenduko dute, eta ohiko sariak banatuko dituzte:

bikote irabazlearentzat urdaiaz-piko bana; bigarren sailkatuentzat, kilo eta erdi inguruko bakailao bana; eta hirugarren sailkatuentzat, gazta eta ardo botila bana. Laugarren sailkatutako bikoteak xanpain botila bat eta ardo botila bat eramango dute etxera -kanporaketak antolatzeko eragatik, agian, ez da laugarren sailkatu egongo-.

Txapelketa amaitu ostean, afaria egingo dute elkartean: berakatz-zopa, bakailaoa eta gazta eta menbrilloa. 25 bat lagun elkartu ohi dira urtero.

## 'Jenisjoplin' liburua izango dute hizpide otsailaren 11n

Otsailaren 11n, astelehena, egingo dute Gorbeialdeko irakurle klub feministaren beste saio bat. 18:00etatik 20:00etara izango da, kultura etxeko bertso gelan. Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburuaren gainean hausnartuko dute saio horretan, eta parte-hartzaileei egun horretarako liburua irakurtzeko gomendatu die irakurle klub feministak.

## Aramaioko garai bateko bainuetxearen erreportajea ikusgai

Santa Ana iturburuko ur sufretsua aprobetxatuz, 1827an bainuetxe bat eraiki zuen Antonio Madinak. 1871n, handitzea erabaki zuen, eta ostaturaren hasieran itxi zuten bainuetxea. *Goiena* webgunean ikusgai dago erreportajea, baita gaur argitaratu den *Puntua* aldizkarian ere -42. eta 43. orriak-.



Pikarraituz taldeko kideak, joan den egubakoitzean egindako aurkezpen ekitaldian. IMANOL SORIANO

# Pikarraituz, herriko neska gazteen beharrei heltzeko gogotsu

Aretxabaletan erreferente izateko asmoz borrokarako gertu agertu dira 17 eta 25 urte arteko hainbat gazte; helburuen artean dituzte feminismoa defendatzea, emakumeen kontrako erasoei erantzutea eta neska gazteendako babesgune bat eraikitzea

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

"Erakundeek asetzen ez dituzten hainbat behar identifikatu" ondoren, herriko zenbait gaztek Pikarraituz Asanblada Feminista eratu dute. 17 eta 25 urteren bueltako gazteak dira, eta taldearen berri eman zuten joan den egubakoitzean, Herriko Plazan, egindako ekitaldian.

## Herriaren aurrean aurkeztu

Iaz martxoan egin zituzten lehenengo batzarrak, eta ordutik jardun dute lanean: "Martxoaren 8an hasi ginen gure borroka antolatzen. Gazteok zenbait behar identifikatu genituen gure herrian, eta horregatik antolatu ginen eta lanean hasi, *Gazteok eraikitzen* proiektua garatzeko asmoz", jakinarazi dute taldeko kideek. Behar bakoitzari erantzuteko lantalde ezberdinak eratu zituzten, eta haren emai-

tza izan da egubakoitzean aurkeztutako Pikarraituz Asanblada Feminista.

Jai giroko aurkezpen ekitaldia egin zuten, Idoia Asurmendi aramaioarrak girotuta, eta herritar guztiei irekia: "Herri mailan aurkeztea zen gure helburua; zeintzuk garen eta zein helburekin gabiltzan lanean argi uzteko aretxabaletarren aurrean", dio Ainhoa Sanchez kideak.

## Neska gazteen babesgune

"Feminismoaren beharra azpimarratzeko eta defendatzeko sortu gara, baita emakumeen

## "FEMINISMOA INDARTZEKO ETA GURE BEHARRAK ASETZEKO ELKARTU GARA"

LAURA IGARTUA

erasoei erantzuteko, horretarako tresnak sortzeko eta neska gazteendako babesgune bat eraikitzeko. Eta hori guztia, gugandik eta guretako eginda", argitu du Laura Igartua kideak, eta gaineratu: "Herriaren erreferente izan nahi dugu eta borroka egiteko prest gaude. Saretzeko beharra dagoela adierazteko sororitatea (ahizpatasuna) da gure armarik boteretsuena; ikusarazteko gaitasuna badugulako. Gainera, emakumeok, gizartearen zapalduak eta gutxietsiak izan garen heinean guretako leku bat gura eta behar dugu".

## "PROIEKTU MORDOA DITUGU, ETA ORAIN, MARTXOAREN 8AK DU LEHENTASUNA"

AINHOA SANCHEZ



Astelehenean egindako bileretako bat. MIRARI ALTUBE

## Atxabaltako M8 Plataforma sortzen

Martxoaren 8rako deitutako grebarekin bat egin du Euskal Herriko mugimendu feministak, eta Aretxabaletan ere sortu dute hori antolatzeko plataforma. Astelehenean egin zituzten lehenengo bilerak, eta asmoa da hamabostean behin elkartzeari; hurrengo otsailaren 4an izango da -14:30 eta 19:00, aukeran-, Arukepeko bigarren solairuan. "Herriko emakume guztiei dago zabalik plataforma, guztion artean hausnartu gura dugulako greba deialdia, eta ekitaldiak" antolatu, jakinarazi dute antolatzaileek, eta gaineratu: "2018ko Martxoaren 8a inflexio-puntua izan da mugimendu feministan. Aurten, aldiz, garrantzitsua izango da, mugari hori kasualitatea ez dela erakusteko eta ideiak finkatzen joateko, baita grebaren zentzua barneratzeko eta aldarrikapenak erdigunean jartzeko ere".

Aurtengo grebaren helburua da alor sozioekonomikoa eta, bereziki, zaintzen gatazka azaleratzea ekintzen bitartez. Hala, greba izango da zaintzan, enpleguan, ikasleen artean eta pentsiodunen artean, baita kontsumo greba ere. Hori zelan garatuko den ere zehaztuta dago: lantoki eta ikasgeletan greba eginda; egingo diren mobilizazioetan parte hartuta; zaintza-lanak egin barik eta hori erakusteko amantalak balkoietan zintzilikatuta; norberaren arloan greba antolatuta eta zabaldua; eta besoko morea eta paparrean txapa jarrita aldarrikapenarekin bat egiten dela adierazteko.

## Erdu feminista taldea

Pikarraituz ez da herriko talde feminista bakarra. Haren aurretik, 2015aren bueltan, Erdu sortu zuten. Ibilbide luzerik ez izan arren, feminismoaren bueltan urte askoan lanean jardundako kideek osatzen dute. Hala, beti parte hartu izan dute Martxoaren 8ko eta azaroaren 25ko agerraldietan eta beste hainbat ekintzatan; iazko ekainean Aretxabaletan ospatu zen LGBTBI egunaren antolatze lanetan, esaterako. Atxabaltako M8 Plataforman ere izango direla iragarri dute.

Orain aurkeztu arren, ez dira geldirik egon, eta egindakoen artean daude Andramaixetako eraso sexistaren aurkako protokoloa eta Gazte Egun Morea antolatzea. Egindakoak eginda, aurrera begira jarri dira. "Proiektu mordoa ditugu, herriaren beharrak asetzerantz bideratutakoak. Batzarrak egingo dugu laster, eta orduan zehaztuko dugu zer egin gura dugun eta zelan garatu", dio Sanchezek, eta gaineratu du: "Oraingoz, gure lehentasuna Martxoaren 8a antolatzea da". Egiten duten lan guztiaren berri sare sozialen bitartez zabalduko dute, eta horietan parte hartzea gonbidatu dituzte gainerakoak: "Gazte guztion esku dago ureztatzen jarraitzea, edozein esku da ongietorria. Bidea batera sortzen jarraitzeko, proiektuan parte hartzerantz gonbidatzen ditugu guztiak".

# Aratusteak prestatzeko lokala, erabiltzeko gertu

Industrialdean dagoen C pabiloia hautatu du Udalak mozorroak gertatzeko kokagune, eta giltza otsailaren 1etik aurrera hartu ahal izango da, Arkupen; Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak, oster, otsailaren 2an jarriko dituzte salgai

## Mirari Altube ARETXABALETAKO

Martxoaren 3an ospatuko diren Aratusteak antolatzen hasita dago Karnabalen Batzordea, eta, herriko kuadrillak ere gertatze lanetan has daitezzen, mozorroak prestatzeko lokala zehaztu dute; iaz lez, industrialdean dagoen C pabiloia izango da.

## Lokalaren erabilera arauak

Lokalera sartzeko giltza Arkupen kultura etxeko harreraren eskatu ahal izango da otsailaren 1etik aurrera, 20 euroko fidantza ordainduta -giltza bueltatzean itzultzeko-. Erabiltzaileek hainbat konpromiso hartu beharko dituzte orduan. Hona hemen

garrantzitsuenetako batzuk: talde bakoitzak arduradun bat izango du, konpromiso dokumentua sinatuko du horrek, eta berea izango da taldekideek egiten dutenaren erantzukizuna; giltza arduradunari emango diote, eta debekatuta dago kopiak ateratzea; adin txikikoen kasuan, ardura heldu batek izango du eta horrek sinatuko du konpromiso dokumentua; gainera, lokalean bertan egon beharko du gaztetxoekin. Talde bakoitzak bere tresnak eta materiala eramango ditu, eta lan jarduna bukatzean garbi eta txukun utzi beharko du guztia; eta gauez ezingo da erabili lokala.

## Herri bazkarirako txartelak

Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak otsailaren 2an, zapatua, jarriko dituzte salgai, Arkupen, 09:00etan; kiroldegian izango da bazkari hori eta 640 lagunendako lekua dago.

Aurreko urteetan lez, kuadrillak eman beharko da izena, eta bi menu egongo dira: helduena 17 eurotan eta umeena 13 eurotan. 12 urtetik gorakoek jateko izango dute patatak errioxar erara, saiheski errea eta txokolatzeko browniea izozkia-ekin. Eta umeek makarroiak tomatearekin, txahal-hanburgesa patatekin eta txokolatzeko pastelxoak.

## Operari lekua egingo diote Arkupen otsailaren 2an

Giuseppe Verdiren *La Traviata* opera izango da Arkupeneko Zarama aretoan, otsailaren 2an (19:00); Sidneyko opera jauregian grabatutako ikus-entzunezkoa eskainiko dute, hain zuzen. Sarrerak urtarrilaren 31n, eguenean, jarriko dituzte salgai, Arkupen bertan (5 euro). Alexandre Dumasen *La dame aux camélias* nobelan oinarritutako lana da, eta opera erromantikoen artean ezagunenetakoa. 130 minutu irauten du, hiru ataletan banatuta.

Jose Migel Uribarren Kultura zinegotzia pozik agertu da azken urtean film emanaldiek eta antzezlanek izandako harrerarekin: "Zinemari dagokionez, umeentzat 23 film eskaini dira, eta 2.427 ikusle gerturatu. Helduentzat, berriz, 25 film izan dira eta 5.042 ikusle etorri dira. Zineklubak jende gutxiago ekarri du; hamahiru filmetan 218 pertsona izan dira". Horrez gain, jakinarazi du antzerki emanaldietan ere Arkupen bete egin dela behin baino gehiagotan.

## Zortzi bikote nor baino nor gehiago frontenis txapelketan

Bikote mistoen arteko frontenis txapelketa jokatu dute aste bukaeran, Iturrigorri pilotalekuan. UDAK antolatu du, beste behin, eta zortzi bikotek eman dute izena; horietako bost, aretxabaletarrak.

Bi taldetan banatuta, ligaxka erara jokatu dute txapelketaren lehen fasea; partidu horiek bihar, zapatua, izango dira, 09:00etan hasi eta 14:00ak bitartean. Domekan, oster, talde bakoitzeko lehenengo bi sailkatuek elkarren aurka jokatu dute, 10:00etan hasita. Ondoren, hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partidua izango da, eta, bukatzeko, finala (11:30). Hona hemen bikoteak: A taldean: Agurtzane Elkoro eta Joserra Gordo; Lur Delgado eta Iñigo Seguro; Lierri Zangitu eta Luis Fernandez; eta Amaia Garcia eta Jon Urdineta. B taldean: Ibone Arrieta eta Kepa Gruceta; Dorleta Elkorobarrutia eta Iraitz Diaz; Oihana Agirre eta Josu Retolaza; eta Lore Martinez eta Jon Diaz.



**Pausoka**  
haur eskola

**0-3**  
urte

943 77 03 77  
pausoka.he@gmail.com  
www.pausoka.eu

Belorrieta 8  
20550 Aretxabaleta

## Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**  
Bulego ordutegia: **09:00-14:00 / 16:00-18:00**

zeuria  
zeuena  
geuria





Artemaneko, Mugiment egitasmoko, Arizmendiko, Aldundiko, MUko eta Aretxabaleto Udaleko ordezkariak aurkezpenean. ARTEMAN

# Jarduera fisikoa Euspot-en erdigunean

Zortzigarrenez antolatu dute euskarazko spot lehiaketa eta aurtengo leloa izango da: 'Jarduera fisikoaren onurak. Mugitu eta bizi!'; lanak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da eta 2.550 euro banatuko dituzte saritan

## Mirari Altube ARETXABALETA

Euskarazko spoten sorkuntza bultzatzea helburu duen Euspot lehiaketaren zortzigarren edizioa abian da. Jarduera fisikoaren onuretan jarri dute fokua aurrean, eta hori aurkezteko elkartu ziren eguaztenean, Donostian, lehiaketaren sustatzaileak.

"Gazteen artean gero eta presentzia handiagoa dute ikusentzunezko edukiek eta ezinbestekoa da esparru horretan ere euskarazko sorkuntza bultzatzea", adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari Garbiñe Mendizabalek. Aretxabaleto Udaleko lehiaketaren alde egindako apustuaren zergatia azaldu zuen Euskara Saileko teknikari Ane Lore Estalak: "Euskarazko sorkuntza bultzatu behar dela argi dugu eta euskarazko sortzaileak sustatu, lagundu eta baliatu. Hemen ere badugu freskotetasuna eta aberastasuna, eta Udalak horren aldeko apustua egin du hasieratik".

## Onurak nabarmentzea

*Jarduera fisikoaren onurak. Mugitu eta bizi!* du leloa aurtengoak, eta spotak nabarmendu beharko ditu hain zuzen jarduera horrek eskaintzen dituen onura fisikoak, psikologikoak eta sozialak. "Izan daiteke ariketa fisiko programatua -futbola, saskibaloia...- edo gorputza mugiarazten duten jarduerak. Gizarte aktiboago bat sustatzea da helburua", zioten antolatzaileek. Mugiment egitasmoko Iker Etxeberriak gaiaren garrantzia nabarmendu zuen: "Jarduera fisikorik eza hiltzeko arrisku faktoreen artean laugarren postuan du jarrita Osasunaren Mundu Erakundeak, eta sentsibilizazio lana oso garrantzitsua da".

## JARDUERA FISIKOAK ONURA FISIKOAK, PSIKOLOGIKOAK ETA SOZIALAK DITUELA NABARMENDU DUTE

## 2.550 euro saritan

Mondragon Unibertsitateko Goio Aranak lanei zer eskatuko dieten argitu zien: "Sormena eta esperientzia erakargarria planteatzea da kontua, gaiarekin eta mezua-rekin ondo ezkondu den spot sortzea". Eta Arizmendi Ikastolako Gari Ibarzabalek gaztetxoek ikus-entzunezkoetarako duten joera aipatu zuen: "Oso erakargarria den mundua da eta egun baliabide asko dituzte eskura; hortaz, ikasleekin lantzeko oso aproposa da".

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 15a izango da. 2.550 euro banatuko dituzte saritan, bost kategoriatan banatuta: spotik onena (1.000 euro); Mondragon Unibertsitateko ikasleen spotik onena (500 euro); publikoaren saria (500 euro); musika sinkronizazio onenaren saria (300 euro); eta BHKlip saria 14 eta 18 urte artean dute-nendako (250 euro). Sari horiek maiatzaren 30ean banatuko dituzte, Arkupen.



JULEN ABASOLO

## San Bizente eguna ospatzen

Areantza auzoko San Bizente ermitan hainbat auzotar elkartu ziren joan den martitzenean, urtarrilaren 22an, santuaren egunean. Meza izan zuten, lehenengo, ermitan bertan, eta gero, argazkia atera zuten. Sasoi bateko ospakizunik ez egin arren, egun narasari aurpegi ona jarri eta kontu kontari jarduteko aprobetxatu zuten.

## Maskara ikastaroa egingo du Gu Haziak Gara-k otsailaren 8an

Aratusteak gero eta gertuago daudela jakinik, Gu Haziak Gara elkarteak maskarak egiten ikasteko saioa antolatu du. Otsailaren 8an, egubakoitza, izango da (17:00-19:30), Iralabarri plazan duten egoitzan, eta gidari lanean jardungo dute Helena Azkarragaurizar eta Joana Manzisidor artista arrasatearrek.

Atzera utzitako materiala bererrerabilita diseinatuko dituzte maskara horiek, eta gero, josi. Saioaren prezioa 15 euro da -materiala barruan-. Izena emateko -12 urtetik beherakoak nagusi batekin- eta argibide gehiagorako bideak hona hemen: 688 62 37 18 eta [guhaziakgara@gmail.com](mailto:guhaziakgara@gmail.com).

## Korrika Batzordea elkartuko da eguaztenean

Apirilaren 14an, 04:30 bueltan iritsiko da 21. Korrika Aretxabaletera. Hori girotzen hasteko eta nondik norakoak antolatze-ko, bilera egingo du Korrika Batzordeak eguaztenean, urtarrilaren 30ean, udaletxe zaharrean (18:30).

Lehenengo bileran, ikastetxe-tako ordezkariak, kirol elkarte-koak eta Udalekoak elkartu ziren herriko beste hainbat eragile-rekin batera, eta ateak zabalik dituzte edonorendako. Datozen bileretan zehaztuko dituzte otsailan hasi eta apirilaren 14a bitartean zein ekitaldi antolatu, zelan zabaldu informazioa eta materiala noiz jarri salgai, besteak beste.

## OHARRAK

### Muru Alde elkartearen batzarra

Muru Alde elkarteak kideek urteko batzar orokorra egingo dute urtarrilaren 26an, zapatua; lehenengo deialdia 15:00etan da eta bigarrena 15:30ean.

### Jazz musikarien gaineko erakusketa

Francisco Javier de la Torre (Basauri, 1960) artistak egindako mosaikoak daude ikusgai Arkupen, urtarrilaren 31 arte. Jazz musikari ezagunak irudikatu ditu.

### Odol ematea otsailean

Odola emateko dei egin du Arabako odol emaleen elkarteak; otsailaren 4an, 11n eta 18an etorriko da autobusa (16:45-20:00).

# Eskoriatza Lagunkoiaren diagnosia, jendaurrean

Eskoriatzako erretiratu talde batek sortutako taldea da Eskoriatza Lagunkoia, eta, bi urte eta erdian, herrian sumatu dituzten beharren inguruko diagnosia osatu dute. Horien berri emateko, aurkezpena egin zuten astelehenean, Zaldibar antzokian

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Astelehenean aurkeztu zuten Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideek bi urte eta erdiko lanaren diagnosi txostena herritarren aurrean. Taldea osatzen duten erretiratuen etxeko hamazortzi kide izan ziren Zaldibarko ohol-tza gainean, eta, Jose Mari Kortazar ordezkariak programaren nondik norakoak azaldu ostean, herritarrei galderak eta ekarpenak egiteko tartea utzi zuen.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu eta Matia Fundazioak abiarazitako ekimena da Euskadi Lagunkoia, eta haren helburua da adinekoek eta, oro har, herritarrek Euskadiko udalerririk hobetzen parte har dezatela bultzatzea, zahartu ahala nork bere bizimodua izaten jarraitu ahal izateko. Hori horrela, aurkezpenari hasiera emateko, Matia Fundazioko Ainara Tomasena terapia okupazionalan diplomadunak egitasmoaren azalpen orokorrak eman zituen, eta,

ondoren, Jose Mari Kortazar Eskoriatza Lagunkoia taldeko ordezkariak hartu zuen hitza, diagnosian batutakoak eta hori garatzeko egindako lan-prozesuaren gainekoak adierazteko.

Aurkezpenean, hainbat herritar, udal ordezkari eta bailarako beste herri batzuetako Lagunkoia taldeko ordezkariak batu ziren, eta, lehenbizi, egitasmoa zer den adierazi zuen Kortazarrek: "Eskoriatza Lagunkoia erretiratuon talde bat da, eta proiektu bat lantzen ibili gara, Osasunaren Mundu Erakundetik (OME) datorrena. Zortzi puntutan banatu ditugu herriko beharrak. Hirigintza, osasun zerbitzuak, garrarioa eta halakoak aztertu ditugu, eta, Udalari diagnosia bi-

**BI URTE ETA ERDIZ, HAMABOST EGUNEAN BEHIN BATU DIRA TALDEKOAK HERRIKO GAIK AZTERTZEKO**

dali ostean, lehenengo erantzunak batuta, herritarrei adierazi nahi izan diegu gure proiektua zer den".

**Ikerketa sakona**

Hamabost egunean behin batu dira Eskoriatza Lagunkoia taldekoak, kultura etxean, bi urte eta erdian, eta 74 orriz osatuta dagoen diagnosia *Euskadilagunkoia.net* webgunean dago ikusgai. Batez ere, azken lau orriei garrantzia emateko esan zien Kortazarrek. Izan ere, bertan daude taldearen eskaerak eta Udalaren lehen erantzunak.

**Gai esanguratsuenak**

Horrekin batera, herrian egindako inkestak ere sartu dituzte lanean. "Agertu diren gai batzuk beste herri batzuetako Lagunkoi taldeetan ere agertu dira, hainbatetan izan ditugu hizpide: uren egoera, txakurren ordenantza, garbitasuna, inklusio sozialeko gaiak... askotan errepikatzen dira, esaterako".



Lete auzorako bideko lanak aste honetan hasi dituzte. I.B

## Leteko bideko lanak izan dituzte hizpide galde-eskeen tartean

Urteko lehen ohiko osoko bilkuran Aitor Zubizarreta EH Bilduko ordezkariak Leteko lanen inguruan galdetu zuen

**I.B** ESKORIATZA

Martitzenean izan zen urteko lehenengo ohiko osoko bilkura, eta, gai zerrendako puntuez gain, galde-eskeen tartean, Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozemaileak Leterako bidean izandako lur-jausiaren lanen bueltan galdetu zuen.

Bertan makineria ikusi duela adierazi zuen Zubizarretak, eta lanak dagoeneko hasi ote diren galdetu zuen. Horren harira, Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak baiezkota erantzun zion, nahiz eta aurreikusitako baino berandu-

go hasi dituzten lanak. Hori horrela, Morga SL enpresak egingo ditu, eta aurrekontua 105.000 eurokoa da. Letera bideko errepidea birjartzea eta GI-627 errepide azpiko oinezkoentzako pasabidea egokitzea izango da lanaren funtsa. Hain zuzen ere, lanek bi hilabete iraungo dute.

**Argiteria jartzeko aprobetxatu**

Obra egingo dutela aprobetxatuz, Sorautz eta Elorreta arteko bigurutzeko horretan eta kanpanturako bidean argiteria jarriko dute.

## Mus txapelketako kanporaketa Inkernun jokatu da, domekan

16:00etan hasiko dira partiduak, eta izen-ematea egunean bertan egin beharko dute parte-hartzaileek

**I.B** ESKORIATZA

Urtero moduan, Euskal Herriko mus txapelketa jokatu da, eta dagoeneko hasi dira herrietan kanporaketak egiten; Eskoriatzan, domeka honetan izango da Euskal Herriko XI. mus txapelketaren barruko herriko kanporaketa, Inkernu tabernan.

Partiduak 16:00etan hasiko dira eta izen-ematea Inkernun bertan egin beharko da, 16:00 aurretik –bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira–. Kanporaketa garaile irteten den bikoteko ordezkariak du Esko-

riatza, Gipuzkoa mailan egingo den hurrengo kanporaketa. Hala, Eskoriatzan domekan irabazle suertatzen den bikoteko, hori gaitzen badu, otsailaren 23an zazpi herrialdeetako finala izango du.

Final Nazionala, berriz, Nafarroan izango da, Lizarran, martxoaren 16an, eta sari bikainak izango dira. Horien gaineko informazioa nahi duenak *Ehmus.eus* webgunean ikus dezake: herriz herriko emaitzak eta irabazleek jasoko dituzten sariak, besteak beste.



Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideak, diagnosiaren aurkezpena egiten, Zaldibar antzokian. IMANOL BELOKI



Pasa den astean, Dorleta eta Huhezi unibertsitate arteko zubibidean espaloia egiten hasi zireneko unea. IMANOL BELOKI

# Dorleta eta Huhezi arteko zubibideko lanak, abian

Bi fasetan egingo dira lanak: batetik, espaloia jartzen aritu dira egunotan, Dorletako zubitik Aranburuzabala kaleraino. Bestetik, bigarren fasea egiteko, Ura agentziakoen baimena ezinbestekoa izango da Dorletako zubiari hegoa jartzeko

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Pasa den martitzenean hasi zizuten Huhezi Unibertsitatea eta Dorleta auzoa lotzen dituen bideko lanak. Eredu horretan, irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte, eta bi fase izango dituzte.

Lehenengo fasean, Aranburuzabala kalea eta Dorletako zubia konektatzea izango da asmoa. Lan horiek egiten hasi dira dagoeneko, eta, horretarako, espaloia egiten izan dira astean. 2018ko aurrekontuetan jasotako lanak dira, eta, esleipena atzeratu egin bada ere, lanak hasita daude, eta laster amaituko dituztela aurreikusten da.

Bigarren fasean, berriz, hegal bat jarri nahi da Dorleta eta Huhezi unibertsitate arteko zubian. Hala ere, aztertzen ari dira oraindik, eta Ura uraren euskal agentziaren baimena ere ezinbestekoa izango da lanak egiteko. "Bigarren faseko asmoa zubi txiki bat jartzea da erreka pasatzeko, lehen fasean egin den

espaloiarri jarraipena emanez. Izan ere, oinezkoek errepidetik joan behar dute zubiko zatian, eta irisgarritasun aldetik beharrezkoa da hori egitea. Otsailarako edo martxorako ekarriko dugu proiektua Hirigintza eta Mugikortasun batzordera, baina, lanak hasita, lehenbailehen amaitzea da asmoa". Lan horiek exekutatzeko, 26.428,58 euroko aurrekontua ezarri da, eta Ojea enpresa ari da egiten.

**'Eskoriatza slow city'**

*Eskoriatza slow city* izeneko irisgarritasun eta mugikortasun planaren barruan, dagoen lanetako bat da Dorleta eta Huhezi unibertsitatearen artean egingo dutena, 2017ko abenduan Hiri-

**IRISGARRITASUNA  
HOBETZEKO LEHEN  
FASEA AMAITZEAR,  
BIGARRENA LASTER  
HASIKO DUTE**

gintza batzordean aurkeztu zena. Bertan, lan horrekin batera, 52 ekintza batzen dira, eta horietatik 33 gauzatuta daude. Esaterako, Santa Ana, Arbiñoste eta Dorletako espaloiak, Kuartuenara bideko bidegorria... besteak beste.

**Hurrengo lanak, Santa Marinar**

Santa Ana eta Santa Marina artean, hiru fasetan banatutako lanak egingo dituzte. "Lehen faseko aparkalekuak eginda, bigarren faseari ekingo diogu; hau da, Santa Marinar parkea egitea. Lan horietarako, 24.000 euro inguruko aurrekontua daukagu, proiektuan, oraindik adjudikatu barik dagoena. Hirugarren fasean, aldiz, Jose Arana etxean atzetik oinezkoentzako pasoa egitea izango da, eta, 80.964,89 euroko aurrekontuarekin, Morga enpresak egingo ditu. Lur jabeek ordainduko dituzte horiek, betiko urbanizazioa izango delako", adierazi du Josu Ezkurdiak.



Lehen bileraren ostean ateratako talde argazkia. ESKORIATZAKO KORRIKA BATZORDEA

## Eskoriatzako Korrika Batzordeak lanari ekin dio

Aste honetan lehen bilera eginda, bigarrena otsailaren 6an izango da, 18:00etan, kultura etxean

**I.B** ESKORIATZA

Apirilean hasiko da 21. Korrika, eta Eskoriatzan ekimen hori bultzatu eta antolatzeke ardura izango duen batzordea sortzeko asmoz batzartu ziren eguaztenean herriko elkarte eta eragile ezberdinetako ordezkariak eta egitasmoaren parte izan nahi duten norbanakoak.

Arizmendiko Jose Arana gu-neko irakasle eta gurasoak, Almen gu-nekoak, gaztelekuko ordezkaria, EH Bildukoak, Atxorrotx Kultura Elkartekoak, Ederlanekoak, Talogileak, Bazarako kideak, udal ordezkariak eta Mari Karmen Arrieta Euskara teknikaria izan ziren bileran.

**Ordu txikitik Eskoriatzatik**

Apirilaren 14an, domekan, 05:19 bueltan pasako da Korrika Eskoriatzatik, eta batzarraren asmo nagusia izan zen egunerako egitaraua prestatzen hastea eta

Korrikaren nondik norakoak azaltzea.

**Lan banaketa eta antolaketa**

Korrikak zabaldu nahi duen mezuaren gainean omendua izango den Txilardegiren bueltan eta Korrika laguntzailea egiteko jarraibideak zeintzuk diren azaldu eta azalpenak eman ziren. Horrez gain, ikastetxeek antolatuko duten Korrika Txikia ere izan zuten hizpide, eta, Korrika egunerako egitarauari dagokionez, hurrengo batzorderako eramango dituzte iritzi eta proposamenak.

**Bigarren bilerarako deialdia**

Korrika Batzordearen bigarren bilera otsailaren 6an, eguaztenean, izango da, 18:00etan, kultura etxean. Horrekin batera, otsailaren 28an, Urdelardero eguna dela aprobetxatuz, arropa salmenta egingo dute, plazan.

**Otsailean, haur masaje ikastaroa izango da Luis Ezeiza eskolan**

Haur jaioberrientzat masaje ikastaroa antolatu du, urtero moduan, Luis Ezeiza Herri Eskolak. Sei hilabete arteko umeak dituzten familiei zuzenduta dago eta otsailaren 4an hasiko dituzte saioak.

Hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia bilatzeko helburuarekin antolatuta, astelehen eta eguaztenean izango dira

saioak, honako egun hauetan: otsailaren 4an, 6an, 11n eta 13an, 17:30ean, Luis Ezeiza Herri Eskolan bertan, Haur Hezkuntzako eraikinean.

Haurraren adina, berriz, hilabete eta sei hilabetera artekoa izatea gomendatu dute antolatuzaileek, eta bertara doazenei, jantzi eroso eta toalla bat eramateko eskaera egin diete. Hala, izena eman edo informazioa nahi duenak eskolara deitu beharko du, 943 71 49 38 telefono zenbakira.



# "Oso garestia izan da 292 eguneko zigorra"

**MIKEL ALKAIDE** ARETO FUTBOLEKO ENTRENATZAILEA

Denbora luzez zigortuta izan da ohorezko gazteen entrenatzailea, eta, aste honetako atsedendialdiaren ostean, hurrengo astean bueltatuko da taldea kantxan zuzentzera

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Mikel Alkaide Eskoriatzako areto futboleko ohorezko gazteen entrenatzailea da, eta, 292 eguneko zigortuta egon ostean, berriz izango da bueltan taldea zuzentzen. Hori, asteburu honetako atsedendialdiaren ostean, hurrengo jardunaldian izango da, Marrock taldearen aurkako partiduan, hain zuzen ere.

**Zer egin zenuen hainbeste denbora zigortuta egoteko?**

Pasa den denboraldian, Gora Bilbo taldearen aurkako partiduan kaleratua izan nintzen, 2018ko apirilaren 14an, eta horren arrazoia epailearen aurrean kekatzea izan zen, beste barik. Nazional mailan ari garenez, normalean, kanporatua den edonor bi partidutarako zigortzen dute; nire kasuan, berriz, hiru partidutarako zigorra izan zen. Kaleratua izan eta gero, lotsagarria dela esan nion epaileari, eta beste partidu bat ere gehitu zidaten. Beraz, hasiera batean, hiru jardunalditarako bakarrik zigortu ninduten.

**Hala ere, zigor gogorragoa jarri zizuten hurrengo partiduan, ezta?**

Hala da. Gora Bilbo taldearen osteko partidua Osasunaren aurka izan genuen, eta partidu beroa eta tentsioz bete izan zen. Partidu hasieratik, gure



Mikel Alkaide. OMAR

taldearen aulkia atzean jarri nintzen animoak gertutik emateko asmoz. Berez, ezin ditut aginduak eman zuzenean, eta bigarren entrenatzaileari adierazten nizkion aginduak, jokalariei transmititzeko. Momentu batean, mahaiko epaileak atentzioa eman zidan, baina beste barik. Hala, partidua amaitu zenean geratu nintzen harrিতa; izan ere, aktan zigor gogor moduan hartu zuten. Atentzioa eman zidaten arren, aginduak ematen jarraitu nuela adierazten zuten aktak, baina ez zen hala

izan. Hori horrela, zigor gogorrek garesti ordaintzen dira. Izan ere, 12-20 partidu arteko zigorrak izaten dira, eta niri hamahiru partidutarako zigortu ninduten. **Ligako partidua zen, baina beste txapelketa batzuetan ere eragiten du zigor horrek, ezta?**

Halaxe da. Guztira, hemeretzi partidutako zigorra izan dut. Lehenengo partiduan, Gora Bilbo taldearen aurkakoan, hiru partidutako zigorra izan nuen, eta gero, Osasunaren aurkakoan, beste hamahiru partidutakoa, baina, zigor gogorra denez, Euskal Kopako hiru partidutan ere eragin dit horrek, eta ez dut horietan zuzentzen egoteko baimenik izan.

**Zigorra pasata, noiz bueltatuko zara taldea kantxan zuzentzera?**

Asteburu honetan ez dago liga partidutik, atsedendia dugu; izan ere, 19 urte azpiko selekzioen txapelketa jokatu da. Bertan, gure taldeko Jokin Rayok eta Oier Azkunagak hartuko dute parte, eta, alde horretatik, oso pozik nago. Ni, berriz, hurrengo astean hasiko naiz, otsaileko lehenengo asteburuan jokatu dugun jardunaldian. Kanpoan jokatu dugu, Marrock taldearen aurka, Torrelavega ondoan; ea dena ondo doan eta ez naizen kaleratua izaten.



Dokumentaleko fotograma bat. BIPOLAR CREACION AUDIOVISUAL

## Nafarroari buruzko zikloari hasiera emateko, dokumentala

'Atxorrotzeko gaztelua' dokumentala izango da datorren astelehenean, 19:00etan, Herri Liburutegian

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Nafarroari buruzko zikloa antolatu dute Leintz Gatzagan, eta, egitasmoari hasiera emateko, urtarrilaren 28an, astelehenean, *Atxorrotzeko gaztelua*. *Denboraren talaiatik* dokumentala proiektatuko dute, Herri Liburutegian, 19:00etan.

Nabarralde fundazioak eta Hernani Errotzen elkarteak Atxorrotzeko eremua abiapuntutzat hartuz erabakigarria izan zen pasarte historiko bat berreskuratzeko asmoz egindako dokumentala da *Atxorrotzeko gaztelua*. *Denboraren talaiatik*. Hori horrela, Atxorrotzeko gazteluaren ingurua leku estrategikoa zela eta Nafarroako erresumaren baitan zuen garrantzia azpimarratu dute lan horretan. Dokumentalaren helburua da 1200eko gaztelarren konkistaren aurreko Gipuzkoaren eraketa kaleratzea.

Horretarako, Jose Luis Orella –Erdi Aroko Historian katedraduna–, Iñaki Sagredo –historialari eta arkeologoa eta Atxorrotzeko indusketak koordinatzen aritu dena– eta Beñi Agirre –historialaria– elkarriketatu dituzte, besteak beste.

Ikus-entzunezkoa proiektatzeaz batera, lanaren egile eta protagonistetako bat, Beñi Agirre historialaria, bertan izango da, bertaratzen diren galderak erantzuteko eta lanaren nondik-norakoak azaltzeko.

**Zikloaren bigarren saioa**

Nafarroari buruzko zikloari jarraipena emateko, otsailaren 11rako beste saio bat antolatu dute. 19:00etan, Martin Ttipia elkarteak hitzaldia emango dute Herri Liburutegian, *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela-eta, Erdi Aroko kontu bat 2019an?* izenburupean.

## Iaz jaiotako haur adina zuhaitz landatuko dituzte zapatuan

Aurten, Santa Marina eta Arbiñoste artean landatuko dituzte zuhaitzak: lizarrak eta haltzak, hain zuzen ere

**I.B** ESKORIATZA

2018an, 22 jaiotza izan ziren Eskoriatzan, eta, haien gurasoek, familiekin lagunduta, aitzurrak hartu eta zuhaitzak landatuko dituzte, urteroko ohiturari jarraituz.

2017an, hainbat zuhaitz landatu zituzten Arbiñoste eta Santa Marina artean dagoen berdegunean, baina, ihartu egin direnez, berriz landatuko dituzte eremu horretan. Honela adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi

museoko langileak: "Lizarrak eta haltzak landatuko ditugu, Arbiñosten, erreka alboko berdegunean. 22 jaiotza izan dira 2018an, eta horien gurasoei gutuna bidali diegu ekimenean parte hartzeko gonbidatuz".

Hori horrela, bihar, zapatua, 11:00etan batuko dira Ibarraundi museoan, eta, bertako langileek hainbat argibide eman ostean, landaketa egingo duten eremura joango dira. Amaitzean, talde argazkia aterako dute baten diren guztiek.

## Ortu publikoak eskatzeko aukera zabalik dago

Gatzagako Udalak bere jabetzako den lursail bat herritarrei uzteko erabakia hartu du, bertan ortu publikoak jartzeko asmoz.

Hiri espazioak erabilera publikorako berreskuratzea eta udalerriko paisaiara aniztasuna ekartzea eta ortuen izaera hezitzailea eta ludikoa sustatzea da egitasmoaren helburua. Hala, dagoeneko hainbat eskaera jaso

dituzte. "Lursail horretan ez dugu urarekin arazorik, eta dagoeneko sei eskaera jaso ditugu. Lurrak, berriz, eskaeren arabera banatuko ditugu...", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako alkateak.

Otsailean martxan jarri nahi dute egitasmoa, eta, oraingo eskaeren arabera, eskatzaile bakoitzak 60 eta 100 metro karratu inguruko lursaila izango duela jakinarazi du Udalak. Hala ere, oraindik, eskaerak egiteko epea zabalik dago.

# Garagunea eta eguneko zentroa, udaberriarekin

Adimen urritasuna duten helduei zuzendutako hamabost plazako gunea eta hirugarren adinekoei begirako eguneko zentro berri bat irekiko dituzte martxoan eta maiatzean, hurrenez hurren; Diputazioko eta Goyeneche Fundazioko ordezkariak bisitan izan dira

## Jokin Bereziartua BERGARA

Martxorako gertu egongo da hamabost lagunendako lekua izango duen Goyeneche Fundazioaren Garagune berria, Mintegi kaleko 5. zenbakian –Diputazioarena da lokala, lehen Ogasuneko bulego batzuk zeuden lekuan–. Bestalde, maiatzean zabalduko dute eguneko zentro berria; gaur egun Boni Laskurain kalean dagoena Ernai kaleko eraikin berrietara lekualdatuko dute.

## Helduendako arreta okupazionala

Goyeneche Fundazioa 1950ean Donostian sortutako erakunde pribatu eta irabazi asmorik gabekoa da, eta bere helburua da arreta okupazionalaren birtartez adimen urritasuna duten pertsona helduei eguneko arreta zerbitzua eskaintzea.

Hain justu, Bergarako zentro berrirako egokitzapen lanetara egindako bisitan, fundazioko presidente Juan Ribera azaldu zuen izenaren jatorria: "Gaitasunak garatzeko guneak dira. Diputazioari eskerrik beroenak eman behar dizkiogu, lokala uzteaz gain, barruan egin diren lan guztiak ordaindu izanagatik".

## Diputazioak, 350.000 euro

Izan ere, Diputazioak 350.000 euroko inbertsioa egin du Garagune berria zabaltzeko; hala, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok nabarmendu zuen Gipuzkoa aitzindari dela esparru horretan –Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñarekin batera etorri zen bisitan, eguazten goizean–: "Atzegik, Gureak-ek eta beste erakunde batzuek frogatu dutenez, lana da gizarteratzeko estrategia egokiena. Hala ere, batzuek ez dute ahalmen hori eta baliabide honen bidez ondo zainduta eta artatuta daude. Beraz, guretzat, funtsezko tresna bat da honako hau desgaitasun intelektuala duten pertsonen eske-



Diputazioko, Goyeneche Fundazioko eta Udaleko ordezkariak, Garagunean. E. MONCAYOLA

## EGUNEKO ZENTRO BERRIRAKO LANEK BI URTE IRAUN DUTE ETA ORAINGOAK BAINO 13 PLAZA GEHIAGO DITU

ma osatu bat izateko gure lurraldean".

Horrekin batera, Olanok azpimarratu zuen profil horretako zortzi bergarar egon direla orain arte Arrasateko zentroan, eta, Bergarakoari esker, zortzi bergararri emango zaiela zerbitzua: "Txapel berarekin bi buru estali ahalko ditugu horrela; hau da, Arrasateko zentroa deskargatu egingo dugu eta Arrasaten zeuden zortzi bergararrak euren herrian eta euren komunitatearekin egon ahal izango dira. Euren komunitatearekin harremanak mantentzea funtsezkoa delako, Goyeneche Fundazioak argi azaltzen duenez".

Amaitzeko, Gipuzkoan aukera berdintasuna bermatu beharra dagoela gaineratu zuen diputatu nagusiak: "Etorkizuneko Gipuzkoan ezin da inolartean geratu, eta pertsona

guztiei aukera eman behar zaie", gaineratu zuen Olanok.

**Eguneko zentroan 38 bat plaza** Hirugarren adinekoei zuzendutako eguneko zentroa San Joxepe erretiratu elkarteak Boni Laskurain kalean duen egoitzan egon da orain arte, eta Udalak espero du zentro berria maiatzarako zabaltzea. "Lekuz aldatzeaz gain, erabiltzaile gehiago jaso ahalko ditu zentro berriak. 38 plaza inguru izango ditu, orain artekoak baino hamahiru plaza gehiago. Bi urte egon gara itxaroten obrak bukatu arte, baina itxaronaldiak merezi izan du; izan ere, oso ondo ekipatuta eta kokatuta dago. Emaizta ezin hobea da", uste du Elena Lete alkateak.

Horrez gain, alkateak nabarmendu zuen Bergaran bizi diren adineko gehiagok eta haien senitartekoei Antzuolara eta beste herri batzuetara joan behar izatea ekidindo dutela maiatzetik aurrera.

Udalak hartu du bere gain eguneko zentro berri horren finantziarioa eta Diputazioak 50.000 euroko inbertsioa egin du, bereziki, altzariak jartzeko.



Etzaniz, Barruso, Elgoro, Isazelaia, Elortza, Belastegi eta Azkargorta. EH BILDU

## Alkategaia aukeratzeko EH Bilduren batzarra, hilaren 29an

"Ilusioz" lan egingo duen taldeko buru izango den pertsona aukeratzeko dute; UNEDen izango da batzarra, 19:00etan

## J.B. BERGARA

Bergarako EH Bilduk maiatzaren 26an egingo diren udal hauteskundeetarako alkategaia aukeratzeko barne prozesua jarri zuen abian pasa den abenduan. "Aukeraketa prozesu hau bere amaierara iristen ari da, eta gure alkategaia aukeratzeko azken pausoak ematen ari gara", diote. Horregatik, aditzera eman dute urtarrilaren 29an egingo dutela Bergarako EH Bilduren proiektuaren lidergoa eramango duen pertsona aukeratzeko herri batzarra –UNEDen izango da, 19:00etan hasita–: "Gure herriak

merezi duen tamainako proiektua osatu eta bideratu nahi dugu. Ilusioz eta gogotsu lan egingo duen lantalde bat eratu, alegia. Lantalde eta proiektu horren lidergoa eramango duen alkategaia aukeratzeko herri batzar baterako dei egin nahi dugu".

**Alkate eta zinegotzi ohien babesa** Herri batzarra deitzeko, alkate eta zinegotzi ohien argazki bat helarazi du EH Bilduk; tartean daude Bergarako alkate izan ziren Jose Luis Elgoro, Agurne Barruso, Jesus Elortza eta Jaione Isazelaia, besteak beste.

## OHARRAK

### Greba feminista antolatzen bilera hilaren 28an

Martxoaren 8ko grebaren bueltan ekintzen gainean pentsatzeko eta talantzak argitzeko saioa hilaren 28an, Irizarren (19:00).

### Fruta-arbolen gaineko hitzaldia Angiozarren

Angiozar Bailarako Batzarrak eta Udalak antolatuta, fruta-arbolen gaineko saioa egingo dute gaur Arbiaska aretoan (19:00).

### Jardun: DBHko ikasleendako antzerki eskola

Gaur, Zabalotegin elkartuko dira, 17:15etik 18:15era, taldea osatzen hasteko. Argibide gehiago: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

### 'De Miguel' kasua hizpide bihar gaztetxean

Ahoztar Zelaieta kazetariak *La trama del 4%*, *Las comisiones del Caso De Miguel* liburua aurkeztuko du bihar gaztetxean (18:00). Gero, 22:30ean, Txaparen eskutik, John Dealer & The Coconuts eta Kobrazulo taldeek punk-rock kontzertua eskainiko dute.

### Mus txapelketa bihar (22:00) Depor tabernan

Zortzi erregetara izango da eta izena eman behar da 21:30erako. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar du; lau onenek jasoko dute batutako diru kopuruaren araberako saria eta oroigarria.

# Zurekin historia egiten jarraituko dugu



Matrikulazioa:

Urtarrilaren 28tik  
Otsailaren 8ra

**Afe Irekiak**

urtarrilak 26, 10:00-13:30

**Informazio Bilera**

urtarrilak 30, 18:00

[www.mlagundia.net](http://www.mlagundia.net)

Espoloia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)  943 76 25 40

# Lapurtutako historia berreskuratzeko lanean

2011n Jose Luis Guzman bildumagileak Udal Artxibotik ostu zituen 238 prefilatelia dokumentuetatik 36 berreskuratu ditu Udalak eta gainerakoekin berbera gertatzea espero du; artxiboko segurtasun neurriak zorrotz dituzte, besteak beste, kamerak ipinita

## Jokin Bereziartua BERGARA


Udalak 2011n salatu zuen zigiluak erabiltzen hasi aurreko 238 gutun lapurtu zituztela Udal Artxibotik. Eta lapurreten egilea zigortu zuen epaia 2016an jakinarazi zen arren, orain itzuli dira berreskuratutako 36 dokumentuak Bergarara. Lapurreten ondorioz artxiboko segurtasun neurriak zorrotz egin dituztela adierazi du Elena Lete alkateak, eta baita falta diren dokumentuak –202– "denborarekin" berreskuratzeko itzaropena agertu ere.

## 18.600 euroko kalte-ordainak

2011n atxilotu zuten Jose Luis Guzman bildumagile eta dokumentu historikoen lapurra. Bergaran lapurtutako dokumentuez gain, Euskadiko Artxiboan, Urretxuko Udal Artxiboan, Loiolako Santutegian eta Zabala familiaren artxiboan lapurtutakoak ere atzeman zituzten. 2016an erruduntzat jo zuten Guzman, eta hainbat zigor ezarri ere bai: urtebeteko kartzela zigorra, berreskuratu ez diren dokumentuengatik indemnitazioa –Bergararen kasuan, 18.600 euro inguru dira– eta urtebeteko edozein artxibo publiko zein pribatura sartzeko debekua.

Zigiluak erabiltzen hasi aurreko gutunak dira prefilatelia dokumentuak –1840an hasi ziren zigiluak erabiltzen–, eta duten berezitasuna da ez dutela gutun-azalik erabiltzen: jatorria, helbidea eta ordaindu beharrekoa, dena gutunean bertan agertzen da –1840era arte gutun-azalik erabiltzen ez zenez, gutunak bildu eta atzean hartzen diren jatorria, helbidea eta ordaindu beharreko kopurua–.

**Datu interesgarrien galera eragin**  
Hain zuzen, Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregiren arabera, bildumagileentzat do-



Oregi eta Lete, berreskuratutako dokumentuetako batzuekin. TXOMIN MADINA

kumentuaren atal horrek du balioa, baina lapurtzean gutunaren edukia desagertzen da, eta, ondorioz, historia zein ondare ikuspegitik, informazio interesgarria galdu. "Gainera, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar Errege Seminarioa oso ikastetxe garrantzitsua zen mundu mailan eta atzerriko ikasleak zeuden bertan. Hori dela eta, Amerikatik hainbat gutun helden ziren Bergarara, eta hori oso erakargarria da prefilatelia bildumagileen ikuspegitik", argitu du Oregik.

## Segurtasun neurriak zorrotz

Dokumentu horiek ondare dira dio Oregik: "Gutun bakoitza bakarra da, ez dago besterik: bat galtzen bada, betirako galtzen da. 36 dokumentu hauek berreskuratzeko aurrerapauso bat izan da. Inportantea da salatzea eta ondarea babesteko neurriak hartzea". Horregatik, Udal Artxiboko segurtasun neurriak zorrotz egin dituzte: kamerak ipini dituzte; eta dokumentuak kontsultarako atera gura direnean, atera aurretik eta itzultzerakoan pisatu egiten dituzte.



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

## Itzaropen matematikoa

Asteon banatu da Gure Esku Dago-ren Tripontzia saria. Eta ez, ez dut propagandarik egingo. Izan ere, inguruko guztiek bezala, nik ere harro diot loteria ez zela sariak emateko jaio. Gobernuak saritzeko sortu zela. Ondoren datoz probabilitateak eta kalkulu estatistiko barregarriak. Eta meteorito bat burura erortzea baino zailagoa izaten da saria tokatzeko probabilitatea. Wikipediako jakinduriarekin aipatu nahiko nuke, probabilitateaz gain, eskuzabaltasuna ere kontuan hartu behar dela. Probabilitateari kasu egingo bagenio, apustu etxeetara joan besterik ez genuke. Eta jakina, ez dira eskuzabalenak. Daturik salatzaileena –nire aurkako propagandari eutsiz– itzaropen matematikoarena da. Hau da, irabazteko probabilitatea jokatzearen balioa baino handiagoa edo txikiagoa ote den. Aitona-amonek bilobei egindako *zozketetatik* kanpo, ez dut handiagoa den kasurik bilatu. Orduan, saria antolatzen dutenak saritzeko prest gaude? Diru ekarpen bat bezala ulertuko bagenu, nori erosiko genioke loteria?

Propagandarik ez nuela egingo esan dut. Baina irribarre bihurri bat atera zait zutabea amaitzerakoan. Atera kontuak.



ZAHAR-BERRI

## Mintzalagunak, Ereindajan-en

Debagoieneko mintzalagunak Ereindajan-en egon ziren domekan. Aitziber Plazaolaren eta Iraitz Salegiren eskutik, Pio XIII. plazako denda-topagunearen helburuak eta funtzionamendua ezagutu zituzten. Ondoren, Artatse elkartera joan, eta bertako produktuak dastatu zituzten. Gaur egun, 280 bazkide ditu Bergarako denda-topaguneari. "Oso pozik gaude", adierazi dute arduradunek.

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Aire, Intzeta eta Ur (ikasleak)  
Jonane (irakaslea)

# MATRIKULA IREKIA

SAN MARTIN AGIRRE ESKOLAN  
ATEAK ZABALIK

1. Urtarrilak 29: bilera informatiboa Haur Hezkuntzan, 18:00etan.
2. Urtarrilak 30, 31 eta otsailak 1 atek irekita Haur Hezkuntzako geletan
3. Otsailak 6: metodologiari buruzko hitzaldia Xabier Arregi ikerlari-aren eskutik Haur Hezkuntzan, 18:00etan



San Martin Agirre  
Herri Eskola  
Bergara



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



ICT-inhibitutazko eredu  
EITAN eredu berritua  
Centro acreditado en el nivel  
MEDIO de madurez TIC



Certificado  
de Escuela  
Sostenible



KALITATEA  
HEZKUNTZAN





Izaskun Labaien eta Rosa Errazkin, energia kontsumoak lantzeko Errekalde jauregiaren maketa bat ondoan dutela. MIREIA BIKUÑA

# Energia erakusgai, ahalik eta gehien irakatsi guran

Gaur inauguratuko dute 'Energia: guzti-guztiaren jatorria eta amaiera' izenburu duen erakusketa, Laboratoriumen, eta Bartzelonako Unibertsitatetik etorritako hiru komisariok hartuko dute parte ekitaldian; maiatzaren 5era arte bisitatuko ahalko da

## Jokin Bereziartua BERGARA

Energia izango da protagonista Laboratoriumen, gaur hasi eta maiatzaren 5era arte. Museoak badarozta urte batzuk gai baten gaineko erakusketa eta unitate didaktikoak sortzen. "Energia-rena pil-pilean dagoen gai bat da, ikuspegi askotatik baldintzatzen gaituena. Energiatik sortu ginen gu eta sortu zen guzti-guztia; hari asko ditu eta asko dauka lantzeko. Gainera, gazteentzat zein helduentzat gai interesgarria delakoan gaude", adierazi du Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinak.

*Energia: Guzti-guztiaren jatorria eta amaiera* du izenburu erakusketak, eta gaur inauguratuko dute. Inaugurazioan egongo dira erakusketaren komisario diren Bartzelonako unibertsitateko aditu Carlota Oliver, Elies Molins eta Javier Tejada; erakusketaren gaineko argibideak emango dituzte eta bertaratzen diren herritarren zalantzak argitzeko gertu egongo dira.

## Erakusketa eta unitate didaktikoa

Laboratoriumeko ekimen horrek hiru adar ditu: batetik, erakusketa bera, hiru atal edo gela dituen. Lehenik eta behin, unibertsitatea eta gizadia dago: konplexutasuna, informazioa, eboluzioa, kaosa, energia iluna, nazioarteko harremanak, garraioa, klimaldaketa, populazioa eta hiriak dira atal horretako protagonistak;

hau da, kontzeptu horiek guztiak energiarekin duten harremana lantzen du: "Zer garen eta izango garen ulertzeko gakoak emango dira". Erakusketako bigarren atal baten, ingurune energetikoak dira jorrotzen direnak: "Eskala ezberdinetan murgilduko gara, mundu nanoskopikoan hasi eta mundu kosmologikoraino".

Erakusketako hirugarren atalak erregaiak eta energiaren sorkuntza izango du berbagai: "Azaldu nahi da nola erabiltzen diren elektrizitatea, lana, mugimendua, ordena eta informazioa ekoizteko baliatzen diren erregai guztiak". Gainera, energian aditua den Usurbilgo Lanbide Heziketako lantaldearekin unitate didaktikoa sortu dute. Eta, azkenik, Felipe Uriarte eta Joxe Mari Rubio bergararren lurrunkakina ere bertan egongo da.

Astelehenetan eta martitzenean izan ezik, gainerako eguntan bisitatu ahalko da; argibide gehiagorako: 943 76 90 03 edo [laboratorium@bergara.eus](mailto:laboratorium@bergara.eus).

## Sarrera ez da doakoa izango

2019rako ordenantza fiskaletan onartu zenez, Laboratoriumeko erakusketak bisitatzeko sarrera ordaindu egin beharko da aurrerantzean. Sarrera arrunta hiru euro da; taldean joanda, bi euro pertsonako; eta sarrera murriztua, euro eta erdi.

## GORA ETA BEHERA




### Kexak, Matxiategi kaleko zuhaitzen mozketa dela-eta

Matxiategiko pasealekuan bizi diren bizilagun batzuk kexu agertu dira, Udala bertako zuhaitz batzuk botatzen hasi delako. Udalak, hain zuzen, bizilagunek eskatuta eta batzuk gaixorik zeudelako erabaki zuen mozketa lanekin hasia. Hasierako asmoa zen dauden ezkien erdiak botatzea.

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo [688 69 00 07](tel:68869007).



GOIENA



BERGARAKO UDALA

## Led argi berriak alde zaharrean

2014an eta 2015ean jarritako led argiek arazoak eman eta alde zaharreko batzuk bereziki ilun daudela-eta Tecuni enpresa asteen hasi da Barrenkalean, Artekalean, Bidekurutzetan eta San Pedron led argi berriak jartzen. Hain justu, Udalak eskatu zion Gabonetako argiak jarri zituen enpresari argi horiek egun batzuek mantentzea. Aurrekontua 48.296 euro da, BEZa barne.

## Zubietako zubia, laster erabilgarri

2018ko irailaren 17an hasi ziren, bizilagun batzuen protesta artean, Zubietako zubia birgaitzeko lanak. Lanek lau hilabete iraungo zutela aurreikusitako zen eta Udalak bizilagunei esan die hilaren 31n irekiko dela; Goitu Eraikuntzak aritu da lanean, 313.864 euroko aurrekontuarekin. Bizilagun talde batek batzartzen jarraitzen du, Udalak kale osoa hobetzeko lanei epe bat jar diezaion.



SOFIA GIMBERT

# "Bergararrek ondo hartuko nautela uste dut"

**ENRIKE TXURRUKA** BERGARAKO MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIORDEA

Alfredo Gonzalez Chirlaquek 33 urte egin ditu Bergarako Musika Bandako zuzendari, eta, ekainean, Txurrukak hartuko dio erreleboa, San Pedroko kontzertuan

**Maialen Regueiro** BERGARA

Txurruka soralezetarra da, baina 18 urte zituela Bergarara etorri zen bizi izatera. Dagoeneko hogeita hamar urte daratza Bergarako Musika Bandako kide izaten, eta ekainean, gaur egungo zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaquek erretiroa hartzen duenean, hura izango da zuzendari berria.

**Nola hartu zenuen zuzendari izateko aukera?**

Beti ibili naiz beste kontu batzuetan eta musika zaletasuna izan da niretzat. Egia da aukera sortu zenean inguruko jendeak asko animatu ninduela, baina, batez ere, oso garrantzitsua izan



Enrike Txurruka eta Alfredo Gonzalez Chirlaque. M.R

da Alfredok berak animatzea, eta horrek izugarriko konfiantza eman dit.

**Nola bizi izan duzu aukeraketa prozesua?**

Hobeto prestatzen aritu naiz nire aldetik, baina egia da urduri egon naizela. Prozesu polita izan da, bandako kide guztien babesa izan dudalako.

**Esperientzia berriari ekiteko gogotsu zaude.**

Noski. Batez ere, gehiago ikasteko gogoia daukat. Niretzat, izugarriko erronka izango da, baina gogotsu nago, eta ilusioz. **Ikusten zenuen zeure burua zuzendari?**

Gazte nintzela sartu nintzen bandan, eta momentu hartan ez nuen horrelakorik sekula pentsatuko. Egia da aukera hau gerturatzen joan den heinean eta, gehienbat, inguruan izan dudana babesagatik animatzen joan naizela.

**33 urtez zuzendari lanetan aritua dena ordezkatu duzu.**

Gogotsu nago esperientzia honi hasiera emateko, baina kontziente naiz zein ordezkatu beharko dudana. Izugarriko erronka izango da niretzat Al-

fredoren erreleboa hartzea, baina egia da Alfredo aspaldidanik ezagutzen dudala eta harengandik asko ikasi dudala.

**Sei hilabete hauetan zuzendariordea izango zara, eta trebatzeko aukera izango duzu.**

Nik pianoa ikasi nuen, eta ondoren, Alfredok perkusioa jotzen jarri ninduen. Kontziente naiz zuzendari izateko trebatu beharra dudala, eta, horregatik, egin beharreko ikastaroak egingo ditut.

**Igandeko kontzertuko lehen obra zuk zuzenduko duzu.**

Urduri nago, hau berria delako niretzat, baina, era berean, gogotsu. Bergararrek dagoeneko ezagutzen naute, bakarka ere aritu naizelako. Hala ere, kontziente naiz Bergarako herriak Alfredori dion estimuaz, urte asko egin dituelako bai Bandako kide eta baita zuzendari, baina uste dut herritarrek ondo hartuko nautela.

**Zuzendari gisa, ekainean emango duzu lehen kontzertua.**

Ekainera arte zuzendariordea izango naiz eta, hain zuzen, San Pedroko kontzertua izango da nire lehenengoa.



## Zatoz ikastolara!



**ARANZADI ikastola**  
Kalitatezko Euskal Meziketa

**Ate irekiak**  
Urtarrilak 27 | 11:30

**Bisita gidatuak**  
Txanda hartu: 943 76 90 71

**Matrikulazioa**  
Urtarrilak 28 - Otsallak 8





# Aaiungo gordintasuna, lanean segitzeko pizgarri

Antzuolako Sagiri elkarteko kide da Marta Sanchez eta Saharako Aaiun kanpalekuan izan berri da. Hango egoera gordina ikusteak lanean jarraitzeko indarrak eman dizkiola dio. Helburua da udan ahalik eta haur gehien kanpalekuetatik ateratzea

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Sagiri elkarteko Marta Sanchez antzuolarra Saharako kanpalekuetan izan berri da. Zehazki, Tinduf inguruan dagoen Aaiunen. Helburua, baina, iaz udan Debagoienean izan ziren hamar haurrak bisitatzea izan dela dio: "Hamar umetatik bederatzirekin egoteko aukera izan dut. Batekin ezin izan dugu kontaktatu. Nola dauden gertutik ikusteko eta euren familiekin egoteko aukera izan dut".

Bidaia horrek Sagiri elkartearen proiektuarekin lanean jarraitzeko indarra eman diola aitortu du Sanchezek. "Zein egoeratan dauden ikusteak eman dit indarra lanean jarraitzeko. Ez daukate ia ezer, desertuan bizi dira. Zein garrantzitsua den haurrak udan hona ekartzea eta euren etxeetan hartzea erakutsi gura diet debagoiendarrei".

## Egoera gogorrari aurre

Izan ere, uda Euskal Herrian igarotzen duten haurrek onurak izaten dituztela bai elikaduran eta baita ere osasunean nabarmendu du: "Aurretik datorkien urte gogorrari aurre egoteko indarrak ematen dizkie uda gurekin pasatzeak. Izan ere, oso argalduta ikusi ditut egin berri dudana bidaian".



Aaiun, Tinduf inguruan dagoen kanpalekua. MARTA SANCHEZ

## HAURRENDAKO, EZINBESTEKOA DA KANPALEKUEKUTATIK IRTETEA; GUTXIENEZ, UDAN BADA ERE

### Sahararren harrera beroa

Aitortu du familiek oso eskertuta eta eskuak zabalik hartu dituztela Aaiungo kanpalekuetan. "Euren etxeko ateak zabaldu dizkigute guzti-guztiek. Benetan eskertuta daude".

### Haurrak hartzeko kanpaina

Oporrak bakean programa lehenbailehen abian jarri gura dute. Zailtasun administratiboak dirrela eta denbora aurreztu nahian, *Orain bi familia ditut* kanpaina abian da. "Gaztetatik etxean bizi izan dut. Harrera familia gisa funtzionatu dugu bikotekideak eta biok ere. Oporretara ere joan izan gara, pentsa! Hemengo familiek jakin behar dute sahararrendako udan handik irtetea ezinbestekoa dela eta eruendako onura besterik ez dakarrela gurean bi hilabetez egoteak".



NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE NEKAZARIA

## Maravillas aurrera!

1936an faxistek bortxatu eta erail zuten Larragako 14 urteko neska izena hartzen du Iruñeko alde zaharreko gaztetxeak, Maravillas. Orduan galdutako gerra irabazteko konpromisoz beraien alea jartzen ari dira hainbat gazte eta ez gazte. Urte luzetan hutsik egondako eraikin publikoa atondu eta bizitu dute urtebete pasan, auzolanean. Elkartasunean oinarritutako gune bat eraiki dute, auzoari irekia, pertsoneri paperik eskatzen ez zaiena, dirua errege ez dena... mundu injustu honetan justiziazko oasitxo bat, alegia.

Baina hori ez dator bat EAJren gizarte ereduarekin. Nahiago ditu AHT, polizia eta jabetza pribatu sakratua. Nahiago du, alegia, elitearen interesak defendatzen jarraitzea gehiengoaren interesak defendatzea baino. Horregatik eraitsi zuten Kukutza eta hustu dituzte beste hainbat gaztetxe eta gune autogestionatu, eta horregatik hustu dute Maravillas. Geure burua ezkeriartzat daukagun orok baldintzarik gabeko babesak erakutsi behar diegu honelako proiektuei, Euskal Herri justu bat eraikitzeko ezinbesteko arnaguneak direlako.



MAIDAR ARREGI

## Azken txukuntze lanen zain

Ondarreko plazatxoko lan nagusiak eginda dauden arren, itxita jarraitzen du pasealekuak. Izan ere, azken ukituak ematea falta zaie langileei. Eguraldiak hobera egiten duenean egingo dituztela aurreratu du Valen Monux Hirigintza teknikariak. "Pintura gorria errepasatzea, aparkalekuak markatzea, kartelak jartzea... falta da. Eguraldiaren arabera egingo da".

## 460 kilo Saharara

Aurten ere antzuolarrek ez dute hutsik egin eta Anelkarrek eta Sagirik elkarlanean antolatuta duten *Piztu itxaropena* kanpainak harrera ezin hobe eduki du herrian.

Eguazten arratsaldean egin zuten jasotako elikagaien zenbaketa, Olaranen. 460,5 kilo batu dituzte eta 29 kaxatan sartu dituzte. 26 pakete konpresa ere jaso dituzte.



Eguaztenean, elikagaiak kaxetan sartu zituzten, Olaranen. MARTA SANCHEZ

## Aintzane Oiarbidek autobideaz jardungo du herritarrekin

Deskargatik Bergarara doan autobidea martxoko azken egunetan inauguratuko du Gipuzkoako Diputazioak. Autobidearen gaineko xehetasunak ematera eta herritarren kezka argitzera etorriko da Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Bide Azpiegitura diputatua Antzuolara. Bileraren 31n izango da, Olaranen, 18:30ean.

## Gaztetxearen egoeraren gaineko batzarra gurasoekin

Gaztetxea berriz ere zabalik dago eta gazte talde batek dauka bertara sartzeko giltza. Bertako arauak eta funtzionamendua azaltzeko, bilera informatiboa egingo du Udalak 15 eta 20 urte bitarteko gazteen gurasoekin. Hilaren 29an, martitzena, 17:45ean, udaletxeko osoko bilkura aretoan egingo da batzarra eta ordubete iraungo du.



# "Izena izanaren jabe" bilakatu duen bloga

Antzuolako kultura eta natura ondarea urteetan jaso dituen bloga da 'Irinmodo'. Iñigo Ramirez de Okariz historialaria da bloga elikatzen diharduena 2012az geroztik; orain, laster batean, blegean 500. artikulua idatziko du, eta herritarrekin ospatu gura du

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Duela zazpi urte, 2012an, idatzi zuen Iñigo Ramirez de Okariz historialariak bere lehen artikulua *Irinmodo* blegean. Eta laster batean 500. atala kalera-tuko duela kontatu dio antzuolarrak GOIENARI.

"2012ko abuztuaren 2an kalera-tatu nuen lehendabiziko atala. Gaia Uzarraga elizako erretaula nagusia izan zen. Beraz, atal desberdinak kaleratuz, zazpi urte bete behar ditut jada bloga elikatzen".

Antzuolako kultura eta natura ondareaz dihardu blogak, eta, gainera, euskaraz. "Aitortu beharra dago zabalkunde aldetik muga batzuk ere badituela blogak. Alde batetik, gurea herri txikia da; eta, bestetik, euskaraz idatzia dago. Mugarrak muga, baina, gure herri nortasuna zabalteko baliagarria izan delakoan nago. Alegia, modan dagoen esanarekin bat eginez, izena izanaren jabe bihurtu dugula gure herria", aitortu du Iñigo Ramirez de Okarizek.

Eta 500. artikulua argitaratzear dagola kontuan izanik, historialariak, Antzuolako Udalaren laguntzarekin, zozketa bat antolatatu du otsailean egiteko. "Nolabait, ospatu egin nahi dugu 500. atala kaleratuko dugula



*Irinmodo* blegeko artikulua. MAIDAR ARREGI

## "ANTZUOLAKO KULTURA ETA NATURA ONDAREAZ DIHARDUT BLEGAN ORAIN DELA IA ZAZPI URTETIK"

blegean. Zozketak otsailean astero-astero egingo ditugu. Asmoa da herriari buruz idatzitako liburu sorta bat zozketatzea. Sorta bakoitzean hamabi bat liburu daude", azaldu Ramirez de Okarizek.

### Parte hartzeko

"*Irinmodo* blegean idatzitako atalen inguruko galdera batzuk egingo ditugu eta horiei erantzun beharko dizkiete herritarrek parte hartzeko. Hala, asmatzen dutenen artean, aipatutako liburu sorta zozketatuko dugu".

Beraz, erne otsaileko asteburuetan argitaratuko diren atalei. Izan ere, galdetegitxo –bost galderakoa– argitaratuko du blegean. "Animatu nahi zaituztet parte hartzera, eta Antzuolari buruz idatzitako liburuak eskuratzea", nabarmendu du.



BENARDO KORTABARRIA

## Zubikarai eta Iturbe txapelkun!

Jokatu da Antzuolako Mus Txapelketa. Txeme Zubikarai eta Lorentxo Iturbe bikoteak jantzi du txapela. "Azken partidari, Mariano Urrutxiri eta Jose Ramon Urzelairi irabazi diete", azaldu dute antolatzaileek. Hortaz, Zubikarai eta Iturbek ordezkatzeko dute Antzuola Gipuzkoa mailan egingo den hurrengo kanporaketan.



LANDATXOPE

## Alzheimerre gertutik eta hurbil

Afagiko Koldo Aulestiak eta Antton Elosegik gertutik ezagutzen dute gaixotasuna. Baita alderdi fisikoak, sozialak zein psikologikoak nola eragiten dioten familiari ere. Gaixotasun-kasuak bikoiztu egingo direla azaldu zuten. "2030ean, Debagoienean 2.200 pertsonak jasango dute; proportzio horretan, Antzuolan 68 lagunek izango dute", aitortu zuten.

### OHARRAK

#### Aratuste-dantzen ikastaroa

Oinarriek eguaztenero, 20:30ean, gimnasioan, Aratuste-dantzen irakatsiko dizkie herritarrei. Hilaren 30ean hasiko dira entseguak eta aurten, polka berri bat ere irakatsiko dute.

#### 'Antzuola' jolasgunea

Bihar inauguratuko dute *Antzuola* izeneko jolasgunea Ahierran. Senidetza sustatu eta belaunaldi berriei transmititzeko asmoz, han izango da Antzuolako udal ordezkari ere.

#### Mendi irteera

Domekan, Arrolak irteera egingo du Oiz mendira. 08:00etan irteerako dira, Olarandik. Izena emateko: [arrolamt@gmail.com](mailto:arrolamt@gmail.com).

## Liburu sorta zozketatuko dute

Antzuola oinarri duten liburu sortak zozketatuko dituzte *Irinmodo* blegean, otsaileko asteburuetan argitaratuko diren galderak zuzen erantzuten dituztenen artean. Besteak beste, Antzuolako hizkera, antzinako argazkien bilduma, maristek Antzuolan izan zireneko istorioak, herriko ohitura zaharrak... jasotzen dituzte liburuok.



Zozketatuko den liburu sorta. IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

# Gatazkak kudeatzen ikasteko saioa eskolan

Herri Eskolak antolatuta, gatazkak kudeatzeko formakuntza saioa egingo du Lur Kabiketa bitartekari arrasatearrak, hilaren 31n. Gurasoendako saioa izango da, eta ikastetxeko zuzendaritzak garrantzitsutzat jotzen du parte-hartzea ahalik eta handiena izatea

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Matiz elkarteko kidea da Lur Kabiketa, eta prest dut Elgetan egitekoa duen saioa. "Gatazkak erabat naturalak dira, eta saihestezinak. Adinaren arabera, mota batzuetakoak edo besteak sortuko dira, eta normala eta osasuntsua da gatazkak gertatzea". Kabiketak dio norberaren esku dagoela gatazka horien aurrean ze joko hartu. "Egia da kulturalki zein sozialki zerbait negatiboarekin lotzen ditugula gatazkak. Emozio desatseginekin lotzen ditugu. Helburua da hori aldatzea eta gatazkak aukera bezala ikustea. Jarrera aldatzen badugu, emaitza ere aldatu egingo da", azaltzen du.

Elgetako saioan, gatazken aurrean duten jokabidearen inguruan hausnartzera gonbidatuko ditu gurasoak, eta modu egokian kudeatzeko baliabideak emango dizkie. "Normalean, gatazka bat dagoenean nahi duguna da irabaztea. Eta jakinekora da norbaitek irabazten duenean beste batek galdu egiten duela. Posible da, ordea, bi aldeek irabaztea, eta gure helburua izango da irabazi/galdu eskematik irabazi/irabazi eskemara pasatzea".

## Emozioen lanketa

Kabiketaren esanetan, zeregin horretan ezinbestekoa da emozioak lantzea. "Emozioak identifikatzen ikasi egiten da, eta emozio bakoitzak zein jokoera eragiten didan ulertzen ere ikasi egiten da. Gehienetan, haserreak edo amorruak agresibitate eramatzen gaitu".

Adituak azaltzen du gatazken aurrean batzuen jokabidea lehia dela, baina badagoela arazoa saihesteko joera duenik ere. "Batzuk oihuka hasten dira beste gaineratik jartzeko helburu horrekin, baina beste batzuek nahiago izaten dute gatazka ezkutatu edo alboratu. Nola edo hala kontua baretzea, alegia.



Orain bi urte Herri Eskolan egindako beste formazio saio bat. L.Z.

## Parte hartzeko dei berezia familiei

Eskolako zuzendaritzak jakinarazi du garrantzitsua dela familiek formakuntza saioan parte hartzea eta, askotan, halakoetara oso jende gutxi joaten dela. "Eskola Bizikasi programan sartuta dago eta aurtengo helburuetako bat familien sentsibilizazioa da. Aurreko ikasturteetik ari gara lanean irakasleen formakuntza, mintegiak, BAT taldearen sorrera...-. Saioan landuko dira, besteak beste, gatazken zikloa zein gatazketan parte hartzen duten pertsonak eta emozioak".

Gaineratu dute Bizikasi programaren helburua dela giro eta elkarbizitza positiboa sortzea eta gerta daitezkeen jazarpen egoeren aurrean tolerantziarik izango ez duen testuinguru segurua eraikitzea.

Baina, noski, horrelakoetan ez dugu gatazka konpontzen eta berriz gertatzen da irabazi/galdu eskema, gainera. Bilatu behar duguna da irabazi/irabazi formula iristea".

Irtenbide negoziatuak, entzute aktiboa eta emozioen kudeaketa aipatzen ditu Kabiketak, eta horretarako teknikak eskainiko ditu hilaren 31ko saioan.

## Eredu egokien bila

Helduok eredu egoki ote garen galdetuta, herren gabiltzala erantzun du adituak. "Gertatzen

dena da ez digula inork erakutsi, eta orain arte nork bere moduak aurkitu behar izan dituela etxean, telebistan edo inguruan. Horregatik, normalean, ez dugu ondo egiten. Zalantzarik gabe, ikasi beharra daukagu". Neska-mutikoen arteko gatazketan nola esku hartu behar den ere azalduko du hilaren 31ko saioan.

## Zaintza zerbitzua aukeran

Saioan parte hartzeko umeendako zaintza zerbitzua behar duten gurasoek eskatu egin dezaketela gogorarazi dute.

## "Saiatuko gara naturaltasuna eta bat-batekotasuna lantzen"

**MAIDER GALARZA** IPUIN KONTALARIA

Bina orduko bi tailer egingo ditu egunotan liburutegian

**L.Z.L.** ELGETA

Gaur, 8 urtetik gorako neska-mutikoendako saioa egingo du, 17:00etan. Hurrengo astekoa 6 eta 8 urte artekoendako izango da. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea, liburutegian.

### Nola lantzen da kontalaritza 8 urte inguruko neska-mutikoekin?

Batez ere, jolasaren bitartez; izan ere, jolasa da beraien hizkuntza. Ipuinen mundua sartuta saiaturako gara naturaltasuna eta bat-batekotasuna lantzen.

### Garrantzitsua da adin horretan kontalaritza lantzea?

Noski. Ipuinak hezigarriak dira, eta ez bakarrik haurtzaroan. Ipuin bati gerturatzeko era asko daude: irakurketa, istorioen sormena, transmisioa... Erakusten dute diskurtsoak eraikitzen, istorioak egituratzen, entzuten, hizkuntza erabiltzen...

### Nolakoak izango dira zure saioak?



Maidar Galarza. SONIA SENOSIAIN

Umeak izango dira protagonistak. Kontalaritzan esperientziak trebatzen du eta teoria gutxi dago. Txikien saioan, helduen parte hartzea ere eskatu dut. Umeek irudimen handia dute, baina istorioak egituratzeko laguntza ondo etorriko zaie.

## Magia saioa otsailaren 2an

*Balio magikoak* izeneko ikuskizuna egingo du Oliver magoak Espaloian, otsailaren 2an. Antzerkia, magia, musika eta umorea nahasten dituen saioa da, 16:30ean. Sarrerak salgai daude 8 eurotan El Rincon de Lola tabernan eta Kultur Hiru taldearen webgunean. Egunean bertan, 10 euroko prezioa izango dute leihatilan.



OLIVER MAGOAK KONPAINIA

## Herri Eguneko dantzak prestatzeko lehen entsegua, gaur

Fandangoa eta arin-arina ikasteko lehenengo entsegua egingo dute gaur kiroldegiko gimnasioan, 19:00etan. Kepa de Vegak egingo ditu irakasle lanak, eta helburua da Ferixa Nagusiko jaietako zapatuan eskaintzea helduekin egindako dantza saio bat. Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilariari omenaldi txiki bat egiteko ere baliatuko dute aukera.

## OHARRAK

### Azken barikua

Presoen eskubideak aldarrikatzeko hileroko elkarretaratzea egingo dute gaur, 20:00etan, Herriko Plazan.

### Herrixa Dantzan

Domekan, Alboka taldeko Joxan Goikoetxearen zuzeneko musikarekin egingo dute dantzaldia, Espaloian, 19:00etan.



Roberto Altuna, Nerea Agirre, Onintza Negeruela, Edurne Arkauz, Itziar Murgiondo eta Idoia Etxeberria. INGO XONAU! TALDEA

# Emakumeen hitanoari eusteko ahalegina

'Ingo xonau!' du izena egitasmoak eta hitanoa erabiltzen duten herriko emakumeen diagnostia eta azterketa egitea da helburua. Gizonetan ez bezala, emakumeen artean noiz eta zergatik eten den aztertu eta nola egiten den jaso gura dute, ez galtzeko

## Oihana Elortza OÑATI

*Ingo xonau!* du izena proiektuak eta Oñatiko emakumeen hitanoa jaso eta biziberritzeko proiektua da. "Egin izan da eta oraindik egiten da edo herriko emakume batzuek egiten dute, baina, mutiletan ez bezala, nesketan galdu egin da ohitura hori. Belaunaldi batean eten egin da eta neska gazteen artean, esaterako, apenas erabiltzen da", dio Idoia Etxeberria taldekideak.

## Elkarrizketak eta grabaketak

Izan ere, filologoak, irakasleak eta feministak tartean dauden herritar batzuk elkartu dira eta taldea osatu dute proiektua garatzeko. Talde horretako kide da Etxeberria, hain zuzen ere.

Dagoeneko pentsatuta dute nola egingo duten proiektua, eta horretan hasita daude. Hainbat fase izango ditu lanketak. "Lehenengo, identifikatu eta zenbatu egin gura ditugu noka hitz egiten duten Oñatiko emakumeak. Lokalizatu. Auzo bakoitzean

zeintzuek egiten duten, eta gero, asmoa da emakume horietako batzuk elkarrizketatzea. Hori nola egin, egia esan, oraindik ez dakit zehazki. Izan ere, batzuek ahizpen artean egiten dute noka, lagunekin beste batzuek, konfiantza giroan... Eta garrantzitsua da grabazio horiek testuinguru horietan egitea. Eurekin aurrez aurre berba egiten hasten naizenean erregistroz aldatuko duten beldur naiz, eta ez genuke hori gura. Formula ezberdinak probatu beharko ditugu grabazioak dagokien egoeran egiteko, prest gaude jasotzeko", dio Idoia Etxeberria.

Taldekideak kontaktuak egiten hasi dira eta laster hasiko dira grabazioak egiten. Asmoa da

**DAGOENOKO HASI DIRA HORRETAN LANEAN ETA GOGOA DUEN EDONOR BATU DAITEKE TALDERA**

grabaketa horiek *www.ahotsak.eus* webgunean eskegitzea gero. Lana nola egin duten eta atera dituzten ondorioak erakusteko, berriz, bideo labur bat egingo dute, eta hori urtearen amaierarako prest izatea da asmoa.

## Badihardugu elkartearekin

Nokaren desagertzearen gaineko kezka adierazi zuten herritar batzuek Udalean, eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana egiteko diagnostikoan ere ondorio hori atera zuten udal arduradunek. Hala, Badihardugu elkartera jo zuen Udalak herriko emakumeen arteko hitanoaren diagnostia eta azterketa egiteko. Badiharduguk proiektua aurkeztu dio Udalari, eta Udal Gobernuak onartu egin du.

Proiektuan parte hartu gura duten herritarrek taldekideekin harremanetan jar daitezke. Hori egiteko bideak hauek dira: *ingoxonau@gmail.com* helbidea edo 615 75 57 84 (Idoia) telefono zenbakia.

## Martxoaren 8a antolatzeko bilerak deitu ditu sare feministak

Irekiak eta martitzenean izango dira biak: goizean Lagun Lekun eta arratsaldean kultura etxean

### O.E. OÑATI

*Emakumeok planto* mezuarekin dator aurtengo Martxoaren 8a ere, eta Oñatiko sare feministak bilerak egingo ditu datorren astean, hori nola egin, ospatu eta antolatu erabakitzeko. Herritar guztiakin batera antolatu gura du egun horretara bideratuko duen ekintza plana eta herritar guztiak gonbidatzen ditu bileretan parte hartzera. Bilerak martitzenean izango dira: 11:00etan, Lagun Leku erretiratu elkarteak Eltzian duen lokalean; eta 18:30ean, kultura etxean.



lazo elkarretaratzea. OSF

### Udalaren eskaintza

Udalak dagoeneko aurreratu du egun horren harira zer ekitaldi antolatu dituen. Martxoaren 4an, esaterako, *Fabricando mujeres* dokumentala emango dute Santa Ana aretoan. Martxoaren

6an eta 13an, Zinegoak-eko filmak emango dituzte zinema aretoan eta 10ean, *Bakean dagoenari bakean utzi* antzezlanaren egongo da Santa Anan. Dena dala, sare feministak antolatzen dituen hitzorduekin ere bat egingo duela gaineratu du Udalak.

## Martitzenean egingo dute Korrika batzordearen bilera

Korrikaren batzordea eratu da eta lanean dihardu. Herriko hainbat eragilek hartzen dute parte, hiru ikastetxeek barne, eta dagoeneko zehaztu dute, esaterako, Korrika Txikia ere antolatuko dutela. Bigarren bilera irekia eguaztenean, hilak 30, egingo dute, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan. Herritar guztien ideiak ongietorriak izango dira.

## Ateak irekitzeko jardunaldiak egingo dituzte ikastetxeetan

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra bitartean izango da hezkuntzako matrikulazio kanpaina eta herriko hiru ikastetxeetan ate jardunaldiak egingo dituzte gaurtik domekara bitartean.

Gaur, egubakoitza, esaterako, Txantxiku Ikastolak duen metodologia ezagutzeko aukera egongo da, 17:00etatik 19:00etara. Hitzorduek ere eskatu daitezke.

## Astelehenero batzen jarraituko dute herriko pentsiodunek

Pentsio duinen eta erretiratuaren eskubideen alde egiten dute elkarretaratzea astelehen guztietan herriko pentsiodunek Foruen plazan, eta horrela jarraituko dute datozen asteetan ere. Hurrengo astelehenean egingo dute, urtarrilak 28, 12:00etan, betiko moduan. Langileak eta gazteak ere gonbidatzen dituzte elkarretaratzean parte hartzera.

Urgaingo hezkuntza proiektua, bihar: 11:00etatik 13:00etara Txiki Txoko zabalduko dute eta 17:00etatik 19:00etara, Errekalde. 29an, Zuazolan, 18:00etan.

Domekan Elkar Hezin egingo dituzte ate irekiak, Oñatiko Kristau Eskolak irakasteko duen metodologia gertutik azaltzeko. Goizean egingo da zabalik.

Hiru ikastetxeetan egingo dituzte bisita gidatuak eta posible izango da, aurrez ordua hartuta, bilera edo bisita konkretuak ere egitea.

# Elikadura kontzientea da BiziPoz-eko gai berria

55 urtetik gorako herritarrek horrela eskatuta landuko dute elikadura kontzientea BiziPoz egitasmoa zazpigarren ikastaroan. Otsail eta martxo artean egingo dira zortzi tailerrak eta Amaia Diaz de Monasterioren dietistak gidatuko ditu

## Amaia Igartua OÑATI

Elikadura kontzientea izango da BiziPoz egitasmoaren barruan otsailean hasiko den tailerraren gaia. Herritarrek hala eskatuta erabaki dute gaia. "Hau zazpigarren tailerra da, eta, hainbat gai landu ostean, osasunaren barruan elikadurak interes handia pizten duen gaia dela ikusi genuen. 55 urtetik gorako jendeak asko daki gai honi buruz, baina orain, beldur eta mito asko sartu dira, eta interesa dute gai honetan", adierazi du Eider Etxebarriak, BiziPoz ekimenaren sortzaileetako batek.

## Diaz de Monasteriorenekin

Amaia Diaz de Monasterioren dietista-nutrizionistarekin elkarlanean egingo dute formakuntza. Zortzi tailerrek osatutako formakuntzaren bitartez, parte-hartzaileei baliabide eta tresna batzuk emango zaizkie elikadura ohiturak aldatzen ikasteko. "Hogei egunetik aurrera behar izaten dira ohitura aldaketa bat egiteko", argitu du Diaz de Monasteriorenekin. Eta gaineratu du: "Norberaren beharrak lantzen joango gara bost astetan eta taldearen babesaren garrantziak ohartuko gara". Izan ere, dietistaren esanetan, taldean egotea oso aukera ona izaten da norberak erronka bat jartzeko, taldean beti baitago babes handiagoa.

## Emozioen garrantzia

Hasieran, elikaduraren gurrupila erabiliko dute, norberaren bizitzan elikadura eta ongizatean parte hartzen duten alderdi desberdinak landuz. Horrela, baikoitzaren ohiturak ezagutu eta erronka batzuk finkatuta asteroko elkartzeko unearekin, erronka horiek lortzen joango dira.

Amaia Diaz de Monasterioren esanetan, emozioak eta elikadurak oso harreman zuzena dute. Gose mota desberdinak



Diaz de Monasterioren, eguaztenean egindako aurkezpenean. A.I.

ditugu, eta, askotan, gure emozioen arabera elikatzen gara, eta, hori ohitura bihurtzean, arazo bilakatu daiteke. "Elikadura kontzientearen bidez konurtatu behar dugu zergatik ari garen horrela jaten", dio.

## Izen-ematea

Udaleko Gizarte Zerbitzuekin batera antolatutako tailerra da eta izena telefono zenbaki honetara deituta eman behar da: 638 51 69 73. Urtarrilaren 30a da izena emateko azken eguna.

## Tailerretan landuko duten edukia

- **Elikadura plana.** Adinaren arabeko elikadura aldaketa.
- **Ariketa eta mugimendua.** Mugimendua eta bizitza aktiboaren garrantzia urtaro desberdinetan.
- **Elikadura planifikazio pertsonala.** Egunero 5-6 jatordu egiteak duen garrantzia. Asteko menua antolatzeko praktikak.
- **Errazioak.** Neurriak, etiketak irakurtzen ikasi. Kalorien, gantzen eta azukreen azterketa egin.
- **Janari emozionala.** Zergatik jaten dut horrela? Zer behar dut? Zein gose mota dut? Fisikoa da? Edo emozionala?
- **Motibazioa, helburuak lortzeko.** Elikaduraren gurrupilaren bitartez erronkak jarri eta ohitura aldaketa lantzeko prestaketa.
- **Konfiantza.** Mugimendua eta bizitza aktiboaren garrantzia urtaro desberdinetan.
- **Ingurua.** Etxekoak, bikotekidea, familia, lagunak... parte hartzaileak dira, bidelagun dira eta nire parte dira.
- **Ordu arteko janariak.** Beharrezkoak dira? Arazoa dira niretzat? Horrela bada trikimailuak ezagutu hau lantzeko eta hobetzeko.
- **Irudia.** Nire burua, gorputza ezagutu, onartu eta daukadan gauza onak azpimarratu eta hobetzeko dudak zerrenda erronka bezala jartzeko lanketa.

## Bizikidetzak dituen zazpi erronkez mintzatu da Fernandez

Etorkizuna lantzeko iragana entzun behar dela adierazi du Jonan Fernandezek Santa Anan egindako hitzaldian

## A.I. OÑATI

Bizikidetzak etorkizunean izango dituen erronkez jardun zuen Jonan Fernandezek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren idazkari nagusiak, eguaztenean Santa Anan, Oñatiko EAJ alderdiak gonbidatuta. "Kontuan hartu behar dugu mundua aldatzen ari dela, eta bizikidetzaren ikuspuntutik erronka berriak ditugu" esan, eta erronkak zeintzuk diren azaldu zuen.



Fernandez eta Idoiaga, Santa Anan. A.I.

## Zazpi erronka

Hain zuzen ere, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean zazpi erronka estrategiko daude: indarkeriaren amaiera antolatua, iragana argitzea, biktimak, memoria, espetxe-politika, hezkuntza eta bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura.

Bizikidetzan iraganak garrantzi handia duela azpimarratu zuen Fernandezek, eta giza eskubideak ezinbestekoak direla egoera normalizatzeko. "Etorkizunean pentsatzean, migratzaileen eskubideak ere errespetatu behar ditugu", gaineratu zuen.

## Apustu etxeek sortzen duten kalteez ohartarazi du Meltxorrek

Hark dio Euskal Herrian bertako enpresek kudeatzen dituztela eta Gipuzkoan dagoela adikzio handiena

## A.I. OÑATI

Zer dago apustu etxeen atzean? izenburuko hitzaldia egin zuen eguaztenean Igor Meltxor idazleak kultura etxean, Trapu Zikinak Astintzen taldeak antolatuta. Drogen adikzioarekin konparatu zuen apustuen mundua: "Drogen menpekotasunarekin paralelismoa eginda, hasieran, jendea harrিতa gelditzen zen; orain, motz gelditzen naitela esatera iritsi dira".

## Gipuzkoan gehien

Arazoa prekaritatearekin lotuta saltzen digutela esan zuen, baina Euskal Herrian ez dela betetzen: "Hemen badaude herriak langabezia tasa oso baxuarekin eta adikzio handiarekin. Euskal Herrian dugun arazoa da. Gipuzkoa da herrialde zigortuena". Gaiari lotuta, gaineratu zuen suizidioak arazo bilakatzen



Meltxor eguaztenean kultura etxean. A.I.

ari direla eta jendea ingurukoengandik banantzen ari dela.

Meltxorrek aipatu zuen inork ez duela dirurik musu-truk ematen eta galerak irabaziak baino handiagoak direla. "Normalizatu dagoen arazoa da adikzioa, eta sozializatu egin behar da".

# Bihar da Aloñako igoeran izena emateko eguna

Gauzez egingo den Buetraitzeko igoera bertikalerako izen-ematea ere bihar, zapatua, irekiko da, 15:00etan. 80 korrikalari hartuko dituzte igoera bertikalean eta 300 linealean. Dortsalak azkar bukatuko diren susmoa dute antolatzailleek

## Oihana Elortza OÑATI

Bihar, zapatua, zabalduko da izen-ematea Buetraitzeko eta Aloñako igoerarako. Igoera bertikala maiatzaren 3an izango da, gauean, eta lineala, berriz, maiatzaren 5ean. 15:00etatik aurrera eman ahal izango da izena, [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) webgunean.

## 80 eta 300

Proba biak prestatzen ari diren taldekideek uste dute azkar bukatuko direla dortsalak. "Egia da egun horretan Maeztun Espainia mailako txapelketa bat dagoela, eta hara ere joango dira batzuk, baina hemengo izen-ematea azkar beteko dela uste dugu. Aurten, gainera, zapatuan jarri dugu inskripzio eguna, ahalik eta jende gehienak aukera berak izan ditzan izena emateko", dio antolatze taldean ari den Mikel Urrutiak.

Probetako ibilbideak aurreko edizioetako berak izango dira. Buetraitzeko igoera bertikala hirugarren aldiz egingo da: Aloñako igoeraren hamargarren urteurenean eta duela hiru urte izan ziren aurreko biak. Lehen aldia egin zutenean, asmoa zen bost urtean behin egitea. Duela hiru urte, jende berria sartu zen antolaketa taldean eta proba hori



Korrikalariak ilaran Urriagandik gora, iazko Aloñako igoeran. IMANOL SORIANO

egitea erabaki zuten. Aurten, hamabost urte egingo ditu Aloñako igoerak, eta gaueko igoera bertikala ere antolatu dute. Maiatzaren 3an izango da proba hori, 22:00etan, eta 80 parte-hartzaile hartuko dituzte, gehienez. "Denboran ez luzatzeko jarri dugu kopuru hori. Lehenak minutu erdian behin aterako dira, baina azkenetakoak minutuan behin, eta, kopurua handituz gero, proba asko luzatuko dela iruditzen zaigu", dio Urrutiak.

Igoera lineala maiatzaren 5ean egingo dute, Oñatiko Foruen

plazatik abiatuta, eta aurreko edizioetako ibilbide bera izango du; 300 korrikalariko muga jarri dute proba horretarako.

## Eguraldia

Aloñako igoerako lantaldeak badu eskarmentua mendiko lasterketan prestatzeko, eta aurtengoa ondo antolatuta egoteko lan egingo dute, aurreko urteetan bezala. "Eguraldia izango da aurreikusitako duguna eta antolatu ezingo dugun elementu bakarra. Baina prestatuta egingo gara", dio Urrutiak.

## Aloña Mendiren eta UDAREN arteko derbia Azkoagainen

Domekan izango da partidua, 16:30ean, Oñatiko futbol zelaietan, Azkoagainen.

Sailkapenari begira, emaitza hobekitu etxeko taldeak areariorak baino. Aloña Mendi hirugarren postuan dago, 33 puntuarekin, eta UDA, berriz, seigarren, sei puntu gutxiagorekin. Hala ere, partidua gogorra izango den susmoa du Endika Ruiz entre-

natzaileak: "Taldea filiala da eta ez dute aparteko presiorik. Mailaz igotzeko ez dira lehiatuko, baina gustatuko zaie gure aurka irabaztea, eta horretan saiatuko direla uste dut. Presio falta hori barik lasaiago jokatzen da askotan, hobeto, eta horri aurre egiteko egon behar dugu gu".

UDAREN aurka izan zuen Aloña Mendik denboraldiko lehen porrota eta oraingo partidua irabazteko asmoarekin zelairatuko dira. Irabaziz gero, hirugarren garaipena segidan izango da.

## Oiartzun hartuko du, Zubikoan, Mekalki Aloña Mendik bihar

Saskibaloi taldeak, Mekalki-Aloña Mendik, Oiartzungo taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, 18:00etan, Zubikoan.

Sailkapen orokorreko lehen postuan dago Mekalki-Aloña Mendi taldea. Bolada onean dago taldea, bi partidua galdu ditu bakarrik lehen itzulian. Hain zuzen, Oiartzunen kontra jokatuko duen denboraldiko lehen lehia

eta 21 puntuko aldearekin irabazi zuten oñatiarrek.

Aurreko asteburuan, San Sebastian eguna tarteko, Aloña Mendiko saskibaloi talde gehienek ez zuten partidurik izan. Infantil txiki mailako mutilen taldeak jokatu zuen, ordea, eta irabazi egin zuen. Lehen itzuliko azken partidua izan zen talde horrendako, eta guztiak irabazi ditu. Lehen postuan daude sailkapen orokorrean. Haiek ere lehen taldearen pare ari dira jokatzen.






## Bukatzeaz dago Argi Argazki Festibaleko izen ematea

Argi Argazki Festibalak eta Arantzazu Gaur Fundazioak egoitza artistikoa eta erakusketak egingo dute apirilaren Gandiaga Topagunean eta lanak aurkezteko epea apirilaren 29an bukatzen da. Paisaia eta identitateak proposatutako gaia eta adinez nagusia izan behar da aurkezteko. Bi lan aukeratzeko da helburua.

## Ander Lipusen 'Zazpi senideko' lana domekan Santa Anan

Zazpi senideko du izena domekan 19:00etan Santa Anan egingo duten antzezlanak. Ander Lipus da zuzendaria eta Ximun Fuchs eta Manex Fuchs aktoreak. Senideak norbanakoa osatzen badu, nolakoa da norbanakoa senidea falta duenean? Bi anaia eta zazpi istorio taula gainean. Sarre-rak 10 euro balio du eta aurrez eros daiteke.

<b>MIKEL ALTUBE</b>		
<b>ARKITEKTO TEKNIKOA</b>		
GAATEO/COAATG zenb 01273		
San Lorentzo, 42 behea		
<b>OÑATI</b>		
<b>646 948 495</b>		
INDUSTRIA BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK	ETXEETAKO ERREFORMA INTEGRALEN DISEÑUA ETA PROIEKTUA	GREMIOEN KOORDINAZIOA
ETXEBIZITZEN BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK		
OBRA ZUZENDARITZAK		
GREMIOEN KOORDINAZIOA		



#### Arantzazu Ezkibel ARRASATE

Bueltan dira, Debagoieneko Mankomunitatearen, udalen eta Goienaren eskutik, DKS sariak. Zazpi urteko hutsunearen ostean, otsailaren 13an Amaia antzokian egingo duten ekitaldian sarituko dituzte 2018an gehien nabarmendu diren kirol talde, kirolari eta eragileak. Hala, aurkezpenean, sariketa horren nondik norakoak azaldu zituen Goienako kazetari Xabier Urzelaik: "2008an sortu ziren Debagoieneko Kirol Sariak. Orduan, Aretxabaletan, Oñatin, Aramaion eta Elgetan egin ziren ekitaldiak. Orain, Mankomunitatearen ekimenez, eta udal guztien babesarekin, duela hamarkada bateko helburu berberarekin dator DKS bueltan: Debagoieneko kirol esparruan lanean diharduten pertsona eta erakundeak saritzea eta publikoki errekonozitzea da asmoa".

Ildo beretik egin zuen berba Mankomunitateko presidente Unai Elkorok: "Hasieratik bailara ikuspuntua izan dute sari hauek, eta, nahiz eta kirol arloa ez den Mankomunitatearen arlorik indartsuena, bailarako jendearen lan ona azpimarratzea positiboa da".

#### Aramaio ere barruan

Hala, Elkorok nabarmendu zuen Mankomunitateko herriekin batera Aramaio ere DKS barruan egingo dela: "Administratiboki ez, Araba delako, baina prakti-

## Debagoiena Kirol Sariak abian dira ostera, eta geratzeko asmoz datoz

**DKS'2018** Zortzi urteko hutsunearen ostean, otsailaren 13an, Debagoieneko kirolari, kirol talde eta eragileen lana aitortu eta sarituko dute Amaia antzokian egingo duten ekitaldian. 24 orduan 1.000 lagunek eman dute Herritarren Sarirako botoa

kan Aramaio Debagoiena da. Eurek ere DKSn egon gura izan dute, eta, kirol sariketa honen antolaketan Goiena Taldea bidelagun izanda, Aramaio ere kontuan hartu dugu. Gainera,

aurreko DKSk sari banaketa ekitaldietako bat Aramaion bertan antolatu zuten".

Eta amaitzeko, Elkorok azpimarratu zuen asmoa ez dela DKS urtebetez bakarrik antola-

tzea, sariak geratzeko datozela: "Ea guztion artean jarraipena ematen diogun, eta urtero-urtero herri ezberdinetan antolatzerik dugun. Horretan saiatuko gara". Hala, Arrasateko alkate

Maria Ubarretxenak ere herri mailako kirolarien lana nabarmentzeko ekimena azpimarratu zuen: "Arrasateko Udaletik bat egin dugu DKS ekimenak duen filosofiarekin. Berez, azken urteotan herrian Arrasateko Kirol Sariak antolatu izan ditugu, eta ideia ez da askorik aldatzen, herri mailako ikuspuntua behar baino ekitaldi honek, eta uste dugu Arrasatek, herri moduan, hor egon behar duela".

#### Hamalau sari, guztira

Otsailaren 13an egingo duten ekitaldian, hamalau sari emango dituzte, guztira, eta Xabier Urzelaik eman zituen sari horien gaineko xehetasunak: "Udal bakoitzak herriko kirol talde, kirolari edo eragile bat sarituko du. Udalen euren ardura izan da saritu hori aukeratzea. Ordea, sari nagusietarako bai, kirol teknikariz eta hainbat mediotako kazetariz osatutako epaimahaia eratu dugu, sei lagun batu gara guztira eta aukeraketa egin ostean pozgarria izan da ikustea zenbat herri dauden ordezkaturak, ze kirol modalitate ezberdinetako jendea dagoen, eta gizonetzako eta emakumezkoak ere berdintsu daudela ordezkaturak".

Horrekin batera, aurkezpenean azaldu zuten datorren astean emango dituztela aditzera udalek ze bederatzir saritu aukeratu dituzten.

### DKSk sari nagusiak

Guztira, hamalau sari egingo dira otsailaren 13ko ekitaldian. Debagoieneko herri bakoitzak bere herriko kirolari, kirol talde edo eragile bana aukeratuko du, eta, horrekin batera, beste bost sari nagusi egingo dira:

- **Herritarren saria:** Citroen Chapimek eta KIA Chapimek babestutako saria; hamar hautagai daude sari horretarako.
- **2018ko kirolaririk onena:** Ekide Group enpresak babestuta.
- **2018ko kirol talderik onena:** Goiena Aseguruak Artekaritzak eta AXA Seguros Generales etxeak babestuta.
- **Sari berezia:** Obra Social La Caixa babestutako saria.
- **Goiena Saria:** Goiena Komunikazio Taldeak babestuta.

### Nola eman daiteke botoa?

Herritarren Sarirako hamar hautagai aukeratu ditu epaimahaia. Botoa *Goiena.eus* atarian eman daiteke. Botoa ematen dutenen artean, bailarako kiroldegi baterako urte osorako abonamendua zozketatuko da. Otsailaren 8a da azken eguna.

## Herritarren Sarirako hautagaiak:

### 1. Aimar Erostarbe

Oñatiarra, eta Aloña Mendiko txirrindularia. Espainiako kadete mailako txapelketan hiru domina lortu zituen txirrindulari oñatiarrak: urrea taldeka, zilarra banaka eta brontzea erlojupekoan. 2018an hiru lasterketa irabazi ditu eta Gipuzkoako bigarren ziklista onena izan da, eta baita Euskadiko laugarrena ere.

### 3. Maialen Axpe

Aletico San Sebastian taldeko atleta arrasatearra. Getafen, Espainiako txapelketan, zilarra jantzi zuen 4,45 metroko saltoa eginda, eta Europako Txapelketa absoluturako txartela lortu zuen. Abuztuan, Berlinean 4,35eko marka egin zuen. Aste gutxira, Perun, Iberoamerikar Txapelketan zilarra eskuratu zuen (4.20).

### 5. Julen Irizar

Euskadi Murias taldeko txirrindulari bergararra. Ibilbide profesionaleko lehenengo garaipena eskuratu zuen ziklista profesional moduan. Portugalgo Nazio Sariko bigarren etapan irabazi zuen bergararrak; ihes egin eta bakarrik helmugaratu zen. Aurten ere Odriozolaren aginduetara dago.

### 7. Markel Uriarte

Orbeako *biker*-a, aretxabaletarra. Espainiako Enduro txapelduna izan da, egutegiko bost probetan puntu gehien batu eta gero. Tortosan (Katalunia), La Adradan (Avila), Montefaron (Coruña), Cuencan eta Tuñan (Asturias) izan ziren lasterketa horiek eta erregulartasan handia erakutsi zuen Uriartek.

### 9. Nere Arregi

Goierrri Garaia taldeko atleta arrasatearra. Santanderko distantzia luzeko lasterketan podiumera igota lortu zuen Nere Arregik Espainiako selekzioarekin, Kroazian, Munduko distantzia luzeko txapelketan parte hartzeko txartela. Bertan, 100 kilometroko lasterketa 35. postuan amaitzea lortu zuen.

### 2. Ainhoa Redin

Oñatiarra, eta Aloña Mendiko igerilaria. Gipuzkoako eta Euskadiko hainbat txapelketa irabazi ditu 2018an. Euskadikoan, esaterako, brontzeko bi domina jantzi zituen, eta nabarmenezkoa da, baita ere, Espainiako txapelketarako sailkatu eta bertan lortutako hamalagarren postua.

### 4. Garazi Estebez

Gipuzkoa Ogiberri taldeko txirrindulari aretxabaletarra. Otsailean, pista estaliko kadete mailako Espainiako txapeldun izan zen, eta uztailean, Espainiako txapeldun izan zen hiru modalitateetan. Horrekin batera, Gipuzkoako txapeldun, Euskadiko txapeldun eta Euskaldun torneoan txapeldun izan zen.

### 6. Mikel Linazisoro

Eskaletzaile bergararra. 2018an lehenengoz eskalada kirol olimpiko izan da, eta Bergarako Buenos Airesen egin zituzten gazteen Olinpiar Jokoetan egon zen. Gainera, besteak beste, 20 urtez azpiko Europako txapeldunorde izan da Overall modalitatean eta 20 urtez azpiko txapeldunorde Europako Kopan.

### 8. Martin Perez

Gurpil aulkiko saskibalo jokalarri eskoriatzarra. Perezek Gasteizko Zuzenak taldearekin Espainiako gurpil aulkiko ligan jokatu du, lehenengo mailan. Udan, Espainiako selekzioarekin brontzea irabazi zuen Europako txapelketan. Maila goreneko kategoriari eusteko borrokan dihardute aurtengo ligan.

### 10. Vanesa Gimbert

Athleticeko futbol jokalarri bergararra. Espanyol, Levante, Sevilla, Rayo Vallecano... Bergarakoak ibilbide oparoa egin du emakumezkoen eliteko futbolekoan. 2013az geroztik Athleticeko jokalaria da, eta azken urteotan taldeko erreferenteetako bat bilakatu da, hura da-eta taldeko kapitaina.

## ESKALADA Txapelketa bikoitza egingo dute Ibarra asteburuan

Debagoieneko Eskalatzailak taldeak antolatuta, biharko eta etziko bina txapelketa antolatu dituzte Aretxabaletako Ibarra kiroldegian. Zapatuko boulder txapelketa izango da -izen-ematea, 09:30ean, 5 euro- eta domekan, Eskolarteko Gipuzkoako Ligaxkako lehen proba egongo da jokoan, goizez.

## DUATLOIA Ibarreko hainbat atletak jasoko dute saria

Euskadiko Zirkuituko gala ospatuko dute domekan Eibarren, eta bertan, duatloi eta triatloi sariak banatuko dituzte. Hala, sarituen artean hainbat debagoiendar daude. Aloña Mendiko Ainhize Barrainkua eta Antxintxikako Miren Josune Bikuña, Juan Martin Elexpuru eta Xabier Jauregi nabarmenduko dituzte.

## ZIKLISMOA Berbardia Gatzagan, ziklista ohi ezagunekin, bihar

Marino Lejarreta, Txomin Perurena, Joseba Beloki, Jesus Aranzabal txirrindulari ohiak, Eusebio Unzueta Movistar taldeko zuzendaria eta Euskal Herriko Itzuliaren eta Donostia Klasikoko zuzendari Julian Eraso egongo dira bihar, zapatua, Gatzagako kultura etxean, 12:00etan, mahai-ingurua eskaintzen.

## ZIKLISMOA Bailarako zortzi lagun daude Euskadi-Muriasen

Eguaztenean aurkeztu zuten 2019ko denboraldiko Euskadi-Murias, eta ziklisten artean egongo dira Mikel Aristi, Julen Irizar eta aurtengo fitxaketa Xubane Garai eta Garazi Erostarbe debagoiendarrak. Eurekin batera Jon Odriozola, Jon Rivero, Ibai Agirreurreta eta Eneko Garai ere taldean izango dira.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONA.

**Aretxabale.-Beti Gazte**  
Domeka. 16:30. Ibarra.

#### Zarautz-Mondra

Zapatua. 15:45. Asti..

#### Bergara-Hernani

Zapatua. 16:00. Agorro.

#### ERREGIONAL PREFERE.

#### Mondra-Antzuola

Zapatua. 16:30. Moiategi.

#### Aloña Mendi-Aretxaba.

Domeka. 16:30. Azkoaga.

#### LEHEN ERREGIONALA

#### Eibart.-Aloña Mendi

Zapatua. 15:45. Unbe.

#### Arizmendi-Urola

Zapatua. 18:00. Ibarra.

#### Segura-Bergara

Zapatua. 16:00. Segura.

#### EMAK. OHOREZKO ERR.

#### Bergara-Reala

Zapatua. 17:45. Ipintza.

#### Leintz Arizmendi

(Atsedena).

#### EMAK. GORENGO MAILA

#### Aloña Mendi-Hernani

Zapatua. 15:30. Azkoaga.

#### Bergara

(Atsedena).

#### ARETO FUTBOLA

#### EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Atsedena dute.

#### GIPUZKOAKO TXAPELKE.

#### Gaintxu-Eskoriatza

Gaur. 21:50. Lezo.

#### GIP. BIGARREN MAILA

#### Mondrate-Laskorain

Zapatua. 17:30. Musako.

#### ESKUBALDIA

#### EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Ford Mugarri-Deusto

Domeka. 11:30. Iturripe.

#### Basauri-Fagor Indust.

Zapatua. 16:30. Basauri.

#### EUSK. TXAP. EMAKUM.

#### Aloña Mendi-Elgoibar

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

#### GIPUZKOAKO TXAPELKE.

#### Soraluce BKE-Munttar.

Zapatua. 13:00. Labegar.

#### SASKIBALDIA

#### EBA

#### UBU Tizona-MU

Zapatua. 17:30. Burgos.

#### GIPUZKOAKO SENIORRAK

#### Mekalki Aloña-Oiartzun

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

#### GIP. BIGARREN MAILA

#### Bergara Soralu-Ordizia

Zapatua. 16:00. Labegara.

#### GIP. HIRUGARREN MAILA

#### Larramendi-Mekalki A.

Zapatua. 18:00. Donostia.

#### EMAKUMEZKOAK

#### Eskoriatza-Athletico SS

Gaur. 20:15. M. Muñoz.

#### ERRUGBIA

#### EUSKADIKO SENIOR. M

#### Gernika-Kanpanz. ART

Zapatua. 16:00. Gernika.

## Bailarako 18 pilotari asteburuan hasiko duten Master Cup-en

**PILOTA** Euskal Herriko, Errioxako, Kataluniako, Aragoiko eta Valentziako 110 pilotari batuko dira Galdakaon

### X.U. ARRASATE

Asteburuan hasiko dute Emakumezkoen Eskuz Binakako Master Cup txapelketa, eta lehenengo jardunaldiko partiduak Galdakaon jokatuko dituzte. Gainera, txapelketan jatorri askotariko 110 pilotari batuko dira, eta, antolatzaileen esanetan, Oñati eta Bartzelona dira pilotari gehien eramango dituzten herriak; hamabi, guztira.

Hala, finalerdiak martxoaren 10ean jokatuko dituzte, Errenterian. Eta finalak Zumarragan, martxoaren 10ean.

### Debagoieneko hamazortzi

Hain zuzen, hauek dira txapelketan izango diren pilotari debagoiendarrak. Bergaratik: Arrate Bergara, Reyes Azkoitia, Maddi Barrokak, Jaxone Larrañaga. Oñatitik: June Ugarte, Oihane Aizpurua, Eider Plazaola,



Aurreko Master Cupeko edizioa. I.S.

la, Nerea Plazaola, Karmele Egaña, Eider Quintas, Jaione Uranga, Irati Usandizaga, Nerea Uriarte, Irati Blazquez, Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés. Eta Antzuolatik: Leire Galeano eta Nagore Galeano.

# "Ahoz ahokoari esker ari gara aretoetan eusten"

TELMO ESNAL 'DANTZA' FILMAREN ZUZENDARIA

Aurreikuspenak apurtuta, 30.000 lagunek baino gehiagok ikusi dute, bost astean, 'Dantza'. Asteburuan, Arrasaten eskainiko dute, Amaian –ikus 47. orriko zinema atala–

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Euskal dantzeekin kontatutako fikziozko istorio poetiko eta musikala da Telmo Esnalek zuzendu duen *Dantza* filma.

**Pozik filmak izan duen harrerarekin?** Gustura nago, batez ere, jendea pozik ateratzen delako zinematik; askok zoriondu gaituzte kalean, baita eskerrak eman.

**Euskal aretoetako datuak onak dira.** Hala da; karteldegian jarraitzen du bost astez. Orokorrean, prozesu guztia oso konplikatu izan da, eta zinema aretoetan jartzea ere bai; aretoentzako, apustu zaila zen *Dantza*, astero estreinaldi asko daudelako, baina jendearen harrera oso ona da, eta horrek sekulako balioa ematen dio lanari. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu du eta horrek eragin du aretoetan eustek.

**Bitxia da, filma bukatu ondoren, jende asko aretoetan geratzen da kredituak irakurtzen, ezta?**

Askok esan digute dantza batzuk ikusita txalo egiteko gogoia zutela, baina emanaldian ezin txalorik egin, eta bukaeran egiten dituzte; horrek esan nahi du jendea bere egiten ari dela pelikula, eta hori baino gauza politagorik ez dago.

**Eta Spainian zer moduz?**

Kritika oso onak izan dituen arren, zaila da aretoak lortzea.



Telmo Esnal zinema zuzendaria *Dantza* filmeko lantaldearekin. XABIER ARTOLA

**"JENDEA BERE ARI DA EGITEN FILMA, ETA HORI BAINO GAUZA POLITAGORIK EZ DAGO GURETZAKO"**

Madrilen bi aste egin zituen, Bartzelonan astebete, baina gaueko pasean... Berriz ere itzuli nahi genuke Bartzelonara, baina zail dago.

**Euskaldunontzako filma dela ulertu da, orduan?**

Nik beti unibertsaltasunaz hitz egiten dut, baina egia da gure dantzei buruz hitz egiten dugula; hemen ondo ulertu da, eta, nire ustez, kanpoan ere bai.

**Atzerrira eta jaialdietara salto egiteko aukerarik ikusten duzue?**

Kanpoko aretoetara eta jaialdietara eramateko lanean ari gara. Azken horrekin harrituta nago; mugitzen ari dela badakigu, baina, oraingoz, emaitza gutxi. **Istorioko poetikoa da, hitz bakoia. Zer kontatu gura zenuen?**

Herri nekazari baten istorioa da, *imaginaria* bat, nahiz eta

irakurri dudana Euskal Herriaren historia kontatzen duela, baina ez da hala. Gure dantzek naturarekin lotura dute sinbologia aldetik; eta guk sinbologia hori guztiori erabili dugu istorio bat sortzeko. Bi zati nabarmen ditu filmak: lehenengoa oso sinbolikoa da, sagardoa egin artekoa, eta bigarrena herrikoia da. Urbeltzen urtetako ikerketak erabilia sortu dut istorioa. Herri nekazari hori izan daiteke hemen, edo Ukrainan...

**Aktoreekin beharrean, dantzariekin jardun duzu. Zer moduz?**

Dantza egiteaz gainera, paper txikiak dituzte gehienek. Hasi ginenean, kezka zuten, baina berehala harrapatzen zuten eskatutakoa. Kamera aurrean ez, baina, bestela, ohituta daude taularen gainean igotzen diren bakoitzean interpretatzen.

**Asko ikasi duzula diozu; adibidez?**

Koldobika Jauregirekin eta Juan Antonio Urbeltzekin gauza asko; era berean, nahiz eta proiektu pertsonala izan, zinema ez dela lan pertsonal bat ere ikasi dut; eta, horrez gainera, zure ideietan tinko mantendu behar duzula aurrera egin ahal izateko.

**Filmaren haritik tiraka, dokumental txikiak egiten ari zarete orain.**

EITBrentzat egiten ari garen 25 minutuko zazpi dokumental dira, pelikulan azaltzen diren sinbologiak eta dantzak aztertzen dituztenak. Lehenengoa Durangoko Azokan aurkeztu genuen eta esango nuke oso gutxi falta zaigula bukatzeko.

**Paraleloan, *Agur, Etxebeste!* filmarekin ere ari zarete. Zelan doa?**

Ondo goaz, irudia muntatzen ari gara; asmoa da pare bat astean bukatzea, eta soinuarekin jarraituko dugu gero. Filma maiatzean edo ekainean prest izango dugula uste dut.

## Moises Eguren margolariaren koadroen bila jarraitzen dute

Beart-ek Bergarako apaiz margolariaren obraren katalogazioa eta Aroztegin erakusketa egingo ditu

A. A. BERGARA

Santa Marina parrokiako abadea zen Moises Eguren (Bergara, 1927-1976), *Don Moises* izenez ezagutzen zutena Bergaran. "Gizon xarmagarria eta langilea zela" diote ezagutu zutenek, oso maitatua zela herrian. Elizgizonaz gainera, marrazkilaria eta margolaria ere bazen. Artearekiko, bereziki, pinturarekiko, pasioa zuela diote gertukoek.

Uztaila ezker, haren obra bilduzten ari da Beart Bergarako margo taldea, eta dagoeneko 50 margolan batu dituztela azaldu du Xabier Agirrek: "Marrazkitxo ugari ere lortu ditugu. Jabeek oso jarrera ona dute gurekin; poza adierazi dute urriaren 11tik 27ra bitartean Aroztegi aretoan egingo dugun erakusketarekiko, eta ondo hartua izan da, era berean, haren obraren katalogoa egiteko asmoa. Moisesen anaia Jose Marik etxean gordetako dokumentuen artean, koadroen argazki mordoia ditu, eta horietako batzuk aurkitzeko ahalegina egin gura dugu. Lagundu gura duenak, idatzi: [xabieragirre@ehu.eus](mailto:xabieragirre@ehu.eus), [a.arrillaga@telefonica.net](mailto:a.arrillaga@telefonica.net) edo [jlazkarate1@gmail.com](mailto:jlazkarate1@gmail.com) helbidetara, edo deitu 615 79 72 62 (Xabier), 646 90 68 85 (Anton) edo 609 48 99 67 (Jose Luis)".

## HARMAILATIK

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 28AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

XABIER URZELAI KIROL KAZETARIAK AURKEZTUTA

ASTELEHENERO, DEBAGOIENEN KIROLOAREKIN DUZUN HITZORDUA

goiena  
Zu hemen zaude.





# Lezo Urreiztietaren abenturak gogora ekarriz

Donostia Zinemaldiko Euskal Zinemaren galan egin zen 'Jainkoak ez dit barkatzen' dokumentalaren estreinaldia eta gaur, Kulturaten egongo da ikusgai, 19:00etan hasita; Josu Martinez, ikus-entzunezkoaren egilea, bertan izango da

**Maialen Regueiro** ARRASATE

Josu Martinez zinemagileak *Jainkoak ez dit barkatzen* dokumentala aurkeztuko du gaur, 19:00etan hasita, Kulturatera gerturatzen direnen aurrean. Ikus-entzunezkoan, *Lezo Urreiztietaren* abenturak jaso dira, eta, pasa den irailean Donostia Zinemaldian estreinaldia egin ostean eta abenduan Durangoko Azokan aurkeztuta, Arrasaten izango da dokumentalaz gozatzeko aukera.

**Martin Ugalderen** liburua

Martin Ugalde kazetari eta idazleak *Lezo Urreiztietaren* abenturak jaso zituen liburu batean eta Josu Martinezek liburu horretan adierazitakoak harago historia bat zegoela ikusi zuen. Ugaldek liburua idazteko hainbat elkarrizketa egin zituen eta Martinez horien bila hasi zen: "Zintak topatu nituen eta argi ikusi nuen istorio bat kontatu behar zela". Hala, zinemagile bilbotarrak ia hiru urte eman ditu dokumentala prestatzen. Izan ere, guztira, 35 ordu zituen topatutako zinta guztietan: "Azken emaitzan, horietatik ateratako eduki gutxi gelditu bada ere, istorio asko ikus-entzunezkoetik kanpo geratu behar izan dira".



Urreiztietari, Luis Arana Goirirekin. JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN

**Lezo Urreiztietari**

Urreiztietari Santurtzin jaio zen, 1907an, eta, 10 urte zituela, itsas kontrabandoari ekin zion. Bere leloetako bat zen *gauzak ez dira esaten, egin egiten dira*, eta horren adibide dira santurtziarrak egin dakoak: EAJko eta ELAko kide egin zen, fusilatze arriskuan zeuden 826 sozialista erreskatatu zituen eta Espainiako gerran izugarriko lana egin zuen, besteak beste. Hala, ezagutzen zutenek akziozko gauzak egiteko karisma edo gaitasuna moduko bat zuela zioten.

**Lezoren memoria**

Dokumentala aurrera eramane eta Euskal Herriko hainbat herritan ikus-entzunezkoak erakustea gainera, Martinez beste medio edo formatu bat eskaintzen ari da Lezoren memoria zabalteko. Martinezek dio "guztiari batasun bat eman nahi diogu, eta, horretarako, transmedia bidaia bat izango balitz bezala planteatu dugu". Lezok bere bizitzan ezagutu zituenak egitea da asmoa, "denbora luzez ahaztuta egon delako, baina orain, gelditzeko etorri da".

## Umore beltzaz gozatzeko aukera bihar, Bergarako Seminarixoa

Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreek 'Zoaz pake santuan' obra eskainiko dute, 19:00etan hasita

**M.R BERGARA**

2018ko abuztuan egin zuten obraren estreinaldia, eta, orduetik, Euskal Herriko hainbat antzokitan eman dute ezagutzera Ane Gabarain eta Mikel Laskurain aktoreek *Zoaz pake santuan*

obra. Azaroan, besteak beste, Eskoriatzan eskaini zuten emaldia.


Bihar, zapatua, "asperdurarako tarterik ez duen komedia" ikusteko aukera izango dute Seminarixora gerturatzen diren

horiek; hain zuzen, 8 euro ordaindu beharko dute antzokira sartzeko.

Bi aktoreek urteak daramatzate elkarrekin lanean, eta, hori dela eta, ongi ulertzen dute elkar. Komedia egiteagatik dira ezagunak, eta, oraino honetan, Gabarain Laskurain hiltzen saiatuko da, "egunerokoak eta errutinak gain hartuta". Izan ere, obran bikote baten porrotaren nondik norakoak azaltzen dira, gaizki esanak, haserreak eta adiskidetzak, besteak beste.

## Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko urtarileko sariak!**



**Tableta**

SPC Heaven 10.1 tableta  
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



**'Larga vida a Rip'**

Rip taldearen liburu eta diskoa  
Parte hartzeko sariaren izena: Rip

**Sarrerak**

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**

**Otarrea**

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.herrermandenda.org](http://www.herrermandenda.org)

Bidezko Merkataritzako produktuak

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Ikusien aipari: OPE 010001goienaren sariak eta beste sariak ere antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

**LASA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA Jateleku

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Bergarako Udaleri esker**

'Goazen 5!' antzezlanaren sarrerak ditugu.

Bergara | Seminarixoa | Otsailaren 3an | 17:00etan

Parte hartzeko: otsailaren 1era arte

**PARTE HARTZEKO:**

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "Goazen 5!" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Ikusien aipari: OPE 010001goienaren sariak eta beste sariak ere antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak. Saria irabazteko zozketak antolatzen dituen Goiena Klubeko sariak.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Egin zaitez Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 56 € bakarrik! Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...

Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



ESKER ONA



**Isabel Olalde Biain**  
Francisco Bikuñaren alarguna



2019ko urtarrilaren 10ean hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—  
Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 26an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko urtarrilaren 25ean.

ESKER ONA



**Felisa Zanguitu Ugalde**




2019ko urtarrilaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran (Osintxu), 2019ko urtarrilaren 25ean.

ESKER ONA

**Maribel Ceciaga Ganchegui**




2019ko urtarrilaren 23an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRIA

**Juan Andonegi Ulacia**  
—Goian bego—



2019ko urtarrilaren 22an hil zen, 72 urte zituela.

*Beti gure artean.*

Tximista taldea.  
Aretxabaletan, 2019ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRIA

**Antonio Zabarte Agirre**



2019ko urtarrilaren 19an hil zen, 86 urte zituela.

*Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.*



Oñatin, 2019ko urtarrilaren 25ean.

HILETA

**Roberto Urzelai Martinez de Iturrate**



2019ko urtarrilaren 23an hil zen, 55 urte zituela.

Gurasoak: Jose (+) eta Ana Mari. Anai-arrebak: Anabel eta Tino de la Varga, Karmelo. Ilobak: Jon, Imanol. Osaba-izeba, lehengusu-lehengusina eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta elizkizuna gaur, ostirala, urtarrilak 25, izango da, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Corpua Moyua beilatokian izango da 11:00-13:30 eta 16:00-18:30 artean.  
Oñatin, 2019ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRIA

**Candido Sanchez Balsera**  
(Eva Sanchez lankidearen aita)

2019ko urtarrilaren 22an hil zen, Antzuolan, 70 urte zituela.

*Bat egiten dugu senideen saminarekin.*



Arrasaten, 2019ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRIA

**Yolanda Roca Gongora**  
(Alex Saldaña lankidearen ama)

2019ko urtarrilaren 20an hil zen, Bolivian.

*Bat egiten dugu senideen saminarekin.*



Arrasaten, 2019ko urtarrilaren 25ean.

OROIGARRIA

**Roberto Urzelai Martinez de Iturrate**  
(Arrasate Herri Eskolako irakaslea)



2019ko urtarrilaren 23an hil zen.

*Gure basoak zuhaitz eder bat galdu du, baina haren itzalpean loratutako landare guztiek edertasuna zabaltzen jarraituko dute.*

*Ez adiorik, adiskide.*



AHEko lankide, ikasle eta gurasoak.  
Arrasaten, 2019ko urtarrilaren 25ean.

2. URTEURRENA

**Mari Carmen Martin Martinez**



2017ko urtarrilaren 23an hil zen, 60 urte zituela.

*Nahiz eta denbora aurrera joan, gure bihotzean jarraitzen duzu.*

Etxeoak.  
Aretxabaletan, 2019ko urtarrilaren 25ean.

URTEURRENA

**Jose Elorza Goitia**



2018ko urtarrilaren 22an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2019ko urtarrilaren 25ean.

**OROILORE**  
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Mugarriz mugarri ibili ziren**

Oñati, mugarriz mugarri ibilaldiko lehen etapa egin zuten Aloña Mendiko mendi saileko kideek. Elorregin hasi eta Oregiraino joan ziren, eta ostean Oñatira jaitsi. Eguraldi eskasa izan arren, gustura egin zituzten hamabost kilometroak. Ostean, elkarrekin bazkaldu zuten.

**2. Sarriegiren martxekin danborrak astintzen**

Elgetako Herri Eskolako danborradan, neska-mutikoeek fin-fin astindu zituzten danborrak aurreko egubakoitzean. Etor Errasti nagusiaren aginduetara, eta Sarriegiren martxan jarraituz, gurasoen eta senitartekoen txalo zaparrada jaso zuten ikasleek.

**3. Kurtzebarri eskolako aitona-amonak**

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan San Sebastian eguna ospatu zuten aurreko egubakoitzean. Eskolako danborradan hango ikasleak izan ziren protagonista, baina laguntzaile bereziak izan zituzten: euren aitona-amonak eduki zituzten alboan, gorro zuri eta guzti.

**4. Murias taldeko debagoiendarrak**

Jon Odriozola zuzendaria, Jon Rivero, Eneko Garai eta Ibai Agirreurreta teknikariak eta Julen Irizar, Mikel Aristi, Xubane Garai eta Garazi Erostarbe ziklistak dira Euskadi-Murias taldeak dituen bailarako ordezkariak. Aurkezpen ekitaldia egin dute astean, Erreterian.

**5. Ataungo Joxe Migel Barandiaran museora**

Arrasate Herri Eskolako 40 lagunek ikasturteko hirugarren mendi irteera egin zuten Ataunera, Joxe Migel Barandiaran museora. Eguraldia asko lagundu ez zien arren, gustura ibili ziren egun pasa egindako txangoan.

**6. Gabonetako zozketako saridunak**

Bergarako Lokatza ziklismo taldeak Gabonetan egindako zozketako sariak banatu zituen. Mila Intziartek Biciprecision Igartuak emandako bizikleta eta 500 euro irabazi zituen. Bego Garitanok, berriz, 200 euro eta Zumelagan bi pertsonarendako bazkari/afaria irabazi zituen.



## ZORION AGURRAK



ONATI  
**Unax Egaña Umerez**  
Urtarrilaren 30ean, 8 urte. Zorionak, bihotzez, etxeko txapeldun! Domekan zeinen ondo pasatuko degun!




ARRASATE  
**Eneko Izeta Herranz**  
Urtarrilaren 30ean, 7 urte. Munduko mutikorik politenari, zorionak eta patxo handi-handi bat aitaita-amamen, Lukenen eta familia osoaren partetik!



ONATI  
**Maddi Bikuña Barbero**  
Urtarrilaren 29an, 4 urte. Zorionak, maitte! Segi beti bezain alai! Patxo handi bat, familixa danaren, eta bereziki, Laiaren partetik.



BERGARA  
**Naroa Manso Beistegi**  
Urtarrilaren 28an, urtebete. Zorionak, Naroa, zure lehenengo urtebetetzean, familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA  
**Eneko Gantxegi Gallastegi**  
Urtarrilaren 27an, 8 urte. Zorionak, Eneko! Zortzi urte! Ondo-ondo ospatu! Muxu handi bat, etxeko danen partetik. Oierrena bereziki.



ONATI  
**Oier Gavilan Iturbe**  
Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak, familia osoaren partetik. Muxu potolo mordoa!



ANTZUOLA  
**Arantzazu Gezalaga Esnaola**  
Urtarrilaren 27an, 9 urte. Dagoeneko bederatzi urte! Zorionak zuri, zorionak beti! Familia osoaren partetik, muxu goxo bat.



BERGARA  
**Irene Calleja Etxaniz**  
Urtarrilaren 27an, 9 urte. Zorionak, Irene! Oso ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat, famixako danen partetik!



BERGARA  
**Alaine Da Silva Moreno**  
Urtarrilaren 26an, 5 urte. Zorionak! Egun polita izatea espero dugu. Segi beti bezain alai. Pila bat maite zaitugu. Etxekoak eta, bereziki, Kenar.



ESKORIATZA  
**Paula Rubio Oñate**  
Urtarrilaren 25ean, 18 urte. Zorionak, Paula! Ondo-ondo pasatu zure eguna, disfrutatu, *guap!* Patxo handi bana, familixa osoaren partetik!



ONATI  
**Martin Narbaiza Aranburu**  
Urtarrilaren 25ean, urtebete. Zorionak, txiki, zure lehenengo urtebetetzian, Oñatiko eta Lekitxoko lagunena eta etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Iker Murillo Pose**  
Urtarrilaren 25ean, 7 urte. Zorionak, maittia! Super ondo pasatu zure egunean. Segi horrela, txapeldun. Patxo pila bat, aitaoren eta amaitoren partetik!



BERGARA  
**Sara Barrigon Gauna**  
Urtarrilaren 24an, 4 urte. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu asko, denon partetik.



ONATI  
**Ander Iciar Garcia**  
Urtarrilaren 22an, 8 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko guztien partetik.



MUTRIKU  
**Oihan Iriondo**  
Urtarrilaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, gizontxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Axel Anduaga Cortes**  
Urtarrilaren 19an, 5 urte. Zorionak, prexioko! Bost urte jada... Patxo handi bat familixa danaren eta, bereziki, amaitoren, aitaoren eta Liaren partetik. Mua!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali

[zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



JOSEBA YARZA

## BERGARA Debagoieneko musika eskolen piano jaialdia

Bergarako, Aretxabaletako, Oñatiko, Eskoriatzako, Elgetako eta Soruluzeko pianista gazteek emanaldia egingo dute. Ikasle bakoitzak pieza bat joko du, etxekoan eta senideen aurrean.

Urtarrilaren 30ean, Seminarixoan, 19:00etan.



MUSIKAZUZENEAN

## OÑATI Eneritz Furryak

Bakarkako bidea hasi zuenetik, bi abestiko singlea kaleratu du, rock eta folk doinuak osatuta, inoiz baino modu intimistagoan. Sarrerak, zehaztu barik.

*Bihar, zapatua, gaztetxean, 12:30ean.*

## EGUBAKOITZA 25

### BERGARA San Paulo jaiak Uberan

11:00etan, meza; 12:00etan, salda eta txistorra; 20:30ean, txupinazoa eta poteoa; 21:00etan, bertso afaria Agin Laburu eta Julio Soto bertsolariekin.

*Uberan.*

### ELGETA Ipuin kontaketa tailerra

Maidar Galartzak egingo du 8 urtetik gorako gaztetxoendako tailerra.

*Liburutegian, 17:00etan.*

### OÑATI Tailerra: 'Lan interbalikoa'

Nor bere taupaden arabera, kirol jarduera nola antolatu behar den azalduko dute.

*Kiroldegian, 18:00etan.*

### ELGETA Herri Eguneko dantzak: lehen entsegua

Helduen taldearendako entsegua.

*Gimnasioan, 19:00etan.*

### ARRASATE 'Jainkoak ez dit barkatzen' dokumentala

Lezo Urreiztieta buruz Josu Martinezek egindako lana.

*Kulturaten, 19:00etan.*

### BERGARA 'Fruta-arbolak' hitzaldia

Gabino Muruak egingo du berba: inausketak eta injertoak, gaixotasunak eta prebentzioa... Angiozarren, 19:00etan.

### OÑATI Kilimak taldea, eta Ane eta Malen kontzertua

Euskal udalekuen jaialdia.

*Antixenan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 26

### ESKORIATZA '2030ean, nolako Eskoriatza izan nahi dugu?' tailerra

Bigarren batzarra. Helburu nagusia herri proiektu estrategiko bat irudikatzen hastea da.

*Kultura etxean, 10:00etan.*

### ARRASATE Irantsube elkartearen batzar orokorra

Lehen deialdia 10:30etan, eta bigarrena 11:00etan.

*Elkartean.*

### BERGARA San Paulo jaiak Uberan

11:00etan, puzgarriak; 12:00etan, patata tortilla eta tarta lehiaketak; 13:00etan, jaioberriei ongietorria; 14:00etan, bazkaria; 20:30ean, mozorro-festa; 21:30ean, Tobaco Road taldearen blues doinuak; 23:30ean, Eyharts-en ikuskizuna.

*Uberan.*

### OÑATI Inauterietako entsegua

Dantzak ikasteko entsegu eguna.

*Eltzian, 12:00etan.*

### OÑATI Herrixa Kantuan

Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik. Foruen plazan, 12:30ean.

### OÑATI Bulkada berrien eguna

Gazteok 40 urtez antolakuntzan eta borrokan lelopean: 12:30ean, argazki erraldoia, eta ostean, poteoa; eta 14:30ean, bazkaria eta tertulia.

*Gaztetxean, 12:30ean.*

### OÑATI Aloñako igoera: izen-ematea

15:00etan zabalduko da izen-ematea *Sailkapenak.com* atarian. Butreaitzeko kilometro bertikalerako ere bai. Plazak agortu arte.

*Oñatin.*

### ARETXABALETA Muru Alde elkartearen urteko batzarra

Lehenengo deialdia 15:00etan, eta bigarrena 15:30etan.

*Elkartean.*

### ARETXABALETA Txoko lasaia egokitze lanak

Gaztetxoendako ekintza.

*Gaztelekuan, 17:00etan.*

### ESKORIATZA Zinema gelako mahaiak konpontzeko proiektua

Gaztetxoendako ekintza.

*Gaztelekuan, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Udazkena Euskal Herrian' erakusketa

Gaur da bilduma ikusteko azken eguna. Dirua, Aspanogirendako.

*Kulturaten, 17:30ean.*

### ARRASATE 'Mihi-bero' jolasa

Gaztetxoendako ekintza.

*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Mosaiko erakusketa

Javier de la Torreren bilduma.

*Arkupen, 18:00etan.*

### BERGARA Liburu aurkezpena

*La trama del 4%. Las comisiones del Caso Miguel* liburua aurkeztuko du Ahoztar Zelaieta kazetariak.

*Kartzela zaharrea, 18:00etan.*

### BERGARA 'Zoaz pake santuan' antzezlan

Daraman bikote bizimoduarekin aspertuta, senarra (Mikel Laskurain) pozoitzea erabaki du emazteak (Ane Gabarain). Sarrerak, zortzi euro.

*Seminarixoan, 19:00etan.*

### BERGARA John Dealer And The Coconuts eta Kobrazulo taldeak

Rock-and-roll doinuak Legazpiko eta Antzuolako taldeekin.

*Kartzela zaharrea, 22:30ean.*

## DOMEKA 27

### ANTZUOLA Oiz mendira irteera antolatu dute domekarako

Trabakua mendatetik igoko dira.

*Olaran etxean, 08:00etan.*

### ESKORIATZA Zuhaitz Eguna

Aurreko urtean, 2018an, jaiotako haur beste zuhaitz landatuko dira.

*Ibarraundi museoa, 11:00etan.*

### BERGARA San Paulo jaiak Uberan

10:00etan, diana; 11:00etan, meza; 12:00etan, salda eta txistorra eta

Alai taldea; ostean, musika eskolaren emanaldia eta zozketa.

*Uberan.*

### BERGARA Txistulari Bandaren emanaldia

Kalejira egingo dute.

*San Martin plazan, 10:00etan.*

### BERGARA Bergarako Musika Bandaren kontzertua

Enrike Txurrukak zuzenduko du gaurko emanaldiko lehen pieza.

*Pilotalekuan, 12:30ean.*

### Oñati Euskal Herriko mus txapelketa

Izen-ematea, hogeituro bikoteko.

*Boga tabernan, 16:30ean.*

### ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako ekintzak, domekero, martxoaren 31ra arte.

*Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

### ARRASATE M8: emakume gazteen batzarra

Gaztetxoendako.

*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

### ARETXABALETA Zinema emanaldia, euskaraz

Gaztetxoendako.

*Gaztelekuan, 18:00etan.*

### OÑATI 'Gogoan hartzeko izenak' erakusketa

Gaur da azken argazki bilduma ikusteko azken eguna.

*Kultura etxean, 18:00etan.*





AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Izoztuta

Neguaeren argazkirik aukeratu beharko banu, aste honetan ETBk ekarri digun Niagarako ur-jauzi izoztuaren irudia da. Ederra eta, aldi berean, zirraragarria argazkia. Inpresioa egin zidan naturaren indarra irudikatzen duen mugimendu bat nola geratu daitekeen geldi izotzarekin. Finlandiara egin nuen bidaia batean antzeko sentazioa izan nuen Baltikoa izoztuta ikusi eta gainean oinez ibili ginenean.

Izotz horren isla balitz bezala, aste honetan izoztuta utzi nauten berriak ikusi eta irakurri ditut: Julenen, Malagako umetxoaren, erreskaterako baliabideek, komunikabideek egindako jarraipenak, Malagako mendi hartako zulaketek... Protagonista ugariren istorioak idazteko emango dute datozen hilabeteek.

Bestalde, Pablo Ibarren errudun epaia atera zen, baina bi epaimahaikidek atzera egin omen dute orain. Pablaren bizitza dago jokoan eta ikaragarria da hau, baina benetan izoztuta uzten nauena Floridako justizia sistemaren gehiegikeria eta ustelkeria susmoak dira. Badirudi epaiketa baino lehenago, Pablo errudun izendatuta zutela. Ea eskandalu honek Pablari errugabea dela demostratzeko benetako aukera ematen dion.

## BUKATZEKO



Txikon, Himalaian, oñatiarraren jaka soinean duela. ALEX TXIKON



Kanu, tela bat ebakitzen bere txokoan. A.I.

# 'Kanu' oñatiarrak eginiko jakarekin joan da Txikon

'Kanu' oñatiarrak diseinatu eta egindako lumazko jakarekin abiatu da Alex Txikon K2-ko espediziora. 'Geyperman' gerrako panpinei zakuak josten hasi zen 'Kanu' umetan, eta Himalaiara heltzen diren mendiko arropak egiten ditu azkeneko urteetan

### Amaia Igartua OÑATI

Neguko urtaroan Himalaiako K2 gailurrera igotzen den historiako lehen alpinista bilakatzea du helburu Alex Txikonek. Espediziora Carlos Vieira *Kanu* oñatiarrak sortutako lumazko jakarekin abiatu da.

*Kanu*-ri umetatik datorkion zaletasuna da joskintza. Hain zuzen ere, 11 urterekin *Geyper-*

*man* gerrako panpinekin jolas-teko, harizko zaku txikiak sortzen hasi zenetik. Gutxira, josteko makinan beste hainbat gauza egiten hasi zen. Eta, 18 urte zituela, lehen jantzi eta arnesak egiten hasi zen.

### Bi zaletasunen bateratzea

"Mendira asko joaten nintzen eta nire premia arin joatea iza-

ten zen. Beraz, merkatuak eskaintzen zituenak baino arinagoak ziren produktuak sortzen hasi nintzen", aditzera eman du *Kanu*-k. Mendira babestuta joateko jantziak eta ekipamenduak egiten trebatu da.

Jantziez gain, mendiko irteerarako beharrezko diren beste hainbat ekipamendu ere egin ditu; lo-zakuak, kanpin-dendak,

arnesak eta motxilak ere sortu izan ditu. "Mendi irteeraren arabera, bertako baldintzetara egokitzen ziren jantzi eta ekipamenduak egiten nituen", adierazi du *Kanu*-k.

### Alex Txikon

Alex Txikon mendizaleak K2 mendira egingo duen espedizioari lotuta, alpinistaren beharretara egokitzen den buzo bat sortu du. "Kontzeptua aldatu genuen eta buzo arinagoa sortu nuen, kilo bat inguru pisatzen duena eta 20 eta 25 gradu zero azpitik jasaten duena. Beste jaka handiago batekin eramanez gero, 50 gradu zero azpitiko tenperaturan ere eraginkorra da", dio oñatiarrak.

Ez da lehen aldia lemoarra oñatiarraren arropak jantzita mendira doana. Hala, beste urte batez joan da Alex Txikon *Kanu*-k egindako neguko jakarekin. Oraingoan, Himalaiako K2 gailurra helburu duen espediziora eraman ditu oñatiarrak egindako arropak. Hotzari aurre egiteko, *Kanu*-k diseinatutako jakaz gain, K2-ko behe kanpalekuan, lehen aldiz, hiru iglu egin dituzte. "Neguan behe kanpaleku batean igarotako gaurik onena izan da, igluak eskainitako atsendari esker", azaldu du astean Txikonek berak txio batean.

### Afizioz eginiko lana

Betidanik egin izan ditu jantziak *Kanu*-k, hala mola jakak, prakak eta bestelakoak, "ikerketa gisa". Eta argitu du: "Jende asko etortzen da galdezka, baina nik nire zortzi lanorduak egiten ditut lantegi batean egunero; hau afizio bat besterik ez da, beste edozer izan zitekeen moduan".

**dks'18**  
DEBAGOIENEN  
KIROL SARIAK



## EMAN BOTOA

Herritarren Sarirako hamar hautagairen artean eman botoa [goiena.eus](http://goiena.eus)-en, otsailaren 8a baino lehen.

**IRABAZI ABONAMENDUA! Parte hartzaileen artean**  
**Deba Gaieneko kiroldegi baterako urte osorako abonamendua**

*Anima zaituz eta parte hartu!*